



BIZIAN GORA

# TXIKIAK HAUNDI



A. Martzel Andriana

TXIKIAK HAUNDI


®

8

BIZIAN GORA

ibaizabal





**A. Martzel Andrinua** (Bizkaian Markina-Bolibar 1930). Orue-Zornotzako pasiotarren erlijioso Alkarteko kide da. Bere abadetzako 50 urteak Euskalerrian ebanjelizatze lanean emon ditu, batez ere, Bizkaia aldean eta euskal munduaren barruan.

Estimagarria da berak euskera arloan egin dauan bidea: Euskaltzaindiko urgazle (1961); bertsolarien lehenengo txapelketetan epaimahaiko (1957-1971). Gotzain Ordezkarri hiru aldiz (1973-84). Baserialdeko pastoral Idazkaritzako Arduradun (1986); Mañaria eta Izurtzako Parrokiako arduradun (1982). Azken 10 urteotan BIZIAN GORA adinekoen eleiz mogimenduko Kontseilari eta bultzagile da Bizkaiko Eleizbarrutian, bere eragina Gipuzkoa eta Nafarroako Baztan alderaino zabalduz.



Euskal Biblioteka Labayru



1045031

RELIGIÓN / N. 2065

# **Txikiak haundi**

adiskide Karmel  
afamari  
bihotzel  
A. Martzel

A. Martzel Andrinua

---

# Txikiak haundi

---

Azaleko diseinua: *Hilario Urkia*  
*Juan Carlos Landa*

Azaleko irudiak: *Ima Mendiola*

Barruko irudiak: *Ima Mendiola*

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailaren diru-laguntza jaso dau.*

© Ibaizabal argitaletxea, 2004  
ISBN: 84-8325-813-7  
Legezko gordailua: BI-2497-04  
Inprimategia: R. G. M.

*Nor dan txikia ta nor haundia  
neurtzen ez da erreza,  
Jainkoagandik aparte nor da  
hau epaitzeko jueza?  
Itxuraz haundi, izatez txiki  
ijito ala markesa?  
Hau bai mundu aldebreza!  
Gurutzean hil ta piztu Zana  
dogu gorengo ametsa;  
munduak ezetz dinon orduan  
Jainkoak dino baietza.*

A. Martzel



## ATARIKOA

*Bada kabidu ezina gu bizi garan mundubola honetan! Batzuk, haundiaren haundiz, hemen eurentzat leku nabikorik ezta, beste mundu barri batzuen bila hor jabiltzuz goietan zehar. Eta hortik zehar ere inor ez: ez gizonik, ez Jainkorik! Hori da bakardadea! Ez, gizonak gaur ez dau Jainkorik behar. Eta harro-marro emoten dau bere epaia: ez gainetik, ez azpitik, ez dago geu besterik. Eta horra bere burua jainkotzat ezarrita, miloika goseti, biluzi eta errukarriren gainean. Gizonak egiazko Jaungoikoa baztartu, eta Haren lekuan bere burua ipinten dauanean, orduan gizona ez-gizon biburtzen da; Adan berari jazo jakona: Jainkoa hainakoa izan nahi, eta gizon izatetik ere jausi...*

*Hain zuzen ere, Jainkorik ezaz markatutako giro honetan nator sekulako erronka bero bat botatzera: Txiki-haundiak eta haundi-txikiak alkarren ondoan jarri eta zer dan haundi eta zer dan txiki izatea agirian ipinitera. Egon ere, zetan dago gizakiaren haunditasuna? Nahi dauana egitean, ala behar dauana egitean? Hor agertzen jaku eda-detuaren kategoria: giza-bizitza egundainoko gailurretara luzatu da, eta inok zahartzerik nahi ez! Zenbat abalegin gazterik ez hilteko, eta zahartzaroaren baliorik onartu*

nabi ez! Euskalerriko gotzainak argitaratu deuskuen Pastoral Idazkia «Fedearen esperientzia bizi» bete-betean etorri jat, aspaldion buruan nerabilen ametsa betetzeko. 12 urte daroadaz Bilboko Eleizbarrutian Bizian Gora edadetuen kristau mogimentua gidatzen eta bultzatzen. Eta, egia esateko, euren artean aurkitu ditut benetako txiki-haundiak, giza-pitxirik ederrenak. Ez dot gitxi ikasi euren-gandik! Gizarteak —eta Eleizeak ere bai alde askotatik— ez ditu aintzat hartzen.

Ebanjelioko orrietara jota, danak gainez betetzen dituan pertsonaia, Nazaretoko Jesus, ezagutzen basi orduko, barrantzekoa zera da: Zeru-lurretan kabidu ezin dana, Belengo askatxoan zapitxoetan batuta aurkitu ebela artzainak eta erregeak. Nagusi eginda gero, bere erizpideak eta jokabideak gogotan hartuta, gizakien artean haundi-txikiak eta txiki-haundiak bereztuten basita, gizarteko neurriak deseginda izten ebazan: «Lehenengoak azken izango dira eta azkenengoak lehenen». Berba bitan esanda: Jesus Bera da benetako txiki-haundia, aurretiaz haundia txiki egin zalako. Harrezkero, badakigu —ondo jakin ere!— Txiki-haundi horri jarraitzeko bidea: «Nire atzetik etorri nahi dauanak ukatu begi bere burua, hartu bere kurutzea eta jarraitu beist».

Irakurle, igerri dozu honezkero, liburu hau moldatzera-koan, erabili dodan asmoa: Zorionez, eta hur-hurretik neure begiz ezagutu dodazan txiki-haundien baloreak eguzki-argitara ateratea. San Paulo apostoluak bere sasoi-ko kristinauei inotsena bete-betean jatorku: «Begira, anaiok, aukeratuak nortzuk izan zareen: giza-neurriz ez dago zuen artean jakitun askorik, ezta ahaltsu askorik ere, ezta haun-

diki askorik ere. Bestetara baino: gizarteko zoroak aukeratu ditu Jaungoikoak, jakitunak lotsarazoteko; eta gizarteko makalak aukeratu ditu Jaungoikoak, indartsuak lotsaz izteko; eta gizarteko zabor, hondar, ezer ez dana aukeratu dau Jaungoikoak, zerbait dana hondatzeko, Jaungoikoaren aurrean inor harrotu ez dedin» (1Ko 1, 26-28).

Nik ere edadetuei sarri ekarri deutset gogora gaur gure artean jazoten dana: «Ikusi zuen artean zenbat jakitun eta agintari diran: zuek zaree Jaungoikoak gaur aukeratu zaituenak, bere Semea ezagutu eta jarraitzeko, eta bere Barri Ona iragarteko; ez giza-jakituriz, Jaunak eurengan agertu dauan fedearen esperientziaren bidez baino». Gure nagusiak urte askotako giza-esperientzia aberatsa, Bizian Gora mogimentuaren lexiban astinaldi batzuk hartuaz, fedearen esperientzia gozo mamintsuaz bat eginda bizi dabe. Pena bat agertzen dabe: Hau lehenago jakin izan bagendu! Hainbeste errezu eta sarri lainoetara begira, norbera baino barrurago dogunari sekula santan arpegira begiratu barik... Hainbeste bide aginduen bidean ibili ondoren, agintzarien bidean sartu barik, Jaungoikoari bihotz betean paa! bat emonaz, AITATXO! deitu barik.

Espiritu Santuak gure anai-arreba nagusiengan egiten dibarduana argitaratu barik itziko baneu, ez nintzateke zintzoa izango. Eta gura dodana, erdizka bada ere, lortuko abal dot, Jainkoa lagun.

Hau da:

- Jainkoa ez dala hil: ez dabilela laino artean, geure artean baino, atea nok edegiko ete deutson zelatan. Askok aitatzen daben gaurko «Jainkoaren eklipsea» dagoala ere,

*asko dirala Jainkoaren bihotzeko printzaz ikutuak eta bizibarrituak sentitzen diranak.*

- *Gure arteko pertsona apal eta urtetsuak gaur bertan holako fede-esperientzia gozo eta onurakorra egiten ikusita, nori ez jako sortzen umetasun garbiz, Espirituaren esne barri hau dastatzeko gogoa?*
- *Hau esperientziarik gozoena danez, a zer kaltea geuretzat, bere bila hasten ez bagara! Hain merke eta hain hur eukita! Zelan eta nun aurkitu bidea? Eurok izango doguz bide erakusle; Jaunak eurei adierazo deusena agertuko deuskue argi eta apal. 12 urtetan euren artean batu dodazan garau batzuk dozuz.*

*A. Martzel*

## ZELAN ERABILI

*Ez da irakurri eta bertan izteko liburua; ez dago asmo horregaz antolatuta, behintzat. Bakarrean nahiz alkarrean, fedearen esperientzia egiteko lagungarri lez moldatu nahi izan dot.*

- *Hasierako atal luzeena argibide batzuk eskeintzeko da.*
- *Bigarrenean, nagusi zaharbarritu baten bizikizun apal bat dator, norberak bizi dauanagaz parekatzeko edo bizi leikenaren bila hasteko deia.*
- *Gaiaren zati batzuk gogora ekarriz, itaun batzuk ezarten dira, sakontzen jarraitzeko asmoz. Jakina, itaunak beti dagoz erantzunaren zain; ez da egoki jota pasa egitea.*
- *Ondoren ebanjelio-ataltxo bat ere badakar laburrean. Kako artean daukazu nondik norakoa.*
- *Eta amaitzeko ototz bat daukazu, zeuk zeuganatu eta osotu daizun.*



# 1

## MARIRIBARRE



*Ez da errez betetzekua,  
amama zanaren lekua*

Atal barri hau parabola politategaz hasten da: Harako gizon batek ezin eban sinistu Jaungoikoak bera hain maite dauanik. Eta, bere errezu eta guzti, triste eta burumakur bizi zan. Behin mendialdera joiala, artzainategaz topo egin eban. Artzainak, holan ikusita, badinotso:

- «Adiskide, zer jazoten jatzu horren triste bizitzeko?»
- Bai, triste, oso triste naukazu, bakar-bakarrik sentitzen naz eta.
- Neu ere bakarrik nago, baina pozik bizi naz.
- Jaungoikoak lagunduten deusulako izango da.
- Jakina, ba! Harek lagundu eta norbera ahalegindu.
- Nik ez ba, nik ez daukat Jaungoikoaren laguntzarik; ez naz gauza Jaungoikoak maite nauala sinisteko.
- Adiskide, begira han beheko urira: etxe bakoetak hainbat leiho ditu. Eguzkia bat bakarra izanik, uriko etxeetako leiho guztiak eta bakoetak hartzen dau egunero eguzkiaren laztan bero gozoa eta bere argiz betetzen dira bertako etxe-barruak. Baleiteke zu triste egotea, zure bihotzeko leihoa itxita daukazulako?

Gaur egungo gizakiaren agiriko ezaugarri bat hau da: gaur jenterik gehiena burumakur eta triste bizi dala; osagai asko behar dauala, irribarre egiteko. Sekula baino aukera gehiago euki pozik bizitzeko, eta ezin lainopetik urten; estressak eta itolarriak jota bururik erdiak. Artzainak esandakoa gogora: Etxeko leihoak

itxita euki ezker, ezin hartu eguzkiaren berorik, ez argirik.

Baina, zorionez, zerupean danak ez dagoz lainopean; bitarteetatik eguzki-printzaren batzuk ere agiri dira. Kristau gehienak Jainkoa hil dala eta lurpera begira jarraitzen daben artean, gero eta gehiago dira berbizu danagaz topo egiten dabenak. Eta hileta jotzen dihardunenak jentea uxatu egiten dabe, baina Berbiztuaren testiguak pegakorrak dira, errez kutsatzen dabez ingurukoak. Hor daukazu Bizian Gora, kristau edadetuentzako eleiz mogimentua: lehenengo helburua kideen arteko *adiskidetasuna* dau. Zer dan hori? Maria amamak adierazoko deus, dotrinaz barik, bere esperientziaz:

- **Egunon, Maria! Zenbat urte daroazuz gure eleiz mogimentuan?**
- **Aurten zazpigarrena. Ni bizitzeak gogor astindutako pertsona naz: sei seme-alaba izan dodaz; hareetatik bi hil jataz, eta biak iztripuz, eta bien bitartean senarra ere bai. Zorioneko eguna, lagun batek eleiz alkarte honetan sartzera konbidatu ninuana! Hortxe hasi naz barriro bizitzen.**
- **Maria izena ondo jatortzu, Nazaretoko Mariaren izena: zoazen lekura zoazela, poza daroazu aldean; ordurik gogorreanean ere, irribarrea ezpanetan sarri loratuten jatzu.**
- **Nik neure amagandik ikasi neban aurrera begira bizitzen, atzekoari bakean itziaz. Eta gure artean hama-**

**bostero egiten dogun ebanjeliozko batzarrak pozez eta argiz betetzen nau.**

- **Gainera zeu zara alkarte txiki horretako arduradun; lagunei ere bizipoza ezarten berebizikoa ei zara. Bizitzan hainbeste zaplateko hartu ondoren, inguruko egoitzetara ere joaten ei zara.**
- **Bai, hori niretzat bizigarria da. Ez nau nekatzen. Neuk neure kurutzbidean Jesusen atzetik egin dodan fedesperientziak asko balio izan deust, beste batzuei laguntzeko orduan.**
- **Orain artekoari begira, zek lagundu deutsu gehien Jesus Jaunagaz topo egiten?**
- **Sufrimentuen erdian Jesus Kurutzekoagaz bat egiteak: asko sufritzean, asko maitatzen ahalegindu naz, dana Jaunaren eskutik hartzen. Eta Jaunak sufrimentu haundi baten ondoren, bere maitasun esperientzia barri bat emoten izan deust.**
- **Sufrimentuak zu ez zaitue tximurtu eta barrura begira jarri. Zu ikusita, zure bizitzako barri ez dakianak, sufrimentu haundiren arrastorik ez deutsu hartzen. Irribarre gozoagaz agurtzen dozuz guztiak. Horregaitik deituten ei deutsue MARIRIBARRE. Izen polita eta egokia kristau batentzat.**
- **Bai, neure kristau lagunartean bizibarritu egin naz, bihotzeko zauriak osatu jataz, eta beti nago prest dantzan nahiz abestuten jarduteko. Barrutik sortzen jat pozik agertu beharra; ezin dot inor neure inguruan sufritzen ikusi eta lagundu barik itzi. Jesus Jaunagaz**

**konfiantza osoa bizi dot eta Berak ateraten nau barruko bakardadetik.**

- **Zorionak, Maria, eta zuk jarraitu zeure irribarreez eta zerbitzu apalak eskeiniz, bihotzak gozaten eta bizibarritzen. Horixe da gaur munduak gehien behar dauan oparia: irribarre gozoa eta maitekorra.**

Irakurle, Mariaren irribarre eztsuari guk ere irribarre bategaz erantzun deiogula. Irribarre, bizitzako alderdi barregarriak kontatzea, han-hemen albiste onak batu eta lagunartean erabiltea eta antzeko jokabide poz-emoileak zabalduzea, ez al da apostolutzarik beharrezkoena gaur egun? Marirribarre antzekoak ugaritu beitez gure artean. Honetarako burua argi eta bihotza garbi behar dira, norbere koitadukeriak gorde eta urkoaren onari begira jarteko. Proposamen bat, amaituteko: Gaurtik aurrera *irribarrearen apostolutza* egitea. Nazaretoko Mariak bere lehengusina Isabelengana joan zanean, bere agur alai eta gozoagaz amaren sabeleko seinara pozez saltoka ipini ei eban. Hamaika bihotz badago inguruan lurjota, nok saltoka ipiniko zain!

#### **JAUNAREN BERBEA:**

«Zuek ilun zagoze orain; baina barrero ikusiko zaituet, eta poztu egingo da zuen bihotza, eta zuen poz hori inortxok ere ez deutsue kendu ahal izango»

(Jn 16, 20-22)

**OTOITZA:**

*Seme-alabok pozik eta alkarren adiskide ikusi nahi gaituzun Aita ona! Geu ilunpetik atera eta zorion-bidean ipintera bialdu zeuskun zure Seme Jesus. Berak egin gaitu pozaren eta itxaropenaren jabe, ilunpeak eta heriotzea betiko menperatuz. Lagun deiskula Espiritu Santu pozemoileak, Beragandiko indarrak lagunduta, benetako zoriontasunaren testigu izan gaitezan.*

2

**NI EZ NAGO BAKARRIK**



*Bakardadeko laguna,  
gau ta egun gugan doguna*

Joan XXIII.a baino Aita Santu jakintsuagorik, jatorri disdiratsuagoa izan dauan semerik asko ezagutu dira Erromako Aulki Santuan. Baina berak haina eraginik munduan izan dauanik ez asko. Baserriseme honek umorez eta zuhurtasunez harritu egin eban mundua. 78 urteko agurea ez zan luzarorako, ez egoan haregandik arrakasta haundirik itxaroterik, askoren ustez. Aurreko Aita Santuen ohitura eta arau asko apurtu ebazan, Ebanjelioko Maisuaren antzeko artzain izan nahirik. Berari ezarri deutsoezan pasadisuen artean bat: San Pedro plazan milaka lagun batu jakozan baten, familiaren aldeko ekintza berezia zala ta, ama asko hurreratu jakozan. Aita Santuak, bedeinkatuaz gainera, umeak eskubete goxoki hartzen eben bere ontzitik. Mutiko zuhur batek, berak ez ebalta hartuko; Aita Santuak hartuta emon egiozala nahi eban. Irribarrez esku biak bete emon eutsozan, ingurukoei esanaz: *«Holantxe irabazi egiten dau, dana Jaungoikoaren eskuetan izten dauanak»*. Egitekoak egi-ten ditu Jaunaren eskutik dabilenak. Sekretua zera da: Jaunak nahi dauanagaz ados dagoanak, Jaunari izten deutso aurretik joaten. Ordurik latzenetan ere ez dau dardararik egiten; Jesusen esanera, ez dau biderako segurantzarik hartzen, zer esango dauanaren ardurarik ez dau izaten; inoiz ere ez dago bakarrik. Beragan bizi danak adierazoko deutso zer esan eta zer egin. Jainko-esperientziaz jokutzen dauan baten aholku mamintsua dozu: *«Ez zaitez abalegin-du aldatzen, aldatu ezin daitekeenik. Apaltasunez onartu egizu eta eskerrak emon Jaunari»*. Gura izan

arren, ez dau estu-estu eskua gordeten; hori barik, Lagunaren eskuetan itzi eta bakean bizi.

Esan bai, esan errez egiten da hori, baina ordua dato-renean... Nik gaur amama alargun baten testigantza ekarriko deutsut; Mariñasi dau bere izena. Bizian Gora mogimentuan urte batzuk ibili ondoren, bizi eban fede-esperientzia kontatzen deusku.

- ***Zuk ere izango dozu, ba, zerbait kontatu beharra, Mariñasi. Gorde ezineko zertxobait agiri jatzu arpe-gian.***
- ***Bai, danen aurrean kontatzeko gogoa izan dot, baina ez naz ausartu; huskeria izango dalakoan, isilik gelditu naz. Baina esan barik ez nago nasai.***
- ***Kontatu egizu, mesedez, Jaunak zugan ixuri dauan grazi ongarri hori guretzat ere erakusgarri izango jaku ta.***
- ***Hara: ni mendi aldeko baserri baten bizi naz bakarrik, orain hiru urte alargunduta. Alargundu nintzanetik gora bildurrak hartu ninduan, pentsamentu eta begitazino baltzenak ilundu eta nahastu egiten eben nire burua. Zorionez sartu nintzan eleiz alkarte horretan! Eta bertan sartu ahala, neu konturatu barik, nire bildurrak bakean itzi nabe; ez dakit zek uxatu dituan nigandik.***
- ***Jakizu Espiriu Santua sartzen dan bihotzean bildurrak eta mamuak ez daukela zereginik. Orduan gaur ez dozu zuk bizkarzain beharrik, Mariñasi.***

- ***Ez, ez! Edonoiz eta edonun neugaz daukat kontulaguna. Edozetariko kezkak edo bildur izpitxo batek eragin orduko, Beragaz bat egiten dot eta behingoan baretuten naz. Goizaldeko eguzkiak behelainoak astinduten dituanean, eguzki printzak baztarrak argiz eta biziz betetzen dituan lez, halantxe Jesus Jaunak nire barrua baretu eta argiz eta bakez asetzen dau.***
- ***Alde ederra lehengo fede-bizitzatik gaurkora!***
- ***Hau beste fede-esperientzia bat da. Jesus gaur niretzat lagun hur-hurrekoa bat da, danen artean maitagarriena. Nire etorkizunak eta heriotzeak ere ez deuste bakerik kenduten. Ni beti eta osorik bere eskuetan nago.***
- ***Mariñasi, Jaunagandik lortu dozu osagarririk onena, batez ere, zahartzaroko bakardaderako. Jesus Bera da lagunik zintzoena, inoiz bakarrik izten ez dauana; Bera da lagunik ahaltzuena, heriotzeak ere gugandik aldendu ezin dauana. Izan zaitetz zoriontsu Beragazko hartuemonean!***

Adiskide zintzo hori! Behar bada sinistu ezinik egongo zara hemen eskeintzen deusudazan fede-esperientzia xume eta garbi honeek. Bide bi daukazuz sinistu ahal izateko: Etorri eta entzun holako bati, edo zeuk egin eurak egiten diharduen fede-bide bardina. Orduan zeugandik jakingo dozu zer dan. Jaunaren dohaia danontzat da, kondizino bardinetan Beragana hurreratu ezkerò. Jakina, fede argi barik ezin dira

aintzat hartu ere egin, Jaunak bihotz apal eta garbiak dituan hartuemonak. Baina, bai, hau eta gehiago gaur eta hementxe gertatzen da, kristau jente nagusiaren eta eskola bakoaren artean. Nire uste apalean, hauxe izan behar leuke Eleizearen egitekorik behinena: fedeko seme-alabei fede-esperientzia gozo eta sakona egiten lagundutea. Orduan bai pozik jardungo leukeela Jesusen Barri Ona iragarten eta zabalitzen, bakotxaren dohaien arabera! Buruz dakianak baino, bihotzez daukanak agertzen dau bizitasun eta gozotasun gehiago. Jesusegaz topo egin dauana da bakarrik gauza, beste batzuei «Jesusen gatxa» ezarteko. Holakoak pozik eta apaltasunez kontatzen deus Jaunak beragaz egin dauana, Mariak Isabeleanean lez. Kristau dotrineak, fedearen esperientzia barik, ez dau inor mozkortzen, Jesukristogaz maiteminduten.

Zer deritxazu, lagun? Ba al dozu hartuemon pertsonalik, zeugaz eta zeu baino barrurago bizi jatzun Jesus Jaunagaz? Hasi zara barrurantz begira otoitz egiten? Zelan ulertzen dozu Jesusen erakutsi eder hau: «Otoitz egiterakoan, sartu zaitetz zeure gelan, eta egiozu berba isilean entzuten dauan Aitari». Ez al deusue inbidirik emoten Jainko-esperientzi honeek? Ez ahaztu zeuretzat ere badirala. Eskatu fedez eta itxaropenez Jaunari, eta kristau alkarteren baten sartu eta jarraitu. Jaunak emongo deus.

**JAUNAREN BERBEA:**

«Goresten zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza honeek jakintsu eta ikasiei ezkutatu deutsezuzalako eta jente apalari agertu. Bai, Aita, goratua Zu, horixe izan dozu gogoko ta»

(Mt 11, 25-27)

**OTOITZA:**

Txikien eta apalen bihotzetan, batez ere, agertzen zaran Aita ona! Bedeinkatzen eta goratzen zaitugu, euren artean hain maitagarri eta etxeko agertzen zaralako. Geuretzat eta geure antzeko eginda bialdu zeuskun Jesus, gu Haren lagun egin eta Beragan Zugaz bat egiteko. Zure Espirituaren graziz garbitu eta argitu gure bihotzak, gero eta eza-gunago eta maiteago izan zagiguzan.

3

**KRISTAU BOKAZINODUNAK**



***Dakienak daki,  
ez dakienak baleki***

Gu gehienon kristau esperientzia bardin antzekoa izan da: jaiobarritan bateatu eta kristautu eta segi... Hortik «*euskaldun fededun*» izan da aspaldiko goiburua: danok bateatuak, danok eleizaratuak, danok... Baina umearoko dotrinatxoagaz akabo bizitza osorako! Handik gora, noizean behingo misino santuak, ospakizunak, erromesaldiak, errogatibak, kalez-kale eleizbirak etabar. Baina azkenaldi honetan ipar haize gogorak astindu dau gure eleiz-zugatza; ondoren, sikete luzeak jo dau; eta azkenean uriolak eroan ditu orri, frutu, lur eta guzti. Oraindik jarraitzen dogu banaka batek lehengoari eusten; baina arazo larri honi azpi-azpitik oratu ezik, azaleko konponketa batzuk eginaz, adabagi barriak jantzi zaharrari ezarriz, ez dago luzaro irauterik. Eta holan, Gotzainak dinoskuenez, «*Gaurko gizartean fedean duintsunez irautea, fedea pozik bizitzea eta, etxean nahiz gizartean, fedearen testigu bizi eta eragile izatea guztiz ezinezkoa suertatzen da*».

Zorionez, kristau izateak ardua apurrik emoten ez deutsoenen artean, hasi dira banaka batzuk bide eta aukera barrietan sartzen: gaur eta hemen zelako kristautasuna eta eleiz bizitza eskatzen jakun aztertzen eta esku hartzen. Nortzuk izango? Eta gaurko euren kristau bizitzagaz konforme ez dagozanak; legebetetze hutsagaz nahikotzen ez diranak. Nik hemen Bizian Gora mogimentuko esperientzia bakarrik dakartsut. Kosta ere, asko kostatzen da jente nagusia eleizbide barrietara begira ipintea. Alde batetik eleiztar sentitzen dira. «*Txarragorik bada baztarretan! Oratu harei*» dinotsue hasieratik. Bestetik, aldazgora

begitanduten jake hartuemoneko kristau bizitza, Jaunaren Berban oinarritutako bizitzara jotea. Gainera, dabiltzan bidean ibilita, zer txarrik egiten dabe? Baina badira beste era batera sentitzen eta itanduten dabenak: «Zer on gehiago egin neike?» Eta edozelango loturak eten, atxaki-matxakiak lurperatu, eta bide barrietan sartzen diranak. Geroago konturatzen dira emondako baietzaren ondorenaz. Ez da lege batzuk betetzea, bide barri bat egitea baino; eta bidean ibiliz, agertzen da bideko esperientzia. Ikusiak ikusita, hamaika bider emoten deutsoez eskerrak Jaunari, eurai egindako deiagaitik! Bai, deia; deituak sentitzen dira: *bokazinodunak*. Hau da, nortasunbako kristautasun moltzotik urten, eta denporale txarreko fedeprosesua hasi dabe. Zer egiten daben? Hara, alkarte txiki baten sartu eta kristautasunaren oinarriak bilatu. Nik gaur Bixentiren testigantza ekarriko deusutu eta zeuk igerri:

Bixenti aititak lepokada urte pila dau bizkarrean. Beti izan da euskaldun fededun; umetan ikasitako kristau bidea ez dau itzi. Berak kontatuko deusku zehatz-mehatz:

**– Hori da, Bixenti! Ia larogei urte gainean eta eskola barriak hasten! Lartxo ez ete da, gero?**

**– Zuk ondo dakizunez, ni beti izan naz zehatza barau-bijiliak egiten, Eleizearen lege-aginduak betetzen. Santu ez baina, on-antzekoen arteko bat izan naz. Baina orain jazo jat ederra!**



- Zer ba? Ingurukoak lez, zeu ere hoztu? Ingurukoen parera jausi?
- Bai zera! Lagun batek badinost egun baten: Hi, Bixenti, ez dok etorri nahi gure artera? Ni Bizian Gora deritxon horretan sartu nok, eta sekulako giroa aurkitu juat.
- Eta zer? Sartu zara, ezta?
- Bai, eta gustura nabil. Gero eta pozago. Antz emoten hasi naz: hau hondorik bako itsasoa lez dala; bizitzaren itsasoa. Eta kristau bizitza, bizitza bera dala, Jainkoaren maitasunez eta argiz betea. Eta ez da, ez, orain arte uste izan dodan lez, bizitzatik aparte lege batzuk betetzea, agiriko eleizkizun batzuetan parte hartzea.
- Bixenti, laster jausi zara kontuan kristau bizitzaren ederraz. Eguneroko kristau bizitzan sartu zara; ez zagoz, antza, kanpotik nok zer esango, hau edo hori egiteko orduan. Norbait egin jatzu zeure jabe.
- Hori, hori da egia! Deia barrutik jatort orain. Deitua eta bialdua sentitzen naz gero eta gehiago. Lehengo baten entzun nebanak asko poztu ninduan: kristau guztiok garala bokazinodunak, Jaunak Beragana deituak, maitasunezko hartuemonak Beragaz izateko; eta bialduak, bere izenean, bideak zuzentzera, gaixo eta ezinduak laguntzera etabar. Eta esperientzia honegaz neure burua baloratzan hasi naz. Jainkoari eskerrak, ni ere norbait banaz, ni ere Jaunak maite nau eta behar nau.
- Asko ikasi dozu, Bixenti, denpora laburrean.

- Bai, orain arteko bizitza guztian baino gehiago. Hau beste kontu bat da. Honek bai merezi dauala erantzutea. Nire hartuemonak Jesus Jaunagaz dira, Hari jarraitzea da nire kristau jokabidea.
- Orain ikasi dozu inoren arrimo barik ibiltzen. Ikasi dozu barruko Lagunari entzuten eta erantzuten.
- Orain ikusten dot kristau izatea kategoria bat dala. Lehen hutsik neukan barrua, orain beterik sentitzen dot. Gaur ez naz etxe hutsa; beterik nago eta zelako Lagunez beteta!
- Hemen ere, Bixenti, zeuk ikusten dozunez, kristau bokazinoduna izatea da kontua: fedeko hartuemon pertsonalak eroaten hasi dana, Jaunagaz lagun modura tratazen dauana; gauza txarrik ez egitera barik, gauza onak eta besteentzat ongarriak egitera jokatzen dauana.
- Bai, izatekotan, izan! Bestelan fede-bizitzaren ederra ezin da dastatu, benetan hartzen ez bada. Eta tristea da, kristau izatearen gozamena dastatu barik hemendik joatea.
- Bixenti, goratu daigun Jainkoa, zugaz egin dauan guztiagaitik.

Egia esan, ez dago holako unibertsitaterik! Hau bai dala teologia, esperientzi bihurtuta! Dotrinaz barik, Jaunaren Espirituak bihotzera emona, ixuria. Eta, zuk irakurle, ez al dozu gogorik Bixentik eta lagunak egin daben esperientzia gozo hori egiteko? Zer deritxazu Bixentik hartu dauan kontzientziari: bera ere kristau

bokazinoduna dala? Eta zeu ez ala? Izatez, bateatu guztiok gara; sentitzen ez bagara, heldutasunik eza-gaitik izango da. Deiak ez jatzuz falta; entzuten eta erantzuten hasi zaitez, eta lagundu behar deutsuna atean dozu zain.

**JAUNAREN BERBEA:**

«Seme, zoaz gaur nire mahastian lan egitera. "Ez dot nahi" erantzun eutson semeak. Gero, barriz, damutu eta joan egin zan»


(Mt 21, 28-32)

**OTOITZA:**

Aita errukitsu zaran Jaungoiko Jauna! Beti zaitugu deika bihotz-hondoan; baina guk ez-entzun egiten deutsugu. Zu ez zara asperten maitasunez deitzen eta Zeugaz topo egiteko aukerak eskeintzen. Eskerrik asko, Aita, zure pazientzia haundiagaitik! Itzartu gaizuz eta atera sasi artefik, artzain onak ardi galdua lez, eta eroan gaizuz zeure artaldera. Sentidu gaitezala zure etxeko seme-alaba gara-la. Ez zaitez, arren, aspertu guri deika!

4

**BIZITZAKO MONTXORRA OSPATZEN**



*Hasiak egina dirudi,  
eginak urregorri*

Etxe barri bat egiterakoan, teilatu kapelea jarten jakonean, bazkari bategaz ospatu ohi da: montxorra. Teilatu kapelea ondo dago, baina kapelapean oraindino asko falta da; etxe-oskola baino ez da agiri; barrua dago hondarrez beterik eta osagarri askoren faltan. A zelako arazo eta ahaleginak barrua betetzen eta dotoretzen, baztar bakoitza behar dan lez janzten! Bizitzara jatsita, hauxe dala dirudi kristau lez jubilatzea: geure bizitzako arazo nagusienak burutzea. *Jubilo* berbeak adierazoten dauanez, bizitzako etxe-ari kapelea jartea. Zenbat neke eta astrapala etxea jasoten: seme-alabak, eguneroko nekeak, egun baltzak, gaixoaldiak, ezusteko garratzak... Merezi dau, bai, bizitzako montxorra ospatzea: atsedendialdiak, erloju-petik ihesi, egunpasa gozoak, jolasaldi alaiak etabar. Baina gure barruak badau oraindino bete beharrik: geure etxe barrua jantzi, dotoretu, birtutez edertu behar da. Gu geu bakoitza bete, osotu. Gizonaren ondasuna bere ontasunean oinarritzen danean, orduan bai aberatsa gizakia!

Eta gaur ere badira, Espiritu Santuak argituta, euren barruko teilapea barriztuten eta gaurkotuten diharduen jubilatua. Nik neure ardurapeko Bizian Gorako nagusien artean ikusten dodanez, Ebanjelioaren argitara, gero eta nagusi gehiago dira, beti-betiko sareetatik askatuta, Jesusen atzetik hasi diranak. Gaur bat dakartzut: Gregorio, euskaldun fededun peto-petoa. Ibilian-ibilian, gero eta lagunago egin gara eta barruko bizikizunak alkarri agertzeraino heldu ere bai. Beragandik jasotako esperientzia dozu.

- *Aspaldiko lagun, Gregorio! Zu ere Angostora, aste bete-otoitzaldietara?*
- *Bai horixe! Eta pozik gainera! Ez dakit zelan, baina nire barrua neuretzat ere ezezagun egiten jat. Ni beti izan naz eleiztarra, baina hau beste gauza bat da.*
- *Holan dala, zeuk ere igerri deutzazu hau beste gauza bat dala? Lehengoa baino lotuagoa, astunagoa, ala beteagoa?*
- *Beno, beno, honek ez dauko lehengoaren antzik ere. Lehengoa betebeharra zan, hau bizibeharra. Lehengoa neuk betetzen neban, baina honek berak neu betetzen nau.*
- *Hori da, Gregorio, kristautasunaren ederra! Lehen ere zeure barruan baegoan Espiritu Santua, baina bere ordua heldu arte konturatu ez. Lehen hutsik zeunkan barrua, orain halako Lagunez bete jatzu.*
- *Hau da hau! Lehenengotan dana nahastuta sentitzen nintzan, baina apurka argitzen eta baretuten joan jat barrua. Lehen, ikasitakoaren edo entzundakoaren arabera bizi nintzan; orain, barrutik sortzen jat betebeharra. Norbaiten aurrean bizi naz.*
- *Gregorio, zorionak! Hori da Jaunagandik hartu dozun betekadea!*
- *Bete dinozu? Gainezka egiten dot sarri, batez ere, otoitzaldietan eta. Lehen, errezu eta errezu jarduten neban luzaroan; orain, entzuten emoten dot denpora gehiago, berbetan errezatzen baino.*

– **Holan dala, Jainkoak ez dau inor kaxkartuten, eskuak lotuta izten?**

– **Eskuak lotu ez, niri askatu egin deustaz; biak eskatu deustaz eta nik bai pozik prestatu ere!**

Adiskide, zer deritxazu? Kristau jubilatua bizitzako «*montxorra*» ospatzea dala? Konparaketa honek ez al deustu argirik emoten? Gregorio aititaren fede-esperientziak ez al zaitu harritu? Nik neuk liburu marduletan baino gehiago ikasi dot holako maisuen ondoan. Urte asko beste batzuen arduraz emonda gero, ez al da egoki azkenaldian norbere burua jantzi eta landutea? Jubiladu batek daukan lehenengo eginbeharra, jubiladutzak eskatzen deutsona egitea dala, norberekeria dala uste al dozu? Hemen ere, izatea ala egitea da goren jarri behar doguna? Gregoriorena jakinda, ez al da biderik egokiena gizakiaren osotasuna lortuteko?

### **JAUNAREN BERBEA:**

«Zetarako dau gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badau? Eta zer emon dagike gizakiak barriro bizia beraganatzeko?»

(Mt 16, 24-28)

### **OTOITZA:**

On hutsa zaran Aita Jaungoikoa! Zu ez zagoz gure onari edo txarrari begira, ondoren gugaz zer egin erabagiteko. Zeuk deritxozunez jokatzen dozu bakotxagaz zeure errukiaren arabera. Bedeinkatua Zu zeure neurribako ontasunean! Munduko txiki eta baztartuen alde dozu zure apartekotasuna. Euren ize-nean eskertzen zaitugu. Argitu egizuz gizarteko txiki apalen buru-bihotzak, Zugana edegi daitezana, gaur ere zure maitasunaren testigu biziak izaten jarraitu dagien.

## 5

## HAU KOMERIA!



***Betebeharraren nekea,  
dohan hartzearen poza***

Halako egun batez, Joan XXIII. Aita Santuak 60 urte bete ebazan. Hauxe dozu bere orduko testigantza zintzoa: *«Apropos hartu dot gaur erretiru-eguna; gaur beteten dodaz 60 urte. Oraintxe sartu naz hirugarren adinean, zahar izaten eta deitzen hasten dan sasoian. Holantxe sartzen naz hirugarren adinean»*. Zer atera ete eban erretiru egunetik? Berak dinosku apaltasunez: *«Lurreko gauzetatik libreago biziko naz, nire etorkizunera begira bake gebiago izan gura dot; pertsona eta gauza guztietatik libreago»*. Danak zahartzarora heldu nahi, eta zaharrak garala agertu gura ez... Dana dala, Jaunak jarritako legea da: gazterik hiltzen ez danak, zahartuta hil behar. Zahartzarora, izatez, Jaungoikoaren dohaia da; Testamentu Zaharrean Jaungoikoaren bedeinkapenen ezaugarria da. *«Zu aspaldion asko zahartu zara, aitita»*, bota eutson arpegira aguretxo bati, luzaroan ikusi barik egon zan hiloba batek. Bai azkar erantzun ere aititak: *«Bai, hilotxo, asko zahartu naz, eta horri eskerrak bizi naz gaur; zuk ez dakizu suerte hau izango dozunik. Horregaitik zahartzea Jaungoikoaren grazi haundi bat da, Berak nahi dauanari emoten deutsona. Hortik atera kontuak: zaharrari egiten jakona —poza zein atsekabea emon— Jaungoiko Berari emoten jako»*.

Urteak urte, badira hainbat alderdi pertsona nagusien artean ere zuzendu beharrekoak; bizitza azkenera arte da ikasbide, beti dauka zaharrak ere zer ikasi eta zer aldatu. Horregaitik gauza da hobeagotzen joateko, urteak joan ahala. Batez ere, zerbait bizi izan badau gainetik edo kanpotik ezarritako legez eta aginduz. Gaur Txanton lagunarena ekarri deusut.

Aste beteko jardunaldiak izan genduzan. Benetan esperientzia gozo sakona, baina Jainkoagazko eta lagunarteko hartuemon gozokoa. Nik orduan lehenengoz ezagutu neban Txanton adineko kristau gizona. Giro zabal eta pozgarri baten igaro ziran egunak. Baina eguen gauean abixu bat: *Ez dozula oraindik autortza aitatu ere egin*. Biharamon gauean, a zelako Alkarteko Penitentzi ospakizuna antolatu eta egin genduan! Santokristo ederrari bai mosu beroak emon parkamen-otoitza hartu ondoren! Halan eta guztiz ere, norbait ez egoan nasai; bakarreko autortzarik ez genduala egin eta... Aukera guztiak emon nahirik, hurrengo goizean bakarreko autortza egiteko area izan zan, eta 58 lagunetatik bi etorri jatazan. Amama on bat, ondoan jesarrita hasi jatan: *«Ni ez nator autortzera, zerbait argitu nabi neuke zugaz»*. Bigarrena, aitita bedeinkatu bat, ez nun jesarri, ez nundik zer egi-ten hasi ez ekiala. Neure ondora ekarri neban eta: *Egunon, Txanton! Hasiko al gara? Eta isilaldi luzea*. Lagundu zeozelan hasteko, eta alperrik. Halako baten, arnas luze bat eginda, badinost: *«Hau komeria! Zerbait esan behar eta zer esanik ez»*. Bizkarrean joaz eta arnasea nasaituta, bedeinkazino eta guzti bialdu neban. Neure artean esan ere egin neban: *«Hau bai dala penitentzia! Baina ez adiskidetzeko sakramentua. Txantonek bezperan ospatu eban bihotz beteko adiskidetzeko sakramentua. Beste hau penitentiaren eskarmentua izan ete zan ba?»* Hurrengo urtean ere han zan barriro Txanton aste beteko jardunaldietan. Beste gizon bat begitandu jatan: irripartsu eta gogotsu. Hor dozu beragaz izandako alkarrizketa laburra:

- *Egunon, aspaldiko Txanton! Zelan joan da urtea? Ihazko jardunaldiak itzi al deutsu ondorenik?*
- *Itziko ez eustan ba! Bai eta sekulakoa, itzi ere! Nire bizitzako aldaketarik nabarmenena egin dot ihaztik honuntz. Ihaz autortu beharra ekarri neban; aurten ere badot parkamenaren beharizana, baina nire egarria beste bat da aurten: Hasi dodan bide barria hobeto ezagutzea eta indar barriak hartzea.*
- *Zetan aldatu zarala uste dozu gehienbat?*
- *Nire barrua baretu eta argitu egin jat; eta begi barriakaz ikusten hasi naz bizitza osoa. Jainkoa lagun bihurtu jat; gaur egun berbaldi luze samurrak izaten dodaz Beragaz noiznahi. Nire gora beherak errez izten dodaz bere eskuetan.*
- *Nun eta zelan hartu dozu esperientzia barri eder hori?*
- *Hemendik joanda, Bizian Gora talde barri bat osotu genduan gure parrokian eta hango giroan eta hartuemonan igerri barik Jaunak Berak aldatu nau. Harrezkero nire bizimodua azpikoz gora jarri da. Lehen nahiko neukan neure buruagaz eta neure kontzientziagaz; orain gero eta gehiago arduratzen naz etxeko, parro- kiko eta herriko joan-etorriakaz.*
- *Hau poza emon deustazuna, Txanton! Jarrai Jesusen atzetik, eta Berak biziakozko deustuz esperientzia barri gozoagoak. Zorionak Jaunak emon deustun bizi barri- gaitik!*

Joan XXIII. hartu dogu hasieran hirugarren adineko kristauen eredutzat. *«80 urteko gazte bat»* deitzen deustoe bere lagunak. Hori da adorea! Heriotzea aurrean

eukiteak, zuzen bizitzera eroaten dau, geratzen jakon bizitzaldia onegitez betetzera. Gure Txanton ere Jesus Kurutzekoaren besarkadearen ondoren, egotera barik, egitera eraginda gelditu zan. Jesus ez da galga, akulu baino. Izan ere, Jesusegaz topo egin ezkerro, aldaketa ez da bizitzatik heriotzara, bizitza batetik goragoko bizitzara baino. Adiskide, honaino jarraitu badeustazu, zelan sentitzen zara Txantonena entzunda? Hartu dozu Jesusen besarkada parkakor eta onargarririk? Kristau izatea aspergarri ala pozgarri egiten jatzu? Gaur ere badira aukerak, Txantonen antzeko esperientziak dastatzeko. Ez al zeunke nahi?

**JAUNAREN BERBEA:**

«Oraindik urrun egoala, ikusi eban aitak eta errukitu egin zan; eta arin-aringa joanda, besarkatu eta mosuka hasi jakon»

(Lk 15, 11-24)

**OTOITZA:**

Maitasunez sortu eta salbatu gaituzun Aita errukiorra! Zure Seme Jesus gugana bialduz, epaile bildurgarri barik, Aita maitagarri agertu jaku. Kendu gure bihotzetik Zuganako bildur kaltegarria eta ezarri bildur santua: Zuk gugaitik egin dozuna gogoan erabiliz, seme-alaba maitatuak sentidu gaitezun, Zuganako maitasun-bideak egin eta erakutsi ahal daiguzun.

6

**OHE GAINENKO MISIOLARIA**



***Maitasunak lo gitxi eta amets asko***

Jakitunen eritxiz, zahartzaroko tentazinoen arteko bat maitasunari buruz ei da: «Ondorenak ikusita, merezi ete dau nik maitasunez hainbeste ardura hartzeak? Orain, gehien behar dodanean, hain gitxik eta hain gitxi maite nabe! Merezi ete dau maitasunean sinisten jarraitzeak? Zoriontsuak, ikusiak ikusi, azkenera arte maitatzen jarraitzen dabena! Horrek lagunduko deutse pozik bizitzen eta ontasunean hazten. Kuru-tzeko San Joanek inoan: *«Maitasunik ez dagoan lekuan, zuk ipini maitasuna, eta maitasuna aurkituko dozu»*. Zahartzaroen, gaixoaldian inoiz baino maitasun gehiago behar da, eta ezin inor behartu maitatzera. Maitasuna ez da erosten; maitasunaren maitasunez lortuten da maitasuna.

Gu kristinauontzat maitasun-eskolarik onena Kuru-tzean gugaitik hil dan Jesusena da: Harek bai maitatu gaituala, inok maitatzekotan! Baita eperdikoak hartu ere, inok hartzekotan! Baina beti maitatzen jarrai. Ez zan izan gorrotorik, ez erantzun txarrik, Haren bihotzeko garra epelduko ebanik.

Pazkualdiko agertaldietan bere ezaugarriak erakusten ebazan: Gugaitik jasandako zauriak. Hagaitik jarri deusku maitasuna lege danen gainetik eta lege danen helburu: *«Maite egizue alkar, Nik maite izan zaituedan lez»*. Maitasunak batasunera daroa: *«Izan zaitzeze bat, Aita eta Ni bat garan lez»*. Eta jakina, maitasun bidean ez dago azkenik, ez nahikorik; gero eta gehiagora joten dau azken barik: *«Izan zaitzeze ononak, zeruko Aita on-ona dan lez»*.

Kristinak, amama bedeinkatu harek, ondo menperatuta eukan zahartzaroko deabru gaizto hori. Bizitza osoan lanpetuta bizi izan zan, familia aurrera atera ahal izateko. Gau ta egun, zerbidu eta zerbidu, eta beti umorez eta ahal danik ondoen jokatu. Asti apurren bat beti ateraten eban, auzoko zaharrei eta gaixoei ikustalditxo bat egiteko. Benetan emakume heldua urteetan eta birtuteetan! Beragaz hartuemon asko izateko suertea izan dot gure adinekoen kristau alkar-tean. Gaur egun gaixorik dago ohean, bera bakarrik ezetarako gauz ez dala. Ezetarako bai gero! Gauzarik ederrena ahal dau: Maitatu eta maitatua izan, eta dagoan egoeratik, Eleizearen eta munduaren alde laguntzarik ederrena eskeintzeko:

– **Kristina, bakardade iluna eta astuna, ezta?**

– **Bakardadea? Zelan dinostazu hori, hau neure ondoan eukita? Ohe ondoko jesarlekuan eukan santokristo bat eskuetan hartuta, mosu beroa emonaz eta niri eskeiniz. Bizian Gora mogimentuan ibili nintzanean adiskide haundi egin nintzan Jesus Jaunagaz. Lehenago gauza onak egiten nebazan, baina orduan kontuan jausi nintzan: Gauza onak egitea baino lehenago, Lagunik onena maitatzea zala. Harrezkero ez naz bakarrik egoten. Zenbat autu-mautu alkarregaz! Orain inoiz baino gehiago. Eta zelako poza eta adorea emoten deustazan! Gaez zein egunez beti daukat prest entzuteko eta berba egiteko.**

– **Kristina, zuk ere esan zeinke San Pauloren antzera: «Ni bizi naz, baina ez naz ni bizi; Kristo bizi da nigan». Gainera zuk inoiz esan deustazu, misiolari sentitzen**



**zarala ohetik: zure eguneroko otoitza eta sufrimentuak, Jesus Jaunarenakaz bat eginda, Jaungoiko Aitari eskeintzen deutzuzala.**

– **Bai, nire bihotza eta burua urrunera joaten dira: Euskalerrriko bakea eta Eleizearen egoerea sarri izaten dodaz gogoan. Kurutzeko Jesusegaz sufriduz eta munduan sufritzen dagozanakaz bihotzez bat eginda, euren alde otoitz egiten dot gogo beroz.**

– **Zorionak, Kristina! A zelako erakutsia emon deustazun ohetik! Gaurtik aurrera zu ere gaixo misiolarien katean egongo zara. Milaka lagunakaz alkartuta, eguneroko eskeintza egingo dozu eta parte izango dozu gure misiolaritzan.**

Hona hemen gure artean isilean gordeta dagozan anai-arreba zintzoak, Jaunaren aurrean ekin eta ekin diharduenak munduaren alde. Sinisten al dozu hola-koen eskeintzaren laguntzan? Probetxugarri al dira Eleizearentzat eta munduarentzat gaixoen eta bazter-tuen sufrimentuak eta otoitzak? Gure bizitzako kurutzak eta otoitzak ba al dauke misiolari kutsurik?

### **JAUNAREN BERBEA:**

«Morroiari eskerrik zor ete deutso, agindu jakona bete daualako?»

(Lk 17, 7-10)

### **OTOITZA:**

Seme-alabon maitalerik zintzoena zaran Aita Jaungoikoa! Zeuk sortuazoten dozu guban on egiteko gogo, zure nahia beteteko indarra emonaz. Eskerrak Zuri, Aita, gure ahalegin txikiak ere aintzat hartu eta geure eta munduaren salbamenerako baliogarri bihurtzen dozuzalako. Lagundu gaixo minduei eta onartu euren kurutzeko oparia.

## JESUSEN GATXA EZARRI DEUST



***Aititamamen ondoeza,  
euren onik inok nabi eza***

Joan Paulo II.a Aita Santuak 1999ko urtean, Nazio Batuak izendaturiko Adinekoen Urtean, bihotza eskuetan ebalatzen idatzi eutsen idazkian dino: *«Bizitza da dohairik ederrena; bere neke, sufrimentu eta guzti, ederregia da alperrik galtzeko. Zuengandik, inoiz baino burrago nago, urteak zuen taldera ekarri nabe ta»*. Gero, Biblia arakatuz, Jainkoak gizaldietan zehar edadetuakaz zelako mirariak egin dituan dakartse gogora: Abraan, Sara, Moises, Simeon, Ana, Zakarias, Isabel. Euren ahalmenen gainetik jokatu, harrigarriak egin dituala, salbamen historia aurrera bultzatzeko. Eta gaur ere Jauna adinekoen artean deika dagoala, erantzunaren zain. Eleiz arduradun nagusien ustez eta eskariz, aitita-amamak bete behar dabe etxe askotan hilobatxoak fede bizitzan hezitzen dagoan hutsunea. Eta, dakidanez, etxe askotan ondo bete ere bai. Europako lurraldeak bat egin dabe gauza askotan; baita Jesusen irudia ezkututzen ere. Hagaitik Aita Santua aspalditik dago oihuka: *«Europa ebanjelizatu egin behar da»*. Europako Eleizearen buruhausterik gogorrena zera da: Zelan ondorengoengana luzatu eta zabaldu sinismena.

Gure herri erlijiotasuna (errezu, debozino, erromes etabar) ebanjelioko gatzez gazitu eta bizibarritu behar doguz. Sinismena ez da dotrina eta ohitura batzuk betetzea, Jesusegazko esperientzi bizia egitea baino. Gazte bati baino gehiagori entzuten jako: *«Nire aiti-tak edo amamak bai dauala fede beroa!»* Zerbait arraroa susmatu dau aititaren edo amamaren bizitzan.

Zahartzaroan egitekorik ederrena hauxe da: Aurrekoengandik hartuta, norberak hainbeste urteotan bizi izandako sinismena ondorengoei ezartea.

Eginkizun honetan zuhurrak dozuz adineko asko eta asko; hauxe da, izan ere, euren esku dagoan apostolutzarik ederrena. Begibistan dagoana zera da: hilotxoak ia aitita amamakaz hobeto konponduten dira gauza honeetan, euren gurasoakaz baino. Jakina, gaur egun arduraz jokatu behar da arazo honetan: noberak ere gaurkotu beharra dau norbere betiko sinismen bizitza, eta ikasi zer zelan erakutsi. Kristau alkarteko hartuemonean asmatzen dira biderik egokienak. Niri neuri erakutsi beteak emon eustazan Lurdes amama zintzoak: berak ekarten dau eskutik hilobatxoa domekero eleizara; berak erakusten deutso Jesus eta Maria nortzuk diran eta otoitz labur gozoak; urtebetetzean, berak ekarten deutso irudi edo liburutxo egokiren bat; bizitzako gora beheren artean, bere ondoan hartu, eta berak lagunduten deutso Jesusi eskerrak emoten, laguntasuna eskatzen eta parkatzen. Honeek eta gehiago kontatu eustazan Lurdesek, eta bera bihotz berotu nahirik, behin jardun neutson:

**– Lurdes, zuri eskerrak, iraungo dau sinismenak zure etxean; maitasun haundiz ereindako hazia ezinda bertan behera galdu; Jaunak bere bideak eta orduak daukaz ernemindu eta erneazoteko. Ez dozu uste?**

**– Bai, bai, nik zelan edo halan ezarri gura deutset «Jesusen gatxa».**

**– Hori da jokoa: Jainkorik ezaren gatxaren kontra, «Jesusen gatxa». Gatx hori inori ezarteko, norberak egon behar dau Jesusen gatxak ondo harrapatuta, Lurdes. Eta zuk hori daukazu ondo sartuta.**

**– Egiten dodana ez da asko, baina neure zertxoak egiten dodaz etxean sinismen giroari eusteko: handik-hemendik irudi, aldizkari, liburu fede girokoak etxera ekarri eta agirian itzi; noiz edo behin norberak ere irakurritz.**

**– Zorionak, Lurdes! Jaunak argitu zaitu apostolutza horretan. Ziur egon, zu zerura joanda gero ere, zuk orain ereindako hazia frutu emoten egongo da; Jaungoikoa hemen geldituko da seme-alaba eta hiloben artean, eta amamaren gomuta pozgarriak jarraituko dau bere lanean.**

Ez al dira honexeek Jaunak gaur behar dituan misiolariak? Zure etxean zeu. Gaixoen eta ezinduen artean zeu eta neu. Irakurle, kezkatu al zaitu eginbehar honek? Kontuz gero: pekatua ez da bakarrik zerbait txarra egitea; baita eginbeharreko on bat egin barik iztea ere bai.

#### **JAUNAREN BERBEA:**

**«Zuon artean txikiena dana, horixe da haundiena»**

(Lk 9, 46-48)

**OTOITZA:**

*Txikientzat aparteko Aita zaitugun Jaungoiko ona! Txiki eta ezereza diranakaz harrigarriak egiten dakizu. Zeure eskue-tan ipinten dogu garan guztia; Zeuk hartu eta erabili egizu, nahi dozun eran. Egizu sinistu daigula gure apurra behar dozula, gainerakoa Zeuk egin ahal daizun.*

**8**

**ZAHARTZEN IKASI NAHI DOT**



*Nahi dauanak zuzen bizi,  
beti dauka zer ikasi*

Zahartzea urteak berez dakarren egoera bat da. Zenbat eta urte barri gehiago lepoan, norbera zaharrago. Bizitzako beste etapa guztiak lez, zahartzaroa ere bizitzako zati bat da, ezbardina eta garrantzi haundikoa. Bestelako ekintza eta joko guztietan esan ohi dogu: *Ondo bastea ona bada, ondo amaitzea hobe*a. Eta bizitzako karreran zer? Bizitzako etapa guztietan, aurretiaz ikasi, prestatu eta heziketa on bat hartu ohi da: umetan, gaztetan, sasoi helduan. Eta jubilatzean zergaitik ez? Ez al dago zereginik? Jubiladutza bera izan bizitzako etaparik luzeena askorentzat, eta datorrena datorren moduan hartu eta aurrera, hil arte bizi? Bizitzea hutsa, hutsik bizitzea. Bizitzako etaparik interesgarriena eguraldiari begira bizitzea tristea da. Horregaitik, «*zahartzen ikasi nabi dot*» dinoana martxa barria hasteko prest dago, ez da nahikotuten, nagiak atereaz bakarrik, programa barik bizitzeko. Zahartzen ikastea artea da, artelana egin behar dalako, norbere burua landuten. Ez dago, egon, zahartzaroko adinik; bat zaharra da, zahar lez pentsatzen eta jokatzten hasten danean. Zaharkeriaz jotako zahar baten ezau-garriak dozuz: bizi izan dauanetik bide barrira zarratuta egotea. Horrentzat ez dago ezer barririk. Edonundik agertzen jakon dana, berak bizi izan dauan neurrietara mugatzen eta moldatzen dau. Hortik sortzen jakoz alderdi bi tristeak: gazte dalako ustean bizi dana eta hilda sentitzen dana. Ez bata, ez bestea; bere bizitzako aldikada barria, aurrekoak baizen umoretsu hartu eta bizi behar dau. Eskailera maila bat ez da bertan gelditzeko, atsedean hartu eta goragokora igoteko baino. «*Ni beterik bizi naz*» dinoe askok; baina ez ahaz-

tu bat beterik bizi daitekeela hiru erataria: ur-ontzia lez beterik, baina tantarik ere ez inori emoteko; erretena lez beterik: dana emoten dau, baina bera ezer barik gelditzen da; eta iturria lez beterik: etenbarik hartu, beretzat gorde eta beste zerbitzen jarraitu. Zahar-ontziak asko batzen dau, beti betetzen: dirua, zientzia, indarra; baina ez dau ezer bananduten; gizaki aberatsak, baina emoteko orduan agorrak, antzuak; zahar-erretenak, aurrera jarraitzen dau hau edo hori egiten, ezin gelditurik, zetan diharduan aztertzeke asti barik, beti egiten eta emoten, baina barruan ezer gelditu barik; eta zahar-iturriak: esaten eta egiten dabena, bizi dabena da; bizi dabena beti barriztuten dabe, eta sortzen dabena besteekaz partekatzen dabe. Emon bai, baina eurak hutsik gelditu barik: besteei emonaz, eurak eta besteak, bitzuak aberastu.

Jainkoari eskerrak, aspaldion zaharbarritu asko eza-gutzea suertatu jat, Bizian Gora mogimentuaren bidez. Estrainatu barik euki dabezan dohaiak, ahalmenak landu, eta sekulo uste izan ez daben mailara igon daben aitita-amamak. Hona hemen bat: Eusebio adiskidea:

- *Amaitu dogu, ba, gaurkoa ere, Eusebio.*
- *Bai, egun bete-betea izan da. Orain urte batzuk harra-patu banitu holako batzuk!*
- *Onerako bada, inoiz ez da berandu; zuk hartu dozun martxan, denpora gitxian ere bide luzea egingo dozu.*
- *Begira, hiru urte daroadaz alkartean, eta dagoeneko ere bizitza guztian baino gehiago egin dodala begi-*

**tanduten jat, bai fede-bidean eta bai lagunarteko joan-etorrietan.**

- **Zuk bai ikasi dozula ondo zahartzen.**
- **Zahartu dinozu? Nire gogo, sentimentu eta fede-esperientzian lehen baino gazteago eta alaiago sentitzen naz.**
- **Hor lehengoan ikusi zindudan eleizkizun baten mikro-tik irakurten.**
- **Ez hori bakarrik. Zaharren egoitzara joan, eta eura-kaz otoitzaldia egiten dot. Egia dinotsut: Hau jakinik, lehenago jubilatuko nintzan.**
- **Eusebio, hori martxea eta bizipoza! Jaunak zaindu zai-zala Beraganako bidean!**

Mutilak, munduan dana ez da txarra! Espiritua lagun, ez dago barriztu ezin daiteken fededunik. Bizi dana-rentzat, zahartzea berezkoa da; baina zahartzetik zahartzera alde haundia dago. Ez dozu uste, lagun? Zuk zeuk zelan zahartu nahi zeunke? Zahartzen ikas-ten doan batek baditu bere ezaugarriak, bere astial-dietarako aukera batzuk egiten ditu. Jakitea ondo legoke, ez deritxazu?

#### **JAUNAREN BERBEA:**

«Izan ere, zeruetan dagoan nire Aitaren nahia bete dagian edonor, horixe da nire anai, nire arreba eta nire ama»

(Mt 12, 46-50)

#### **OTOITZA:**

Seme-alabok errukiz zainduten gaituzun Aita bihozbera. Zeuk nahi dozun erara eta neurriz banatzen dozuz zure dohaiak gure artean. Emoiguzu zure Espirituaren argia, alkar-laguntzen batu daiguzan Zugandik hartu doguzan dohaiak, mundu hobeago bat egiteko.

## 9

### ARRANOA IZAN BEHARREKOA OILO GELDITU



*Zaindu zeure izatea,  
bestelan zeuretzat kaltea*

Antony de Mello jakintsuak parabola esanguratsu bategaz argitzen deusku kristau bizitzaren alderdi on bat: kazari batek, mendi gailurretako hatx-artean ebilela, arrano-arrautza bat aurkitu eban, eta, etxera etorrita, oiloloka baten azpian ipini eban, beste oilo arrautzaz batera. Bere orduan han agertu zan arrano-kumea ere, beste txita askoren artean. Beste guztien aldean zatarra, arraroa; baina txita artean jaio eta biziz, beste txita bat gehiago. Ugazabak erpe, piku eta hegoak pixka bat apaindu eutsozan, bere buruagaz hasarretu ez eitean. Behin arrano haundi bat gainean hegaz ikusi eban. Harrituta begira-begira egon jakon luzaro. Laster jakitun ipini eban oilo batek: Hori arranoa da, gu danon erregea; baina zu eta gu danok oiloak gara. Eta arranoa hatakotzat bizi eta hil zan.

Parabola hau argigarri bete-betea da kristau izatearen edertasuna azaltzeko orduan, eta benetan eragingarria da. Izan ere, zer gara gu? Nok gara gu? Jainkoaren seme-alaba gara gu; aingeruak baino doi-doi txikiago, munduko arduradun nagusi izateko, Jainkoak bere antzeko eginak. Benetan arrano errazakoak. Baina jaio eta hazi garan lurraldean kristau izate hori hain dago endekatua, arrano izan beharrekoak —gehienok behintzat— oilo gelditzen gara. Kristau gudari baten erpe zorrotzak apaindu, hego sendoak moztu, jateko zuku epela emon eta kito. Lagun, Eleizeari ez al deutozu oilotegi baten antzik hartzen? Bildurti hutsak, edozein arrisku baten aurrean, sasi-pean ezkututzen diranak, huskeriakaitik alkarri lumak ateraten dabiltzanak...

Aste beteko jardunaldi batean ezagutu neban Tomas baserritar gizon jator bat. Ez egoan konforme ordu-rarteko bizitzeagaz. Gehiagoren bila ebilen eta horren bila etorri zan. Sekulako betekada ederra emon eutsen bere bihotzari! Zirt edo zart egin behar ebala ta joan zan etxera. Handik urte bete baino lehen ikusi genduan alkar; eta jardunaldi luze eta gozoa egin genduan lagunartean. Hona horren zatitxo bat:

- **Kaixo, aspaldiko Tomas! Zer, ondo gabiltz ala? Zer?**
- **Ondo, ondo; inoizkorik ondoen nabil. Nik hartu dot azkenera arteko bide barria. Badodaz gora behera batzuk, baina haundiago bat sartu jat barrura eta Horrentzat ez dago ezinezkorik. Ni neure buruagaz naz bildur.**
- **Tira, gu geurez hauskorak gara, gure ontzia buztinezkoa da; baina dei egin deutsunak ez zaitu itziko lehengora bihurtzen.**
- **Hara, oraintxe aste bi auzo herri batera joan beharra izan neban, Bizian Gora talde barri bat hasteko asmotan; eta hango abadearen aurrean arpegi emon behar neban. Ni ez naz sekula honetan ibili. «HAU EZ DA NIRE EGIN-BEHARRA» neure buruari esan eta esan jardun ondoren, iztera jo neban. Baina otoitzean isilean eta bakarrik nengoala, zast! nun agertzen jatan «ARRANOA IZAN BEHARRREKO OILOARENA» parabolea. Gogora etorri orduko, tente jarri nintzan: «NI ARRANO IZATEKO AUKERATU NAU KRISTOK, ETA OILO BILDURTI GELDITU BEHAR ETE DOT BA?»**

– **Eta zetara jo zenduan, Tomas?**

- **Zalantzarik bai ala? Nahiago hil, oilo busti gelditu baino! Joan nintzan Jaunaren izenean; eta bazenki zelako kristau edadetuen talde barria sortu dogun!**
- **Zorionak, Tomas! Bazoaz zukan lotan egon diran ahalmenak indarrean jarten. Aurrera arrano-bidean!**

Zeuk, irakurle, zer ikusten dozu gehiago zure inguruan: arrano ala oilo diran kristauak? Zetan bereiztuko zeunkez bietakoak? Hemen ere kontzientzia hartzeak izango dau garrantzirik haundiena, ezta? Oilo ala arrano kontzientziaz bizi eta jokatu. Kontzientzia argitu eta halan jokatzeko zer egingo zeunke? Luzaro lotan egon dan kontzientzia itzartuteko, Espirituaren argi indarrean ezarri behar, baina trifasiko deritxon horregaz.

#### JAUNAREN BERBEA:

«Ni gizonen aurrean autortu nagiana, Neuk ere halakoa autortu egingo dot zeruetan dagoan nire Aitaren aurrean»

(Mt 10, 26-33)

#### OTOITZA:

Gure babes eta gordeleku zaran Aita Jaungoiko arduratsua! Zuk dana jokatu dozu gu zeugantzearren. Zure Semeak bizia emoterainokoak egin ditu, gu guztiok zure seme-alaba egitearren. Bialdu eiguzu Espiritu Santua, Berak sendotu gaizan eta gure barrua argitu deiskun, geure izatearen ederrez jabetu eta erantzuten ahalegindu gaitezana.



## 10

### SANTU IZATERA DEITUA



***Egintza onak ez dabe egiten santua,  
santuak berak emoten ditu frutuak***

San Isidro bai ondo mezatan, bitartean aingeruak soloan idi-buztarriagaz goldaketan itzita! Eta zenbat eta holako santu gehiago asmatu eta santu bati ezarri, orduan eta santu «haundiagoa». Aitita batek harrituta badinost lehengo baten:

- Gaur entzun ere egiten da bakotxik!
- Zu baztar askotatik zabiltz, ibili ere, eta asko entzuten dozu. Tira, zeuk esango deuskuzu zer.
- Altaretan ba ei dagoz santu batzuk, zeruan ere ez dagozanak, munduan bizi izan ez diranak.
- Bai, baleiteke gizaldien errezkada luzean eta mundu zabaleko baztarretan holako aldrebeskeriak izatea; baina seguru egon, Patxi, munduan santu lez bizi izan ziranak, altaretan dagozanak bestekoak edo haundiagoak, banaka bat baino gehiago, izango dirala. Izan ere, Jesus Jaunaren gogoia eta deia argi dago: *«Izan zaitzeze, bada, guztiz on-onak, zeruko zuen Aita guztiz ona dan lez»* (Mt 5, 48). Gizaldi askotan santutasuna bizikera jakin batzuetara mugatua egon da; kristau arruntak ez baleukee lez santutasunerako deirik eta aukerarik. Vatikanoko II. Kontzilioak barriren barri jatorrizko oinarrian ezarri dau kristau santutasuna: *«Kristau fededun guztiak, euren bizitzako baldintza, zeregin eta egoeretan, eta euren guztien bidez, santuago izango dira egunetik egunera, zeruko Aitarene eskutik guztia fedez onartzen badabe, eta Jainkoaren nahiagaz bat eginik jokatzen badabe, munduko zereginean bertan, Jainkoak munduari izan deu-*

*tson maitasuna guztiei agertuz»* (L.G. 41). Benetan santu diranak ez dauke euren burua santutzat, ez diranak bai. Zelako santutasunez janzen diran, Espiritu Santuaren argitan, Ebanjelioko pitxi ederrez jabetzen diranak! Urtez eta nekez beterik, baina eragozpen guztiak menperatuta, Jainko-egarriz aurrean agertzen jaken bide barrian pozez sartzen dira. Berakatz atalak baino finagoak dozuz, bai eguneroko bizitzan, bai Jainkoagazko hartuemonetan.

Horreetarikoa dogu Erramon gure laguna. Hain jainkozalea izanik, kristau alkarte barrian sartzeko aukerea, beretzat Jaunaren deia izan zan. Belarriak gorraizzez jota eukazan, baina bihotzeko entzumena zoli. Ebanjelioko bideetan lau urtez ibili ondoren, Jaunak onartua, aukeratua eta bialdua sentitzen dan laiko baserritar bat dozu. Beragaz jardutea beti da aberasgarri:

- **Ondo etorria, Erramon! Bakarrik zinalakoan eta hau da kuadrila ederra daukazuna etxean!**
- **Hori bai gero! Gure etxeko atea beti dago zabalik. Hemen batuten jataz auzoko gazteak asteen birritan, autualdi bat eginaz eta tragoxka batzuk joaz. Asteburuetan gure sutondoan ez da leku askorik hutsik egoten.**
- **Eta zelan konponduten zara gazte jenteagaz, zeuk hainbeste urte izanik?**
- **Ondo, lagun haundiak gara. Ni kanpoan banaz ere, kuadrila hau hemen batuko da; danon etxea da. Eztabaidaren batzuk izango doguz; nik neure eritxiak eta**

**fede esperientzia argi eta garbi agertuten deusedaz; alkarri errespetuz entzuten ikasi dogu.**

- **Jakina, sabai bete lukainka, urdaiazpiko eta makilau euki ezkeru...**
- **Epa! Epa! Horreek ez dira nireak; auzotarrak ekarten dabez, gurean sikatu eta onduteko.**
- **Erramon, zure moduko asko balego, ez litzateke hasarrerik izango baztarretan.**
- **Nik honetan ez daukat meriturik; hau eta gehiago hartu dot Jaunagandik Bizian Gora mogimentuaren bidez. Nik erein egiten dot; egunen baten nik ereindako hazia erneko dalako ustez.**

Erramon zintzoaren erakutsi ederrak jasota, gogoeta luzeak egin dodaz harrezkero: Aitita honengana zelan eta zergaitik hurreratu leitekezan auzoko gazteak? Erramonen etxeari ez al deusazu hartzen eleizatxo baten antzik, adiskide? Sarri entzungo zenduan berba hau: Ebanjelizatzea. Zer dala uste dozu? Erramon ez al da ebanjelizatzaile laiko bat?

#### **JAUNAREN BERBEA:**

«Egarri dana betor Nigana, eta edan begi Nigan sinisten dauanak. Liburu Santuak dinoen lez, ur biziko errekek jariongo jakoz barru-barrutik»

(Jn 7, 37-39)

**OTOITZA:**

Egin dozun dana geure onerako egin dozun Jaungoiko Jaun errukiorra! Ez dozu nahi inor galtzerik, hagaitik eskeintzen deuskuzuz deiak eta aukerak, Zugana hurreratzeko. Zure lege-aginduak geu zoriontsu egiteko ipini dozuz. Garbitu eta argitu gure bihotzak, alkar onartuz eta maitatuz bizi gaitazan, Zuk gu guztiok maite gaituzunez. Gehitu gugan zure maitasun-dohaia.

**11**

**MIREN LOREA**



*Lorea da ikusgarri,  
baina frutua betegarri*

Gure mendi gailurretan eoliko haize errotak agertu jakuz, haizearen indarrez argi-indarra sortzeko asmoz. Baina haizerik ez bada, danak geldi, ez da sortuko argi indarririk. Antzera baten fede bizitzan ere: Espirituaren haizerik ez bada, ez dago ezetarako indarririk. Eta ez dago Espirituaren haize eraginik zoko trokazuloetan; tontorrera, Jainkoaren ondora igon behar da otoitzaren bidez, haize eragin hori sentidu eta Espiritua burundaran hasteko. Izan ere, otoitza da gugan energiari indartsuena sortu daikena. Espiritu Santuak ikutu orduko, nahiz gazte, nahiz adineko, indarrean jarten dira espiritu-errotak. Edade-tuak ere ezagutzen dodaz, eta ez gitxi, lehenago bizi izan ebenari eskerrak emonez, gaurkoari gogo berororatuten deutsoenak; eta etorkizunari gogo argiz begiratzeko gauza diranak. Egia esan, gaurkoari zumoa ateraten deutsonak dauka itxaropena eta adorea, biharkoari aurrez-aurre begiratzeko. Lastimagarria da, izan ere, egunez argi dalako eta gauzez ilun dalako, egunsentiko artizarrak kinu egin baino lehen, norberak munduari azken kinua egin beharra izatea! Edadeko jenteari zer pena emoten deutson, hainbeste jan-edari, jantzi etabar, hain egoera onean egon, eta zakar ontzira botaten ikusteak! Niri askoz ere pena haundiagoa emoten deust zerak, gure bizitzan gehien balio dauan gauzea izan, eta alperrik galdu eta sastegira botatea: *Denporea*. Hortik datoz esaldiok: *«Denporea emon, pasau, bil...»* Eta etxean edo auzoan esku bat emoteko orduan, herrian edo eleizan alkarlanean zerbait danen onerako egin behar danean, fede bizitza gaurkotu eta landuteko konbite

egiten danean, negargurea emoten deust holakoak entzun beharrak: *«Ez daukat astirik», «Parkatu, pri-xaka nabil», «Ja hurrengo baten»* eta antzeko iheskadak. Egarrri bizia dauanak laster aurkitzen dau iturri asegarria.

Adineko jentea ere jangartsu dabil aspaldion fedeko gauzetan. Aintxinatik dator gauza batzuetarako ajea: *«Ez noa eleizara, nagoalako herren, baina bai tabernara, herren egonarren»*. Oraingo krisialdi honek edadetuei ere asko eragin deutse. Hagaitik euren artean ere badira, besteak hartzen daben bide errezena hartu beharrean, sinismena gaurkotu eta landutera jotzen daben adinekoak. Gaur Miren Lore dator bere esperientziaz poz apur bat emotera. Etxekoandra pertxanta da berau, daroan izena baizen jagia eta dotorea. 65 urteak betebarri ditu. Zazpi seme-alaba hazi ditu bere dendatxotik atera dauan onureaz. Sei urte daroaz alargundurik. Nik Bizian Gora mogimintuan ezagutu neban, itzelezko abiadan:

- **Zer, Miren Lore, honezkero aspertuta biziko zara, ba, dendea itzi eta egun osoan aske.**
- **Aske dinozu? Orduan baino beteago eginda nabil. Baina hau beste bizimodu bat da; ha derrigorrezkoa zan eta hau borondatezkoa. Baina gaur ere nik ordu guztiak beterik daukadaz. Hauxe izan zan, jubilatua aurreko kezka eta bildurra: zetan emon hainbeste ordu eta egun?**
- **Eta norantza jo dozu? Antza emoten deustudanez, zuk asmatu dozu zeozer onik.**

- Bai, kristau alkarte horrek ere asko lagundu deust Jainkoagana zabaltzeko; gaur egun inoizko hartuemon gozoenak dodaz Jesus Jaunagaz. Ebanjelioa irakurtea niretzat Beragaz topo egitea da. Nire alarguntza Berak bete deust; eta Berak eskatzen deust nire osasun eta maitasun osoa. Berarentzat bizi naz. Egunero egiten dot, goizean goizetik, eguneko egitarau txiki bat, eta haxe beteten ahaleginduten naz.
- Miren Lore, ez dakizu zenbat poztuten nozun, zeu hain beterik eta adoretu ikusita. Esaiguzu, mesedez, zure egun bateko programa horren barri.
- Goizetik ordu erdiko otoitzaldia egin ondoren, eguneko programa bideratzen dot. Gero lau-bost lagunei telefonoz deitzen deutset: urtebetzean, Zorionak emoteko; gaixorik dagozanei, adore emoteko; bakarrik dagozanak bixkortzeko.
- Eta Bizian Gorako zeure alkartetxoa zuzendu ere bai, ezta?
- Bai, ardura hori emon eusten eta pozik betetzen dot; zeregin horrek ere aukera ederra eskeintzen deust hartuemonak egiteko. Gero etxea jaso, bazkaria prestau; eta bazkalondoan, bakarrik ibili ezinean dagoan bati deitu eta beragaz ibilaldi bat emon. Iluntzean, ahal badot, mezarara. Astean behin gaixoen egoitza batera joaten naz, Jesusenak egiten.
- «JESUSENAK EGITEN», zuk horixe ere asmau; bizi dauanak ez dauka asmau beharrik, bizi dauanetik ateraten dau. Miren Lore ezezik, Miren Frutu ere bazara zu.

**Jaunak Berak bakarrik daki zenbatek zenbat zor deustuen! Beti aurrera! Jaunak bedeinkatu zagizala!**

Hori da bizitzeari azken koroi ederra jartea! Ez al da holan, irakurle? Ez al zeunke gura holako arrapalada bat zeure bizitzan? Zenbat asti dozu zeuk nahi dozu-na egiteko? Eta zetan emoten dozu zure bizitzan gehien balio dauan hori: *Denporea*? Eta eguneko programatxo bat egiteari zer deritxozu? Zer izango ete da hori: Norbere burua behartzea, ala geugaz bizi dan Lagunaren izenean Aitaren Erreinuaren alde jokatzea?

#### JAUNAREN BERBEA:

«Ez dago arbola onik frutu txarra emoten dauanik, ezta arbola txarrik ere frutu ona emoten dauanik. Bere frutuetatik antz emoten jako arbola bakotxari»

(Lk 6, 43-45)

#### OTOITZA:

Zure dohaiez eta ahalmenez ornidu gaituzun Aita ardurasua! Orain zure Erreinuako solora bialtzen gaituzu, Zuk gugan eskuzabalkez ixuri dozun hazia zabaltzera. Eskerronez hartzen dogu, Aita, zure deia eta prest gaukazuz eskeini deuskuzun arloa landuteko. Lagun eiguzu zure Espirituaren indarrez, gugandik itxaroten dozun erantzuna bete-betea izan dedin.

## 12

## ZORRAK ORDAINDU EZINIK!



*Maitasuna beti zorretan*

Badakizu zer jazo jakon Kepa zaparroari bere amagazko hartuemonetan? Koskondu zanean, dirua bitarteko ez bazan, ez eutson mandaturik, ez beste beharrik egingo. Behin kontu-paper bat hartu, eta amari egiten eutsozan zerbitzioak errezkadan jarrita, bako txaren kontu eta guzti eskuetara emon eutson: arrebatxoa egunero janzteia 1.500 pezeta; arrebatxo hori zaindutea, beste 1.500 pezeta; errekaduak egitearena 2.000 pezeta. Eta bazkaltzerakoan, plater azpian ipini eutson amari. Amak patxadaz irakurri eta afaltzerakoan, sobretxo bi itzi eutsozan Kepa semeari, bere plater azpian. Batean, 5.000 pezeta eta bestean, amaren kontua: zeu mundura ekartea eta zuri hainbeste urtetan bularra emotea 0; zeu hezitzea eta eskolatzea 0; jaio aurretik zuri izandako maitasuna 0; jatekoa eta janztekoa 0. Kepak laster ulertu eban amaren maitasuna eta bere gaiztakeria. Han itzi ebazan 5.000 pezetok, eta behingoan amari parkamena eskatu eta bere esanetara jarri zan eskerronez.

Kristau bizitzan gizaldietan indarrean egon dan espiritualitatearen marka bat horixe izan da: «Ez egin lapurretarik, ez inor hil, ez guzurrik esan, ez, ez, ez...». Zuk zeure eginbeharrak ondo egin eta ez sartu inoren gauzetan; bako txak berea egin dagiala. Zuk salbau zeure arimea. Munduko arazo eta saltsa-maltsatik aldentu, hurreratu ere ez egin, norbera ere zikintzeko arriskua egon daiteke ta, eta jentearen esamesak sortu eta izen ona galdu. Holan dala, kristau izatea zera litzateke: Gauza txarrik ez egitea. Eta gauza onak egitea norentzat izten da? Jesus maisuak esaten deusku: *«Zugatz bakotxa bere frututik eza-*

*gutzen da*. Eta frutua egintza onak dira, batez ere, maitasunez eta solidaritzaz lagun urkoaren alde egiten diranak. Kristau izatea Jesusi jarraitzea bada, zelan jarraitu Hari, norbere txokotik urte barik? Pekatari eta baztertuen artean nahastuta, bere burua ere pekatari egin eta kurutzeko heriotzara kondenatua eta lapur biren erdian hil zanari zelan jarraitu, arazo guztietatik iheska ibilita?

Esanak esaten jarduteak baino gehiago argituko gaitu gure Peru gizonaren testigantzak. Auzotarren artean ez da izan bera baino zehatzagorik eleiz agindu eta legeak betetzen. Baseri gizona izanik, eskola gitxi-koa gainera, ez zan egundo urkoagazko arduetan nahastauko. Inun ezelango errogatibarik edo eleizkizunik bazan, han agertuko zan gure Peru. Behin hamabost eguneko jardunaldi baterako deia jaso eban. Ez ekian holakoetan ezetzik esaten. Joan zan bai, baina ez ekian asko handik zelan etxeratuko zan.

- *Eta, Peru, zelan azkenengo esperientzia hori? Luzea, ezta?*
- *Luzea baino sakona gehiago, niretzat behintzat. Niri mundu barri bat agertu jat. Aberats nintzala uste neban, eta hor aurkitu naz esku hutsik nagoala.*
- *Ez da izango! Orduan esperientzia garratza izan da zuretzat. Larrituta gelditu izango zara.*
- *Ez, bai zera! Ni egiaren bila nabil, eta hor egia besterik ez dot ikusi. Ni neu behintzat zorretan etorri naz etxera. Ustez kristau zintzoa izan naz beti, onentxoan*

*artekoa; baina kendu jataz harrokeri usainak: oraindik hasteko nagoala ikusi dot.*

- *Horrenbeste ere ez da izango, Peru. Hainbeste eginda gero, zorretan? Hasteko?*
- *Bai, hasteko: nik uste izan dot kristau izatea txarrik ez egitea dala; baina hemen argi eta garbi ikusi dot kristau izatea on egitea dala, maitasun egintzak egitea, Jesusen antzera. Baina hau ikusteak ez nau larritu, poztu baino; harrezkero, jo ta ke dihardut han-hemen gaixo eta baztertuei on egiten.*
- *Holan dala, martxa barria bizitzan, eta hainbeste urte lepoan eukita.*
- *Dinoenez, ez da berandurik, aukera ona bada. Nik neuk denpora gitxian bizitza guztian baino gehiago egin dot alde horretatik. Eta besteen alde egin ahala, neu sentitzen naz beteago; hemen behintzat emonak ez dau hustuten, bete baino; eta gainera, bete ere bi batera: mesede egiten dauana eta hartzen dauana, biak betetzen gara.*
- *Hori bai dala tratu ona, Peru! Benetan balio haundiko sekretua aurkitu dozu oraingoan!*
- *Bai, ni neu behintzat gero eta gogotsuago noa bide barritik; bestelakoa da hau lehengoaren ondoan! Dana maitasunean dago, baina praktikatzen dan alkarmaitasunean. Orain jabetu naz Jesusek aitaturten deusku-zan ondasunak zeintzuk diran: Zeruko Aitarean aurrean aintzat hartzen diran ondasunak, sitsak eta ugerrak*

**alperrik galtzen ez dituan ondasunak, norberak Jaunaren aurrera eroango doguzanak.**

– **Baina, tira, zorrak apurka-apurka ordainduten joango zara honezkero.**

– **Aspaldion hainbat oraindu dodaz, baina Jaunak nigaitik egin dauanaren ondoan, hutsa da. Gainera zortan sentitzeak atzera barik, aurrera eragiten deust. Beti ere, Jesusek gugaitik egin dauanari erantzutea da kontua.**

Irakurle lagun, ez dago argiago esaterik zer dan kristau izatea. Peruk berari jazo jakona kontatu deusku: Jaunak beragan egin dauan aldaketa, eta ze alde dagoan lehen bizi izan dauan legezko bidetik, orain bizi dauan maitasun bidera. Fede bereko anai-arreba garanok, Peru anaiak esan deuskunari zer deritxogu? Peruk ez dau zorionik hartu nahi; nahiago dau beste horrenbeste zuri, niri eta hari gertatzea. Helduko ete gara? Bakarrean ez harek eta ez guk; kristau alkarreak beharrezko dira esperientzia hau hartzeko. Sartu bidean eta biderdian agertzen jatzun Lagunak argituko zaitu, Jerusalemik Emausera bidekoak lez.

### **JAUNAREN BERBEA:**

«Zuek zaree munduarentzat gatzak... Zuek zaree munduarentzat argiak»

(Mt 5, 13-16)

### **OTOITZA:**

Betiko maitasunez maite gaituzun Jaungoiko Aita-Ama! Zer poza hartzen dozun gu zure maitasunera edegiten garenan! Ixuri, arren, zure Espiritua gure bihotzetara, Berak prestatu daizan gure bihotzak, Zuri gogo betean Aita deitzeko. Lagun eiguzu beti aurrera egin daigun, maitasun bidean, gure egintza onak ikusita, Zeu goratu zagiezan.



## 13

AMAMAK KLAUSURAKO  
BOKAZINOA EI DAUKO

*Jauna, hemen dozu Monika,  
misinoen alde Zeuri deika*

Ondo dakigunez, munduko bakearen alde gehien arduratu eta burukatzen diranen artean urtero banatzen dabe «Nobel saria» deritxona. Ba al dakizu nundik eta zetatik sortu zan sari hori? Hara, gizon jakitun eta haundiki honek behin aldizkari baten bere heriotz-eskela irakurri ei eban; eta ondoren, hauxe ei ekarren: «Polbora eta dinamita sortu ebazan gizona da». Harri ta orma eginda gelditu zan; beste barik, bere bizitza guztiz aldatu zan. Bere ondasun danak itzi ebazan asmo honegaz: Munduko bakearen alde gehien nabarmentzen diranen artean, urtero bakearen aldeko saria ordaintzeko. Zientziak eta harrokeriak bat egiten dabenean, urrunera eroaten dabe bat, ez Jaungoikorik, ez beste ondorenik gogotan hartzen ez bada. Lehenago sarri erabilten zan heriotzearen ispilua, haren «argitara» bizitzako bideak zuzentzeko. Santu-santa asko onbidera sartu ziran heriotzearen eraginez. Izan ere, seme galduak bereak eta bost eginda gero, etxerakoan, aitaren halako harrera samurra hartzean, zerua zabaldu jakon. Harrezkero, ez da bizi egin dauanaren erresuminez; pekatu eta guzti, bere etxean hartu dauan aitaren besarkadeak bihotz zauritua osatu deutso, eta gizaki barri bat sortu da aitaren besartean.

Ikusten danez, holakoetan ez dira lotsa izaten, Jaunak eurakaz zer egin dauan autortzerakoan. Nik hainbat holako ezagutzeko aukerea izan dot; gaur Monika jatort gogora. Nik amama maitagarri eginda ezagutu neban; baina bere gazte denporan, a zelako klabelina dotorea! Jesus Artzain Onaren besarkadearen ezaugarria eroian bihotz-hondoan. Aste beteko jar-

dunaldi baten ezagutu neban lehenengoz. Handik laster Bizian Gora alkarteetan ibili zan. Bigarrenez beste ekitaldi zoragarri baten alkartu ginan. Ordurako Monika bide barrietan zehar asko ibilita egoan, nahizta hanka bietatik narrastuta egon.

- Ondo etorria, aspaldiko Monika! Zelan zabiltz aspaldion?
- Ibili, ibili... ikusten nozu, nekez eta astiro. Baina bihotzez sekulako ondoen. Lehen gorputzez nenen-bilen sendo eta airosa, baina bihotzez narras. Ikusiak ikusi, hau nahiago dot.

Monika benetan beterik bihurtu zan etxera. Jakin nebanez, handik laster txarragora joan zan eta karru baten ibili beharra etorri jakon, eta ordu luzeetan ohean egon beharra. Erea izan neban baten, bisita-txo bat egin neutson:

- **Egunon, Monika laztana! Jauna bego zugaz! Zelan zagoz aspaldion? Geldi ala martxan?**
- **Ikusten dozunez, burditxo bat behar dot gorputz baldar hau hara-hona erabilteko; baina lagun hobeagorik badot nire barru bizitzarako. Jesus Jaunagaz alkartuta bizi naz. Egundoko maitasun esperientzia daroat neure barruan.**
- **Hori da inoiz engainatzen ez dauan Laguna, Monika. Holan dala, ez dozu alperrik galtzeko astirik, zagozan lekuan eta moduan egonda.**
- **Bai zera! Nik azkenengo jardunaldietan hartu neban zeregina, bokazino baten antzekoa. Han erabili gen-**

**duan gai pozgarri hau: Batzuk gaztetan hartuten dabela klausurako bokazinoa eta beste batzuk zahartzaroan, ormaz barik, urtez hartzen dan klausuran: ezin inora joan, ezin hau edo hori egin, beti leku txikian jira-biraka.**

- **Orduan, Monika, klausurako bokazinoa ondo joatzu. Bakardadean egonik, ez zara bakarrik eta alperrik bizi.**
- **Zahartzaroko klausura hau orain bihotzez eta bokazinoz hartu dot eta holan bizi dot Jaunaren aurrean.**
- **Eta zelan beteten dozu klausurako egun luzea? Aspertuko zara, ba?**
- **Nik klausurako lehengusina bat izan neban eta bada-  
kit harek esanda zer egiten daben klausurako monjak;  
eta neuk ere beste hainbeste egin ezinik ez daukat:  
Otoitz egin eta sufrimentuak onartu eta eskeini mun-  
duko bakearen alde eta sinismenaren zabalkunderako.**
- **Monika maitea, jarrai kurutze eta guzti, Jesus Onari;  
ez jatzu faltako laguntzarik. Jaunak bedeinkatu zagi-  
zala!**

Irakurle, Monikaren aurrean zelan sentitzen zara? Klausurako bokazino horrek argitu zaitu? Egoera mingarri eta neketsu bat Jaunaren aurrean bokazinoz hartu eta beste askoren onerako lagungarri bihurtzea, sekreturik asko da zahartzaroko kurutzea arindu eta probetxugarri izan dedin. Gure herriko bakea politikoen eskuetan ete dago bakarrik? Gaixoen eta zaharren otoitz eta sufrimentuak ba ete dauke indarrrik Jaunaren

aurrean? Ala Jainkoak ez ete dauka zer ikusirik gure Herriko bizitzan eta Eleizako gora beheretan?

Ez ete dau inok asmatuko gaixo eta ezinduen alkar-te bat, euren otoitz eta nekeminen oparia Jaungoiko Jaunari gure Herriaren eta Eleizearen alde Jaungoiko Jaunari eskeindu deioezan, Jesukristo gure Jaunagaz bat eginda? Monika batek aintxina bere seme Agustin bideratu eban bere otoitz eta negarren indarrez; gaur zergaitik ez beste Monika askok?

#### **JAUNAREN BERBEA:**

«Eskatu eta emon egingo jatzue; ibili bila, eta aurkitu egingo dozue; atea jo eta zabaldu egingo jatzue; eskatzen dauan edonok hartu egiten dau ta; bila dabilen edonok aurkitu egiten dau; eta atea jotzen dauanari zabaldu egingo jako»

(Mt 7, 7-11)

#### **OTOITZA:**

Seme-alaben eskarietara adi zagozan Aita arduratsua! Zuk ixuritako dohaia da aita-ama guztien bihotzetako ardurea. Danena batera baino haundiagoa da Zuk guretzat dozuna. Isilean otoitzean eta sufritzen dagozan gaixo eta zaharren eskeintza onartu egizu; Jesusen Kurutzeko oparigaz batera gure Herriaren bakerako eta Eleizearen sinismen zabal-kunderako izan daitezala. Euren izenean eskatzen deutsugu: Emoiguzu bakea eta sinismena.

# 14

## JESUSEK SALBATUTA NAGO



***Inor ez da salbatzen,  
ez bada zabaltzen***

Fedearen esperientzia bizitzera heldu ahal izateko, eragozpen eta galga asko doguz geugan eta gure ingurumarian. Gaur danari ipinten deutsogu prezioa, zetarako balio dauan ondo aztertuta gero. Eta, jakina, fede-munduko gauzak ez dagoz balantza horretan pixatzerik, ez efikaziaren eta pragmatismoaren neurrietan sartzerik. Ez da harritzekoa askoren eritxi hau: Meza, sakramentu otoitz etabar luze batek zetarako balio dabe mundua konpontzeko, arazoak bideratzeko, gure buruhausteak argitzeko? Gainera utilitarismo eta pragmatismo giro honek, beti prixaka ibiltera eragiten deusku, bizitza osoa erabat programatuta eukitera. Hortik datoz ondorio lez, azalkeria, azal hutsetan bizitzea. Fedearen esperientziako mundua, ostera, maitasun mundua da, hartuemon sako-neko mundua, eskerronezko mundua, dohantasurenezko mundua. Eta espirituzko mundua landuteko orduan, aitaturako gaurko munduko ezaugarri honek guztiz kaltegarri dira. Efikazia eta norbere interesak aurrenengo lekuan dirala, maitasun bideak ezin dau aurrera egin, ezin da gizakia heldu. Gaur norbere buruaren jabe izan, eta nahi dana egiteko askatasuna dira gorengo mailetan dagozan baloreak. Eta Jainko-esperientziako bidean, Bera da protagonista nagusi, Berari dagokioz orduak eta moduak, bideak eta helburuak aukeratzea. Jakina, norberak ere jokatut beharra dauka. Argitu daigun alderdi hau. Behin monastegian sartuburri bat kezka ebilen, otoitzean ezin ebalu aurrera egin eta. Abatearengana jo eban, eta honek monastegi ondoko urtegi zabal batera eroan eban. Sartu batelean eta abatak bakarrik emo-

ten eutson erramuari. Eta ontzia leku bardinean birak ebilen. Laster dinotso gazteak:

- Jauna, erramu biekaz eragin behar jako.
- Ederto, gazte, erantzun eutson abatak, holantxe da fede bidean ere. Lana eta otoitza, bategaz bakarrik ezin da aurrera egin. Bardin litzateke txoria edo hegazkina ere: hego bategaz ezin inora joan. Ez ahaztu: monastegiko bizitza otoitzera eroan eta han garbitu, zuzendu eta eskeini; eta otoitza bizitzara ekarri, bakez eta pozez jokatzeko.

Kristau bizitzako espiritualitatea gizaldietan fededunaren ahaleginen arabera egon da: indarrez eta merituz lortuten dan graziaren arabera. Pertsona edadetuaren artean haxe aldatzea da ia gehien kostatzen dana. Baina Jaunak hau argitzen deusgen egunetik aurrera, hegaz egiten dabe pozaren pozez. Amama Elenak pozik agertuko deusku bere esperientzia. Gaztetan Katoliku Ekintzan ibilia dogu; orain Bizian Gora mogimentuan sartuta, handik hiru urtera izan neban beragaz hartuemon hau:

- **Badabil gure Elena. Pozik ala? Zu aintxinatik zabiltz holako bideetatik eta honezkero fede bideko zerak ondo ikasiak izango dozuz.**
- **Bai zera! Entzun bai, buruz ikasi ere bai batzuk; baina bihotzez bizitzea, beste kontu bat da. Egia esan, azken urte honetan neuganatu dot egirik pozgarriena. Azkenengo jardunaldian erabili genduan barriona: DANOK JESUSEK SALBATUTA GAGOZALA.**
- **Eta albiste horrek ikaratu egin zaitu?**

- **Lehenengotan ikaratu; gero nasaitu; azkenerako poza-  
ren pozez gainezka ipini nau. Bateoak horrenbestean  
Jesusgaz alkartu ginduzanik ez dot inoiz entzun; en-  
tzun badot ere, ez dot inoiz neuretzat benetan hartu.**
- **Elena, horixe da egia: Guk bateoan Jesusengandik  
hartu dogula bizi barria, horregaitik danok Aita baten  
seme-alaba garala; Jesusek santutu gaituala. Eta gure  
aldetiko santutasuna aurretiaz dohain hartutako san-  
tutasunari erantzuna da: Guri santu lez bizitzea  
tokatzen jaku. Kristau izatea kategoria da!**
- **Hori da ni gehien harritu ninduana. Negar eta guzti  
egin neban hori entzun eta neugandu nebanean. Orain  
nire bizitza pozez beterikoa da, Jaunari etenbarik  
eskerrak emotea. Lehen baino hainbeste gehiago egi-  
ten dot, eta mila bider gitxiago nekatuten naz. Lehen  
dana zan eskatu eta eskatu, orain gehiago joten dot  
eskerrak emotera.**
- **Zorionak, Elena, eta eskerrak Jaunari! Hemendik aurre-  
ra, bihotzak agintzen deitsunez, zeugan dagoan san-  
tutasunari erantzun egiozu gogotsu.**

Barrua aldatzeak berez dakar agiriko bizitza aldatzea ere. Kristautasuna bizitza barria da, ez da lege batzuk betetzea. Elena beste emakume bat izaten hasi zan: alaia, adoretsua, preminan egoanari ahal eban guz-  
tian laguntzera emona. Eta otoitzerako gogo bat bai! Adiskide, zu ere salbatuta zagoz. Sinisten al dozu? Hori ez da gero dana Jainkoaren eskuetan itzi eta hor konpon egitea. Hori ez litzateke izango Jainkoak deitsun maitasunean sinistea; eskerronez gehiago

egiten da, bildurrez baino. Zer ete da Jainko-seme-alaba izatea? Kristau izatearen kategoriari zer deritxazu? Zelakoa da berari zor jakon bizikerea? Baina hau arazo pertsonala da; bakotxak bere erramua dantzatu behar dau.

### **JAUNAREN BERBEA:**

«Ez nozue zuek Ni aukeratu; Neuk aukeratu zaituet zuek; eta joan zaitezen eta frutua emon dagizuen auke-  
ratu zaituet»

(Jn 15, 14-17)

### **OTOITZA:**

Gu salbatzearren, zure Seme Jesus mundura bialdu zen-  
duan Aita Jaungoikoa! Mundu eder hau egitea baino gehia-  
go kosta jatzu gu salbatzea. Egin ahal guztiak egin dozuz  
gu pekatutik eta heriotzatik askatzeko. Jesusengan danok  
zure seme-alaba egin gaituzu. Eskerrik asko, Aita! Egizu,  
arren, gaurtik aurrerako gure bizitza Zu gorestea eta esker-  
tzea izan dedila, zure maitasunaren testigu leialak izanaz.

## 15

## LOTSEA GALDU DOT



***Bada lotsa ona eta txarra,  
bakotxak bereiztu beharra***

Esatera zaharrak dinonez, *«lotsabakoentzat mundua eta irabazten dabenentzat zerua»*. Bada lotsa ona, laugarren aginduan sartzen dana: *«Gurasoei dedu eta lotsa izatea»*. Lotsa onak zer ikusia dau errespetuaz, gizatasun helduaz. Baina bada lotsa txarra, kaltegarria, pertsona bere barruan gorde eta katigatu egiten dauana, gixajotu eta konplexuz erretzen dauana. Orduan pertsona ez da agertzen dan bestekoa, ezta dan erdirik ere. Batzuetan bere burua ikusten dau kaxkar eta lotsagarri; baina gehienetan ingurumariak kondizionatzen dau eta behartzen, halan izatera eta agertzera. Hau edo hori esan edo egiteko gogoia izan, eta mutu eta geldi geratu. Badaezpada, ganora barik zeozer eginda, jentearen aurrean barregarri gelditze-ko ere... Gaur gixajoen konplexua baino gehiago da, jakitun eta haundien konplexua: nor baino nor haundiago, gorago. Hamaika gelditzen da gure artean, bere kristau eginbeharrak bete barik, lagunarteko esamesagaitik. Batez ere, gazteak edo gizasemeak badira. Bide horretatik inor gitxi doala esanda, norbera ere geldi. Eta apurka-apurka barruko kezkek ere isildu egiten dira. Handik laster, lotsak galduta, aurka jarten da norbera ere; holan beharbada, norbere barrua ere nasaitu egingo da. Eleizbidean jarraitzen daben asko eta asko ere, gero kalean kristau dirala agertzen lotsatu egiten jatzuz, San Pedroren antzera, kontu horretan ezer ez dakiala esan eta kitto. *«Ez deistala inok igerri kristau nazanik»*, hau da eleiztar askoren jarrera. Horregaitik dira gaur egun Eleizaren eta kristau fedearen aldeko testigu gitxi. Eta gatx hau edadetuen artera ere sartu da.

Jainkoari eskerrak, gero eta gehiago dira Biblia esku-ratu eta tarteka-marteka irakurten dabenak; eleiz alkarte eta mogimentuetan parte diranak, eleiz-ardurak eta sailak euren kontura hartzen dituen kristau laikoak. Horreek dira bihar-etziko Eleizearen etorki-zuna. Kristau zaharbarrituak dozuz, gaurkotuak, fede-espientzia barria eginaz, Eleiz bizitza barriztuten arduraz jokatzten dabenak. Nik gaur honen adieraz-garriztat Kontxi izeneko amama baten erakutsia eka-rriko deutsut:

- Zer, Kontxi? Bagoaz kristau bizitza ezagutzen? Ez da erreza, ezta?
- Ez, ez da erreza barru-barrutik ezagutzea; eta kristau lez agertzea, arpegi emotea, gatxago. Pixka bat hasi orduko, lagunak ere bakarrik izten zaitue; beste batzuk burutik egiten hasi bazina lez, baztartu. Ni luza-ro ibili naz ezkututik argira urte ezinik; baina gaur, Jaunari eskerrak, galdu dot lotsa guztia. Besteiei erres-petua bai, baina nik neurea aurrera.
- Bai, Kontxi, Jaunaren maitasunaren ikutua sentitzen danean, maitasunak irabazten dau mamu eta txon-txongilo guztien ginetik. Zuk Jesus maite badozu, Bera da beste guztiak baino gehiago eta Berak emoten deutsu indarra eta gogo bizia.
- Gaur ezin dot gorde eta disimulatu Jesus Jaunari de-utsodan maitasuna; koloreak gorrittuko jataz, baina ezergaitik ere ez atzera egin. Eta harritzekoa hau da: Nik uste neban ez nebala ezertarako balio, ez eskola-rik, ez bestelako esperientziarik ez dot izan eta; baina

*ahal dodana egiteko prest nago gaur. Eta gaur hor nabil ospakizunetan laguntzen eta egoitzetan zerbitzen, pozik eta umorez.*

- Hori da bide zuzena, Kontxi: Jesusek ez dau inor kax-kajotuten; gitxiztat dagozanak askatu eta martxan jarten ditu; eta lehenago uste ez ebezan dohaiak ere badaukezala ikusten dabe eta euren burua baliogarri aurkitu. Zeuk uste dozun baino gehiago balio dozu, estrenau bako dohaiak dozuz; ez dozu aukerarik izan zure bizitzan holako gauzetan jarduteko eta.
- Hau da betekadea Jaunagandik hartu dodana! Nok esango eustan hau orain urte batzuk! Baina kristau bizitza, hemen ikusi dodanez, bide barri bat hartu eta jarraitzea da. Niri honek mesede ikaragarria egin deust.
- Alkartean ibiltea eta norberak zintzo jokatzeta beharrezkotzat ikusten dozuz?
- Nireztat alkartea izan da salbazino ontzia lez. Hor ikasi dot Ebanjelioa Jesus Bera dala, Liburu Santuak irakurriz, Jesus Beragaz topo egiten lagundu deust; baina hau gaur ezinezkoa da alkartean bizi ezik. Gaur Jesusegazko hartuemona errezuz baino gehiago, eban-jelioa irakurriz egiten dot: otoitz biziagoa eta beroa-go da, Jesus hurrago harrapatzen dot. Hartuemon horretatik beti ateraten dot betebeharreko arduraren bat. Hau beste jokabide bat da.

Ikusten dozu, irakurle, bizibarrizten diran kristauak ze ezaugarri dakarren? Bakotxak ditu bere dohai per-sonalak eta bere esperientzia berezia; baina guztie-

tan agertzen da Jesus Jauna biziemoile, askatzaile, pozkile. Pertsonak jantzi, dohaiez aberastu egiten ditu, heldutasunean aurrerakada haundia egiten dabe. Hau jakinda, kristau epelen moltzotik urtetako asmorik ez al dozu? Moltzoan zer bizi dozu? Zuk legea betetzen dozu, baina legea betetzeak zeu betetzen zaitu?

**JAUNAREN BERBEA:**

«Inor Nitaz eta nire mezuaz lotsatzen bada, Gizonaren Semea ere lotsatu egingo da hartaz, bere aintzaz, bere Aitaren aintzaz eta aingeru santuen aintzaz etorriko danean»

(Lk 9, 23-27)

**OTOITZA:**

Danen gaineratik gutaz arduratzen zaran Aita ona! Ez dozu izten Zuk seme-alabarik bakarrik hainbeste arriskuren artean. Sendotu gagizuz Espiritu Santuaren indarrez, mundu harroaren aurrean Zu autortu zagiguzan lotsa eta bildur barik. Egin gaizuz zure Seme eta gure Salbatzaile Jesusen jarraitzaile zintzo azkenera arte.

# 16

## JESUSEGAZ EGUNEROKO ZITA



*Maite doguna beti gogoan,  
hobe balego ondoan*



Jainkorik ezaz markaturiko euskal gizarte honetan fedearen esperientzia egitera bultzatzen gaitue gure eleiz arduradun nagusiak. Bai, bai: barrua anemiaz jota dagoanean, han-hemen txaplata batzuk ipinten jarraitzea, alperrikoa da eta norbere buruari hirusaku egitea. Hemen dago kakua: Barruko Jainko Espirituak huts egiten badeutso, haragiak egingo deutso gehiago; Jesusen indarra galduten dauan neurrian, mundukeriaren gatzak hondatuz joango da. Orduan ez dago beste aukerarik: Espirituari gero eta leku gehiago emon, eta Jesus Jauna bere erdiko lekura ekarri. Gotzainen Pastoral Idazkiak erakusten deuskunez: «Eragozpen eta iluntasun guztien erdian, Jainkoa hemen dago gugan, gure artean, munduan». Eta gaur eta hemen ere, Jainko horregaz topo egitea posible da. Hauxe da, eta ez besterik, fedearen esperientziak esan nahi dauana: Jainkoa onartzea, autor-tzea eta Beragaz bat egitea. Orduan pertsona horren bizitzan «Jainko» izaten hasten da. Eta orduan hasten da bien arteko hartuemon bizia; gero eta biziago egiten joango dan hartuemon. Horren barri baekian Frossard jaunak: «Jainkoa existitzen da; neuk topo egin dot Beragaz».

Nik neuk antzeko testigu asko ezagutzen dodaz hurrigo; bat Teresa, gure artean hainbesteren antzeko amama on bat. Beti izan da errezuzalea; haren etxean ez zan inor ohera joango Errosario santua errezatu barik; ez eban inok domekeroko meza itziko. Baina orain sartu dan behelaino kutsagarri honek dana gorrinez hondatu dau. Zorionez Bizian Gorako «salbazino-ontzian» sartu zan eta hor sendotu eta

gaurkotu jako sinismena. Badaroaz sei urte alkartean ebanjelioz bere barrua argitzen, Jesus gero eta hobeto ezagutzen; eta ezagutzen dauan neurrian, Bera sartzen jako barrurago, hartuemon biziagoak ditu Beragaz. Behin Teresagaz izan neban alkarrizketatxo hauxe:

- **Aupa Teresa! Gorputza nekez eta lanez makurtuta, baina bihotza tente eta bizirik, ezta?**
- **Hori esan! Gorputza beherantz doan bitartean, espirtua gorantz. Hau, ondo pentsatuta, miraria da, gero! Beste batzuk hotzituaz doaz, eta gu hemen berotuz, inoiz baino argiago eta pozago geure sinismenean.**
- **Teresa, esaidazu: zeuk hain pozik barriztu dozu sinismen bizitza; eta etxeakoak zer?**
- **Hamaika bider ekin deutset, baina alperrik. Ezin ezer-tzo ere egin. Euren alde etenbarik dihardut Jaunaren aurrean, Berak jakingo dau zer egin eurakaz. Nik neurriari jarraitzen deustot. Eurak pozik ikusten nabe, inbidia ere emoten deutset, antza; eurak baino pozago bizi nazala ere esaten deuste sarri. Baina siniste hori galdu edo egin dabe.**
- **Zeuk zelan jokatzen dozu etxean? Ez dago ezer egiterik?**
- **Nik erabagi argi hauxe hartu neban euren aurrean: Gauero, hor bederatziak eta erdietan, danei gauon! esanda, beheko gelara sartzen naz, eta han ekiten deustot neure otoitzari ordu erdi inguru.**
- **Eta etxeakoak badakie zetan diharduzun ordu erdi horretan?**

- **Jakingo ez dabe ba? Begira lehengo baten zer jazo jatan: Bederatzi urteko Mikel hilobaxoa, beti ordu bardinean joaten nintzala ikusita, ate zulotik begira egon jatan, antza. Hurrengo goizean badinost:**
- **Amama, zu gelara joanda mahi ondoan egoten zara, Kurutzea aurrean dozula. Zer egiten dozu, amama? Ikusten zaitut pozik egoten zarala.**
- **Eta zer erantzun zeutsan, Teresa? Hau oso gogoan hartzekoa da.**
- **Hara, Mikeltxo, zu oraindik txikia zara, baina ez ahaztu haundi egiten zaranerako: Amamak gauero gelan Jesus egaz ordu erdiko zita izaten dau. Ez dakizu zelako gauzak esaten deustazan. Niretzat eguneko unerik pozgarriena da.**
- **Eta Mikelek zer erantzun eutsun?**
- **Ezertxo ere ez; begiak zabal-zabalik entzun eustan eta behera begira gelditu zan pentsatzen.**
- **Teresa, hori da argi jokatzea. Hori da zeure sinismena goitik behera ezarri barik, behetik gora, bihotzetik bihotzera erakustea. Ziur egon, Mikelek ez dau hain errez ahaztuko amamaren erakutsia. Hori da fedehazia lur onean ereitea; guk ez dakigu noiz eta zelan, baina behar bada, gu hemendik joanda gero erneko da. Gurea ereitea da; gainerako Jaunaren eskuetan dago; gatxago da ereiten ez dana ernetea...**

Mutilak, gure nagusiak dauke argitasuna! Zenbat maisu-maistra etxean bertan! Eta zenbat Jesusen testigu zintzo, sarritan hilobei lagunduten, sinismen-ara-

zoetan gurasoen ordezeko eginaz! Ez da nahiko norberak egitea; besteak ere jakin dagiela, bestelan ezin da testigu izan. Eta horretarako bide bat baino ez dago: otoitza eta alkarteko bizitza, Teresaren antzera. Zelan ikusten dozu Teresak etxean emondako testigantza? Zeuk ez dozu antzekoren bat egiteko erarik? Erremuskadaka ibilerik ez dago, baina norbere testigantza garbia emotea bai. Nok ezin dau Teresaren bidea hartu?

#### JAUNAREN BERBEA:

«Inok ez dau kriseilua biztu eta ontzipean gordeten edo ohepean ipinten, argimutilaren gainean baino, sartzen diranak argia ikusi dagien»

(Lk 8, 16-18)

#### OTOITZA:

Txiki eta apalen bihotzetan harrigarriak egiten dozuzan Jainko Jauna! Gure ahaleginak aintzat hartzen dozuz eta gure bitartez zure salbamen asmoak aurrera daroazuz. Zure Espirituaren graziz landu egizuz gure bihotzak, eta Berak erneazo eta garatu daizala gure seme-alaben bihotzetan ereindako hazitxoak. Onartu, arren, gurasoen eta aitita-amamen testigantza apalak.

## 17

## DIRUBAKO ABERATSA



***Pertsona birtutez aberatsa,  
gebigarri gitxi behar dauan baratza***

Bazan amama zahar-zahar bat, oraindik gazte zalakoan, igerri barik 106. urtera heldu zana. Haren umorea! Egunkari bateko erreportariak itandu eutson:

— Amama, zer egiten dozu horrenbeste urte betetzeko?

— Hiru gauza, semetxo: *Lan asko, jan gitxi eta Jainkoagan benetan sinistu.*

Ia-ia gaur egiten dogunaren kontrara: lan gitxi, jan asko eta Jainkoa baztatu. Holan dabiltz gero gaurko oilasko-oilanda asko! Lan-janak hurrengorako itzita, guk gaur eta hemen Jaungoikoagan sinisteari jaramon egin deiogun. Egia esan, gizakia nahitaez izaki sortua eta mugatua da, eta horregaitik dau barruko hutsuneak zeozelan asetu beharra. Eta zein gatxa dan norbere buruagazko ardura eta betebeharetan oreka egokia zaintzea! Jesusen eritziz eta erakutsiz: «*Ez kezkatu zer jango, zer edango, zer jantziko dozuen pentsatuz. Arduratu zaitzeze, batez ere, Jainkoaren erregetzaz eta Haren nahia betetzeaz*» (Mt 6, 31-33). Holan balitz, ardura deuskuen gauzetarako nahibeste asti hartzen dogu; beste askotarako, herbaz onenak dirala esanarren, apenas hartzen dogun asti apurrik ere eurretaz arduratzeko. Geure burua onduteak eta alkarbizitza hobeagotzeak zenbat denpora eta ardura eroaten deusku? Bibolina jo eta izarrei kantatzea baino astunagoa da bizitzea. Bai, horixe! Ezagutzen dot giza-mogimentu bat eguneko 24 orduak honela banatzen dituana: 8 ordu lanerako, 8 ordu atsedena hartzeko eta 8 ordu bizitzaz gozatzeko. Bizitzaz gozatzea zer dan? Urte askotako esperien-

tziaz ondo aberastutako aitita batek aholku eder honeek emoten eutsozan bere hilobeari: «Hartu egizu astia pentsatzeko, biziaren oinarria da; hartu egizu astia jolasteko, hori da betiko gaztetasunaren sekretua; hartu egizu astia irakurteko, hori da jakituriaren iturria; hartu egizu astia otoitzerako, lur honetako indarrrik haundiena da; hartu egizu astia maitatzeko eta maitatua izateko, Jaunak emondako dohaia da; hartu egizu astia adiskide izateko, zoriontasun-bidea da; hartu egizu astia barre egiteko, arimearen musika da». Aitita harek baekian bizitzaren barri: lana, jana, jantzia eta bizilekua ez ditu aititzen; horretarako ere beharko da, ba, astia. Bai, eta ez gitxi! Beste hainbeste denpora bagendu ere, ez ete geunke horretantxe emongo? Baina, beharbada, erdi ahaztuta daukaguzan beste arloak gogoratzen eutsozan.

Gaurko maisu-txanda Urbano aititari suertatzen jako, urtez baizen birtutez beteriko nekazariari. Labrantzan hamaika neke-izerdiz bustitako ogia irabazitako gizona. Sasoi batera heldu zanean, bere ardura eta lanik astunenak semearen esku itzi ebazan, eta berak beste ardura batzuk ipini ebazan lehenengo lekuan. Pentsino urria gelditu jakon, baina konforme; lehendik ere bedar motxera ohituta egoan. Aurretiaz jakon ezaguna Bizian Gora adinekoen eleiz mogimentua, eta bertako lagun baten arrimora bertan sartu zan. Hasi bazan, hasi zan martxan. Handik urte bira beragaz izandako alkarrizketa dozu:

- *Zer, Urbano adiskide, labrantzarako ordezeko zintzoa aurkitu dozu, ezta? Orduan ala gaur zeu hobeto? Hori, nagusitasuna eskutik izte hori... ez da berezkoa izango.*
- *Egia esateko, ez dot lehen baino diru gehiago irabazten, baina gaur askoz pozago bizi naz. Etxeko txapuzkeri batzuk egiten jarraitzen dot; baina ardura nagusiak itzi dodaz. Bestelan bizi naz! Txanda-pasa hau norberak egin behar dau soseguz eta zentzunez; ez daitela derrigorrez kentzea izan, ordua danean, norberak iztea baino.*
- *Jakin dodanez, beste arlo batzuetan sartu zara orain.*
- *Halan da: neure borondatez eta urkoari begira hartu dodazan ardura batzuk dira: auzoko Txanton gaixoa bisitatu, eguneroko ogia eroanez; hamabostero herriko zaharren eta gaixoen egoitzara joan, hango gaixokaz kontuak kontari jardunez eta otoitzalditxoa eginez. Abadeak esanda, auzoko hiru gaixori domekero Gure Jauna eroaten deutset. Eta bidera urtetan deusten edozein arlotan, behar dauanari on egiteko bada.*
- *Zu baino aitita zoriontsuagorik gitxi izango da herrian, Urbano: osasuna alde batetik, on egiteko mila aukera eskuartean, bestetik. Eta danen gainetik, Jaunagaz hartuemon gozoak, ezta?*
- *Hori da beste guztiaren sustraia. Neu konturatu barik, kristau alkarteko bizitzan Ebanjelioaren argia barru guneraino sartu jat, eta bertan Jaunagaz alkartu naz. Lehen kanpora begira nengoan, baina orain Jaunak Berak erakutsi deust Beraganako bidea. Gaur egun,*

**lagun haundi eginda gabiltz biok. Hau bai dala bizi-modu ederra!**

- **Urbano zu argi ibili zara jubilazinoko sasaira heldu zaranean: familiar erdiko lekua beste bati itzi, eta zuk zeure leku barria hartu dozu. Ziur nago, zure etxean bakea eta bizipoza izango dirala.**
- **Bai, horretan errazoi dozu. Nik lehenengotik euki neban argi zer egin eta zelan jokatu, sasaira helduta-koan: etxean ez izan traba, ez karga; ahal dan bestean lagundu, eta neure burua eta bizitza pixka bat landu; Jaunaren aurrerako aberastu, on eginaz.**
- **Erakutsi ederra zurea, Urbano, eskubideak kendu deutezan orduan, hankabidea hartzen dabenen ondoan! Zapuztuta daukazuz nagusi asko, etxeoak eurakaz gogorak izan diralakoan, baztartuta sentitzen dira, ezetarako gauza ez balira lez. Minduta bizi dira, beste inora begiratzeko gogo barik.**

Izan ere, lagun, nor da gizaseme aberatsa? Ondasunak kaxa-kutxetan pilatu dituana, ala bere burua ontasunez aberastu dauana? Herrian izango dira Urbano baino dirutsuagoak, baina zoriontsuagoak, gitxi. Orduan, zoriontasuna ez dago diruaren arabera, norbere izatearen arabera baino. Ontasunez zoriontsu danak —beste asko zoriontsu eginaz!— ez dau bestelako ondasun askorik behar. Ondasunez gainezka dagozan asko, ostera, loa ez bakarrik, burua ere galduta dabil, gehiagoren bila. Hori hobetzat al daukazu? Eta Urbanok jubiladutza-atean hartu eban erabagia, egokitzen jotzen al dozu? Zeuri zelan joan

jatzu? Etxekoen portakizuna eurentzat itziaz, nagusiok zelan jokatu behar dogula uste dozu, sasoi horretara heldutean?

### **JAUNAREN BERBEA:**

«Horra zer gertatzen jakon, Jainkoarentzat aberats izan beharrean, beretzat ondasunak pilatzen dituanari»


(Lk 12, 13-21)

### **OTOITZA:**

Neurribako ontasunez maite gaituzun Aita Haundia! Zeure antzeko izateko sortu gaituzu, eta Jesus bialdu deuskuzu onbidea erakusteko. Egin gaizuz bere jarraitzaile, beti bilatu daiguzan zure aurrean baliogarri diran ondasunak; lurrezko ondasunen artean gabiltzan artean, ez daiguzala betiko irauten dabena galdu.

## 18

**ZU ZAITUT, JAUNA,  
NIRE ZAHARTZAROKO MAKILA**



***Eskuan makila eta bihotzean Jainkoa,  
badot biderako laguntza nahikoa***

Ume-bihotza dauan amama batek behin ustekabeen itandu eustan: «Sarri entzun dot Jaunaren Berbea, sakramentuak-eta gure arimearen janari dirala. Honek kezka bat sortu deust barruan: Ze hagin-modu dogu janari hori arimearentzat zehetuteko?» Egia esan, ezusteko itaun horren aurrean isilalditxo bat egin behar izan neban, eta gero erantzun: Hori Espiritu Santua da. Bera da gure barri geuk baino hobeto dakiana; eta Bera arduratzen da, amarik onena umeagaz lez, bakotxari dagokion janaria birrindu, egokitu eta emoteko. Espiritu Santuaren argipean bizi danak asko daki; bizitza guztian ikasten burua urratzen dauanak baino gehiago. Jaungoikoak Berak bakarrik gizakia-  
ren bihotzean ezarri daiken jakituria da. Ez da besteak baino gauza gehiago jakitea; hori barik, gizakia bera Jainkoaren gogoko izateko gai egiten dauan dohaia da. Espiritua da arduradun, gugan Jainkoaren bizileku egokia prestatzera bialdua.

Alde batetik, gaur egun, Espiritu Santuak ez dauko giro egokirik bere egitekoa gugan betetzeko; eta bes-  
tetik, dinoenez, hauxe da Espirituaren aldia. Herio-  
tztatik bizi barria sortuazoteko gai dan bakarra Bera da. Eleizearen historian zehar izan diran krisialdi eta beheraldietan, Espirituak urten deutso bidera, han-  
hemen fede haundiko gizon-emakumeak sortuz eta euren bidez aukera eta bide barriak eskeiniz. Beti ere, Jainko esperientzia sakona bizi daben pertsonen bidez Espiritu Santuak iraunazo dau Eleiz bizitza. Eta gaur ere badihardu bizi barria sortu nahirik Eleiz Ama zaharraren sabeléan. Jainkoaren esperientzia egitera bultzatzen daben mogimentuak ugaritzen doaz; en-

tzule lez egon diran laikoak hasi dira euren burua jaso eta landuten; eta eleiz bizitzan parte bizi eta arduradun izaten. Eurak dira Eleizearen itxaropena. Herri kristauok hasi dira gaurko munduan gatz eta argi izaten. Jainko esperientzia sakon eta aberatsa egiteko gauza badira, zergaitik ez dira gauz izango Jesusen testigu eta bialduak izateko?

Bittori emakume jatorra jatorku gaur bere testigantza apala eskeintzera. Barrutik kanporantza hazten doan fededuna dogu. Gabon aurreko otoitzaldian izan genduan autualdia dozu honako hau:

- *Hemen dogu aspaldiko Bittori. Bagabiltz?*
- *Bai, bagabiltz, eta gero eta hobeto. Ez neban asko uste izan orain urte batzuk, zahartzaroan makatz hau jausiko jatanik!*
- *Makatz gozoa eta altzora jausi ere. Zeure gustokoa al da?*
- *Ez dago munduan arbolarik, holako makatzik emon daikenik. Honek bai beteten dauala bihotza!*
- *Orduan, ustekabeen bete jatzu barrua; zoriontsu izateko inora joan beharrik ez dozu.*
- *Ez horixe! Jesus Jaunagaz inoiz ez lango hartuemonak dodaz aspaldion. Hau ez da berbaz esatekoa.*
- *Hara zelako eskumakila polita estreinatu dozun!*
- *Bai, nire gorputz makalak behar dau eta bedeinkatu deistala gura dot.*
- *Bai, pozik ere, Bittori.*

Eta meza barruan, eskeintza aldian egin genduan eskumakilaren eskeintza eta bedeinkapena: «Egizu, Jauna, Bittori makila honen laguntzaz munduan dabilen artean, Zeu izan zaitezala berari barrutik eutsiko deutson makila sendoa, Zeugana heldu arte».

Bittori amamak mun eginda hartu eban makilea, negar malkoz Jaunari eskerrak emonaz. Ez da gitxiagorako, ezta? Inoiz behar izatekotan, zahartzaroan behar dau batek barrutik Jaunaren laguntza, gorputzagaz batera jausi ez daiten. Zer deritxazu? Gorputza makal eta gaixorik daukan batek ahal dau barrutik pozik eta sendo bizitzen jarraitu? Zelan?

#### **JAUNAREN BERBEA:**

«Nik Aitari eskatuko deutsot eta beste Laguntzaile bat emongo deutsue, beti zuekaz izango dana»


(Jn 14, 15-18)

#### **OTOITZA:**

Jesus zure Semea emoteraino maite izan gaituzun Aita Jaungoikoa! Badakizu zure laguntza behar dogula, Jesusen jarraitzaile izateko. Ixuri, arren, gure bihotzetara zure Espiritua beti gugaz izan dedin, eta Zuk gugan hasi dozun Berak burutu dagian.

## 19

## JUANITOREN EGUNKARIA



***Hobe on txiki asko,  
on haundi bat baino***

Nori ez jako ezagun egiten Kalkutako Teresa? Bizi zala ere munduak emakume harrigarritzat autortu eban. Behin uriko kalean zehar joiala, umetxo bat aurkitu eban kale ertzean erdi hilean. Hartu besoe-tan eta mosuka baten bizirik eutsi nahirik, bere ospitalera eroan eban. Kalean norbaitek badinotso: «Teresa, alperrik zabiltz! Horregaz ez dozu India salbatzen». Bihotza ezpanetan ebala erantzun eutson Teresak: «India ez, baina umetxo hau bai; eta orain hauxe da nire eginbeharra». Hori da zuhurtasuna eta zintzotasuna! Dana era batera ezin dala konpondu, eta ezertxo ere egin barik egon! Izan ere, gure artean salaketa ugari dago, baina salbaketa gitxi. Norberak ahal dauan salbaketa egitea da lehenengo salaketa-rik onena, eta gero geroakoak. Nazaretoko Jesus maisuak ere ez eban salaketa gitxi egin, baina salaketa-rik gogorrena eta agirikoena zera izan zan: Ahal ebazan danak salbatzea. Hori bai bide ederra, iraultzarik indartsuena: Zelan edo halan gizakiaren bizia askatu, pozgarritu. Jesusek Berak dinosku: «Ni bizia ekartera etorri naz, eta bizi ugaria izan dagizuen». Eleiz inguruan gabiltzanok badakigu hango barri. Bai bertan barruan ospatzen dogunak eta handik kanpora egiten dogunak, gehituten al dau guban bizia eta biziaren aldeko grina? Vatikano II. Kontzilioak ere agertzen deusku kezka hau: «Sinistedunak zer esan asko izan daikée ateismoaren sorreran... Jainkoaren eta erlijinoaren benetako arpegia ezkutatu egin dabe, eta ez agertu eta errebelatu» (G.S. 19).



Ekarri gogora gaurko irrati, telebista eta egunkariak: noiz eta nun agertzen dira txikien ahaleginak, zerbitzuak, isilean eta borondatez egindako mesedeak? Txikikeri horreek ez dabe ezertxo ere balio. Baina Jesus maisuaren eritzia ez da hori, bere bideak beste batzuk dira, gehienbaten kontrakoak. Egia esan, gizarteko txikiak Jesusen Ebanjelioko jarrera honegaz jabetuten diranean, benetan haundi izaten hasten dira. Ez dabe haundi izatera jokutzen, Jesus jarraitzera baino; badakie Bera dala haundiena, eta harako bidea, zerbitzea eta lagundutea dala. Begira gure aiti-ta Juanitok erakusten deuskun bidea. Holan agertu euskun —kolore gorri, tartamutu eta guzti— geure arteko otoitz egun baten:

- **Juanito, zuk ere badozu, ba, zertxobait esanahia.**
- **Bai, badot bai; eta ez dakit nundik hasi; gainera hain dira gauza txikiak... Ez da neure burua harrotutearren, dana Jaunari zor deutsot eta. Baina ni neu asko beteten nabe bai, eta esan egin behar dot.**
- **Bota, Juanito, pozik entzuten deutsugu.**
- **Nik badot auzoan lagun bat. Egundo ez dogu izan hartuemon esturik. «Kaixo» eta «Kaixo!» beste barik. Baina begira nundik eta zelan egin garan lagun haundi: kalera jatsi nintzan baten jakin neban auzoko lagun horri hanka biak ebagi deutsozala. Nik, etxera joanda, ezin izan neban egunetan egoera hori neure burutik kendu. Barruak ez eustan bakean izten bere alde zerbait egin barik. Lehenago izan balitz, egun gitxi barru ahaztuko jatan; baina aspaldion urkoaren**

**beharrizanak gogorrago joten nabe; errudun ez bada ere, arduradun sentitzen naz. Gero eta gehiago konturatzen naz, barruko dei hau ez dala neure sentimendu huts bat, Jauna dala haregandik laguntza eske. Halako baten, bihotz erdian argi bat biztu jatan: Auzoko lagunari eguneroko izparringia gogoko jakola, eta orain nok ekarri ez dauala izango. Neu joango naz egunero eta ekarriko deutsot.**

- **Juanito, ziur egon, gaurko egunkarietan ez da holako barri asko etorriko. Segi, segi aurrera!**
- **Biharamonean esandakoa egin neban: hartu bere gogoko dan egunkari hori eta etxera eroan neutson. Ustebako bisitaria begitandu jakon, antza. Baina zelako begi argiz begiratu eutson nire eskuetako egunkariari!**
- **Eskerrik asko, Juanito! Baina zelan ordainduko deutsut zerbitzu hau?**
- **Hau ordaindu? Ez daukazu ordaindu beharrik. Gaurtik aurrera egunero ekarriko deutsut, eta besterik behar badozu, esan; pozik lagunduko deutsut.**
- **Eta handik aurrera zer? Zelako hartuemonak izan zeneduezan?**
- **Nire bizitzako onenak, zintzoenak. Egunero egotaldi luzeak egiten doguz alkarregaz. Hainbeste gauzetan lagundu neutsan; berak nahi eban guztietan etxe inguruan karruan erabili ere egiten neban, kontuak kontari.**

Irakurle, Juanitoren erakutsiak argirik bai? Ebanjelioa eskuetan hartzeak bizia ikututen dau. Zure meza, sakramentu eta debozinoak ikututen ete deutse zure eta urkoaren bizitzeari? Geldokeritik itzartu eta ateraten al gaitue? Kontua ez da nok meza gehiago entzun, nok errosario gehiago errezatu. Horrek guzti horrek bizia emoten ete deusku, preminan dagoan urkoaganaino helduten dan bizia? Zer deritxozu?

**JAUNAREN BERBEA:**

«Jaunak bialdu nau behartsuei Barri Ona emotera, giltzapekoei askatasuna, eta itsuei ikusmena iragartera; zapalduiei askatasuna emotera»

(Lk 4, 16-21)

**OTOITZA:**

*Gizaki guztion Aita bihotz haundikoa! Zuk seme-alaba guztiok zoriontsu ikusi nahi gaituzu. Minez dagoanaren ondoan zagoz beragaz batera minetan, nok lagunduko zain. Zure Semeak esanda dakigu, holako bati lagundutea Zuri lagundutea dala. Ixuri eiguzu zure Espirituaren argia, Zu behartsuakan ezagutu eta zerbidu zaiguzan, biziaren aldeko zure Erreinua sendotu daiten gure artean.*

## 20

### JAUNGOIKOAK NI MAITE NAUALA?



*Ama batek hamar seme maiteago,  
hamar semek ama bat baino*

Maitasuna gora eta maitasuna behera, badirudi gaur maitasuna besterik ez dagoala munduan. Bai gero? Bat gose danean ez jako besterik entzuten: ogia gora eta ogia behera; dagoanean ez dago aitatu beharrik, gozatu besterik. Hainbeste maitasun dagoala ta, nundik hain frutu eskasak? Baina ez goaz hileta kanpaiak jotera; hobe da maitasun-bideak zabaldu eta maitasun esperientzia gozoa egin dabenei entzutea. Dana dala, gizakia maitatua izateko eta maitatzeko egina da; maitasun esperientziarik ez daukanari irribarre gozo gitxi loratzen jako. Behin baino gehiagotan ikusiko zenduan eguzki-erlojua. Holako baten ondoan irakurri neban idazkun hau: *«Gizakia Jainkorik gabe, hori naz ni eguzkirik gabe»*. Zer deutso erloju-orratza urrezkoa zein zurezkoa izan, bere azpia harrizkoa nahiz zidarrezko izan; eguzkirik ez bada, dana alperrik. Eta gure eguzkia Jainkoa da, gure artera jatsi eta gure egi, bide eta bizi bihurtu jakuna. Egizu kontu, kristau deritxon batek teologiako titulurik ederrenak dituala, ondasunetan zer nahi eta haxe daukala; baina bere bizitza eta bihotza eguzkiak joten ez baditu, Jesus Jaunaren Espirituak argitu eta berotzen ez badau, benetako poz zorion gitxi izango dau. Jesus Jaunagaz topo egin dauana, ostera, zahar nahiz gaixo izan, umorez eta baikor aurkituko dozu. Iturria barruan dauka, Jesus maisuak samariar andreari esan eutson lez: *«Nik emongo deutsodan uretik edango dauana, ostera, ez da sekula egarri izango, Nik emongo deutsodan ura betiko bizia dan iturburu bihurtuko jako barruan»* (Jn 4, 14).

Santa Teresak inoanez: *«Jainkoa beragaz dauanari, Haregaz dau nabiko»*. Ez dau besterik behar. Hagaitik errepikatzen eban hain ezagun dan esaldia: *«Triste bizi dan santua, santu tristea da»*. Eta guk, geure burua kristautzat dogunok, ze itxura eta irudi emoten dogu eleiz inguruko ospakizunetan eta hartuemonetan? Jente bizia, baikorra, presta, ala nagia eta hiletazalea, arazo edo ardura baten aurrean, lehenengo lepoa eta gero hankak jasoten dituana? Ezin esan holakoak Jesus Berbiztuagaz topo egin dauanik. Ezin onartu Jaungoikoak maite dauala, sinisten dauanik. Gaur egun ere badira Jainkoak maite-maite dituala benetan sinisten dabena; orduan hasten dira fede-bizitza sendoa eta pozgarrizkoa erotzen. Juan Pedro aitita beneragarria dogu testigu, bera noiz eta zergaitik hasi zan kristau bizitza barria bizitzen:

- ***Badabil gure Juan Pedro, batzarreko paperak tolestu ezinik. Ez zara aspertuten?***
- ***Bai lehenago izan balitz; gaur eskerrak paperoi eta lagunarteko batzarrari urten dot argitara.***
- ***Argitara urten... Argituko deuskuzu pixka bat zer esan gura dozun horregaz?***
- ***Ni beti izan naz eleiza zalea; meza, sakramentu, errezu etabar etenbarik izan dira nire bizitzan. Nire bizitzako zatirik luzeenean estu hartzen izan nau kontzientziak, autortza eta pekatu kontu horreekaz. Jaungoikoaren justiziak ikara bildurrez betetzen izan nau. Jaungoikoaren errukia eta maitasuna entzun bai***

*sarri egiten izan dodaz, baina ez neban sekula horren ikuturik sentidu bihotzean.*

- *Eta Bizian Gorako otoitzaldietan, ebanjelioa aztertzean eta, ez jatzun errez egingo, ba, Jesusen jokabide eta eritziekaz bat egitea.*
- *Egia esan, ni bide barri horretan gehiago sartu nintzan, neure aldetik ahalegin gehiago egitearren. Luzaroan ibili naz hauxe iruntzi ezinik: Jainkoak maite nauala nazan modukoa; ez deutsela gure irabaziei begiratzen, ez dauala gure merezimenduen arabera gugaz jokutzen, bere erruki eta maitasunaren neurri-ra baino.*
- *Izan ere, hori bihotz-hondoan susmau ezkerro, dana eginda dago.*
- *Horixe berori jazo jat niri. Hamabost eguneko alkarbitza zoragarri baten, neuk ere zelan ez nekiala, iruntzi neban janaririk gozoena, nire barru osoa, bihotzerrre eta guzti, betiko gozatu eustana: Bai, Jesusek ni neu, Juan Pedro hau, nazan modukoa maite nauala; onartzen, aukeratzen eta deitzen nauala, nigaz adiskidetu nahi dauala... Hau zoramena, hau bihozkadea! Harrezkero ni beste bat naz.*
- *Juan Pedro, aldaketa hori zegaz konparaturik aurkitzen dozu? Ba al dago esperientzi bardinik edo antzekorik zure bizitzan?*
- *Ez, nire bizitza osoan ez dot holako betekadarik bizi izan. Jesusen esperientzia honek askatu egin nau. Handik aurrera baikorragoa naz, urkoa ere dan modu-*

*koa onartzea errezago egiten jat. Neure buruari begira bizi barik, besteakana edegi naz, ahal dodan neurrian on eginaz.*

- *Eta lehengo bizitzako nahaste-borraste hareek zer?*
- *Lehengoa eta gerokoa, biak itzi dodaz Jaunaren eskuetan; ez nabe bape larrituten; gaur ahal dodan on guttia egin eta aurrera. Hau bai dala kristau bizitzaren ederra!*

Irakurle, Juan Pedrorenak zer pentsaturik emon deutsu? Nik harako ormako eguzki-erlojuarenaz argituta ikusten dot: horra zer dan eguzkibako erlojua eta kristaua... Jainko maitasunaren eguzkiak —gureztat Jesus Jaunak— ikutu gaizala; orduan jakingo dogu esperientziaz zer dan kristau izatea. Ez dala geure ahaleginaren ahaleginaz Jainkoa konbentzidutea, Jainkoak Berak geu maite gaituala konbentzidu gaizala baino. Ispilu honen aurrean jarrita, zeuk zelan ikusten dozu zeure kristau bizitza? Juan Pedroren antzeko zorion-esperientziarik txastatu nahi baduzu, urten eguzkitara eta orduan hasiko jatzu bihotzeko erlojua bizi-ordua emoten.

#### **JAUNAREN BERBEA:**

«Badator ordua —hobeto esan, heldu da— egiazkoa adoratzailleek Aita egiaren arabera eta Espirituaren eraginez adoratu dabena; holan adoratu dagien nahi dau Aitak»


(Jn 4, 4-26)

**OTOITZA:**

*Gure merezimenduei begiratu barik, zeure bihotz haundiaren neurritz maite gaituzun Aita ona! Espirituak eraginda gurtzaileak nahi dozuz aurrean. Zeuk sentierazo eiguazu Zeuri gogoko jatzun otoitza, Espirituaren bidez. Onartu, arren, gaur gugandik jasotzen dozun ospe eta aintza, gurtza eta bedeinkapena. Aingeru eta santu guztiekaz batera abestu eta goraldtu nahi dogu zure neurribako maitasuna gizaldien gizaldietan.*

**21**

**GURE AUZOKO  
PATRIARKA MARTIN**



*Aititak gauza asko esateko,  
seme-alabak astirik ez entzuteko*

Zein txiki egin jakun mundua, mutilak! Oraintsu arte ezkutuan egon diran zoko baztarrak gaur gehienon begibistara ekarrita, bertara joanda ikusita edo telebistaren bidez geure eskatzeraino sartuta. Begiz ez bakarrik, bihotzez ere mundua baizen zabalak egin gara: zenbat doazen urruneko lurretara, bertako behartsuekaz hondamendiaren zoritxarra alkarbananduz. Beste miloika asko Gobernuz Kanpoko Erakundeen bidez (G.K.E.), euren ondasunak eta bizitza alkarbanatzera doazenak. Espirituzko bizitzan, halan ere, alkarjoko hori epeldu edo galdu egin da. Espirituzko eta gogozko hartuemonak ezetarik probetxurik ez balebe lez. Horretan fedea galdu egin ete dogu, ba? Jakina, lehen, orain eta beti, pentsakera eta bizikera honek sinismen sustraiak sakonean errotuak eskatzen ditu. Azken baten, Jainko Espiritua da bizi sortzailea eta sortutakoa bizibarritzen dauana. Bestalde, egiazko sinismenak solidaritzara eragin eta eroaten dau. Jesus Maisuak zer besterik erakusten deusku, mahatsondoaren parabilearen bidez? Kasu honetan, hartuemon biziarena Mahatsondo dan Jesus Beragaz egin behar da, Beragandiko bizi indarrez aihen bakotxa bete ondoren, mahatsondo beraren aihenakaz bizia sendotzeko hartuemon bero zabala egiteko.

Ebanjeliozko erakutsi eder pozgarri hau kristau askok bizi izan dabe, bai komentuetan eta bai familietan. Eta Eleizamak beti aintzat hartu eta zabaldu izan dau espirituzko ekintza hau. Gaur egun ere, Ebanjelioa pixka bat jorratzen danerako, hor agertzen da apostolutza mota honen indarra.

Martin dogu gaurko testigu errimea. 76 urte gaz eza-gutu neban Bizian Gora alkarte baten. Agure errespetagarria baizen estimagarria. *Lurra samurrago eta harra barrurago* esan ohi da. Bere bihotzean ebanjeliozko haziak lur samur umotsua aurkitu dau, antza; halako frutu heldu ugaria sortu dau beragan. Handik urte batzuetara urteen pixuz makurtuta, oheratu zan. Behin eta sarritan egiten deutsot ikustaldiren bat. Kontsolagarria da beragaz autualdi bat izatea. Horretariko baten jaso neutsazan pitxi ederrok:

- **Arratsaldeon, Martin jauna! Jaunaren poza eta bakea dakartsut eta zeure kristau alkartearen gorantziak eta adorea.**
- **Eskerrik asko! Zenbat zor deusedan nire alkarteko lagunei! Ez dodaz ahaztuten, ez gaez ez egunez. Batez ere, eguerdiko 12etan, «ANGELUS» orduan.**
- **Zuk ohe ginetik eta zeure etxeko bakardadetik, Bizian Gorako martxan jarraitzen dozu.**
- **Alkartasun hori galtzea baino ez neuke behar! Lagunen hartuemon beroak eusten deust bizitzen adorez eta umorez.**
- **Julian abadeak ere zuretzat eskabide bat egin deust: Hilabete barru parrokiako gazteak Sendotza hartuko dabela, eta euren alde Jainkoari otoitz egiteko.**
- **Hauze da nire etenbako ardura eta betebeharra: prixaka eta lanez etenda dabiltzanen alde eta euren orde z Jaunari neure gaixo nekeak eskeintzea otoitzaren lurrunetan.**

- *Holan dala, zuk ohetik urten barik, herriari eta munduari jirabira asko emoten deutzazuz; ez zagoz geldi eta aspertuta. Liburuak irakurtea ere gogoko izan jatzu, zeugana datorrenari ataltxoren bat gordeta eukiaz.*
- *Bai, zuretzat ere gorde dot otoitz samur bat, azkeanean egingo dogu. Nik neure gain hartu dot etxeko, auzoko eta herriko ardurea Jaunaren aurrean, eta zatika eta sailka danei errepasu on bat emoten deutzet egunero. Gauak eta egunak ordu asko daukez.*
- *Eta Jainkoa zelan portatzen jatzu, ba, Martin? Lagun modura? Jaramonik egiten deutsu?*
- *Egingo ez deutz ba! Beti izan gara lagun, baina batez ere Bizian Goran sartu nintzanetik. Jenteak ez deust sinisten, baina ni bakardadean ez naz bakarrik sentitzen; beti dot ondoan lagunik zintzoena, entzuteko nahiz berba egiteko. Batez ere, hor jesarleku gaineko hori... (Jesarleku gainean eskumendean eukan santokristo ederra erakutsi eustan.)*

Antzekoak ziran Martinegaz bisitariak eukezan har tuemonak. Behin ustekabeen bisitatu eban bere seme batek, eta aita zaharra malkoz beterik aurkitu eban.

- *Aita, atsekaberen batek larritzen al zaitu?*
- *Bai, seme, baina oraingo larrialdi hau ez da gorputzeko minakaitik, bihotza daukat negarrez.*
- *Zergaitik, ba, aita? Nik kendu ahal baneutsu...*
- *Bai, seme, ni ahalegindu naz neure aurrekoakandik hartutako sinismena eta eleizbidea zuoi erakusten*

*berbaz eta egitez, eta... Amak ere samintasun hauxe eroan dau mundutik. Nire malko honeek zuen alde eskeintzen deutzodaz Jaunari: Ez zaitezela urrundu bere ondotik, Jaunak erruki izan dagiala nire ondo-rengo guztietaz.*

Semeari ez jakozan arin ahaztuko aita zaharraren kezakak eta egoera. Larogeita hamar urtetik gora hartu ebazan. Haren heriotzean auzoak —txakur eta guzti— negar egin eban. «Gure auzoko patriarka zaharra» deituten eutsoen. Zer uste dozu: holako batek ez dauala egiten ezer probetxuzkorik etxean eta auzoan? Holako baten otoitzak eta bizitza zintzoak ez dauala indarrrik Jainkoaren aurrean? Atso-agurak traba baino ez dabela egiten baztarretan? Gazteak ere ez dira beti gazte izango, bizitzako baztarrak jota, samurtuko dira noizbaiten; orduan aititaa-mamen irudi maitagarriak akordurik izango dau euren bihotzetan. Hareek ereindako haziak goiz edo berandu emongo dau bere frutua. Zeuri ez al deutsu zirkinik eragiten aintxina joandako arbasoen gomutapenak?

#### JAUNAREN BERBEA:

«Bazan Jerusalemene Simeon izeneko bat, gizon zintzo eta jainkozalea, Jainkoak Israel noiz kontsolatuko zain egoan. Espiritu Santua beragaz egoan»

(Lk 2, 22-32)

**OTOITZA:**

*Zeuren zara, Jauna, gure eta munduaren hasiera eta amaiera, Zeu bakarrik gure Jaungoiko. Pekatuak pekatu, ez dozu mundua eskutik izten; hori barik, gure arteko zintzo askoren bitartekotasunez errukitu egiten zara. Onartu eta bedeinkatu, Aita, baztarretan alkarmaitasunez sufritzen eta otoitz egiten dagozan edadetu eta gaixo askoren ahaleginak. Jesukristo zure Semeagaz bat eginda, munduaren salbamenerako izan daitezala.*

**22**

**JESUSEN IZENEAN**



*Haundiagoa dan Norbait  
barruan bizi jakona:  
Horrek bai dauala beragan zoriona!*



Gaixorik dagoan bat, hainbeste bider ospitalera eroanda gero, hobera egiten ez dauanean, txarragoren bat ete daukan susmoa hartzen dabe osagileak. Orduan pastilaz jokatzen jarraitzerik ez dago; ebakuntzaren bat egin beharko da, hilibizikoa sarritan. Orduan, ohiturazko errezuak eta debozinoak, legezko meza eta sakramentu-ospakizunak ez dira nahiko, esperientzia barri hau bizitzeko. Eta beti-betiko bidean jarraitzeak ez daukala iraupenik. Eta gitxiago gaurko erronka larriei erantzuterik. Sinismen bizitzak gaur egun sustrai sakonagoak eta pertsonalagoak behar dituala. Belaunaldiz-belaunaldi jatorkun kristau siniskereak ezin deusola eutsi guztiz aurkakoa dogun mendabal haize gogorrari. Bidean harri artean edo sasitzan jausitako ebanjelioko parabolako haziaren antzera, iraupenik ez daukan zereko zera baino gitxiago da. Holako azterketa egiterakoan, bete-beteen jatorku aurrera harako Karl Rhaner teologari eta fededun haundiaren esaldia: *«Etorkizuneko fededuna mistikoa izango da; bere kautan zerbait bizi dauan pertsona izango da; edota ez da fededun izango. Etorkizunean fededun izatea ez da izango, izan ere, gauza publikoa, bateratua eta normala»*.

Kristaurik gehienak oraindik Lege Zaharreko Jaungoiko haundi ikaragarria sinisten jarraitzen dabe: urrunekoa, hotza, goi-goikoa, epailea. Bestelakoa da Jesusengan agertzen jakun Aita Jaungoikoa: Geure haragiz jantzia, geure artekoa, errukitsua, maitasunaren Aita-Ama. Hau bai dala maitagarria, fidagarria, hartuemonetako, geure bizilagun egina. Geu barik bizi ezin balitz lez agertzen jakuna. Ez da harrizketa,

kristau edadetuak, Bizian Gora bidean sartzerakoan erakusten daben eragozpena: ezin iruntzi, ezin bihotzean hartu, ebanjelioan Jesusek agertzen deuskun Aita Jaungoikoa! Baina Aitaren maitasun beroak ikututen dituanean, pozaren pozez sinistu ezinik erasoten dabe, malko eta guzti: *«Hori bolan izanik, nun egon da Eleizea gaur arte guri hau esan barik?»*. Eta aintxinako misino santuak eta autortza zorrotzak astinduten dabez gogor. Hau ere bada, ba: ea errezago egiten jaku justiziaren Jaungoikoa sinistea, errukiaren eta maitasunaren Jaungoikoa baino. Baina Ebanjelioa eskuetan dabela eta alkarteko otoitz giro ederrean, apurka Jesusen Aitaren besoetan besarkatuak eta onartuak sentitzen dira.

Ezin da berbaz esanda bakarrik adierazo, zelako aldaketa egiten daben gure nagusiak, Ebanjelioko Jaungoikoaren barri hartzen dabenean! Albiste pozgarri honegaz bete-bete egin dan bat jatorku gaur, berari gertatu jakona kontatzera: Ines amama bedeinkatua.

- **Bazatoz gaur ere, Ines, esku-poltzatxoan liburu-pape-  
rak hartuta, lagunarteko batzarrera.**
- **Bai, banator, ba. Baneukazan eskubete zeregintxoak;  
baina nok itzi hamabosteroko batzar hau?**
- **Hainbeste joan-etorrika ezer ikasi edo aurreratzen  
dozue, ala?**
- **Hau eskola berezia da; buruz ea ez dogu ezer ikasten;  
entzuten eta irakurten dogun apurra bihotzeko erro-  
tatik pasatzen dogu, eta hortik datorren urun gozoa  
da bizi doguna.**

- Zuri zeuri gehien eragin deutsun egia zein izan da?
- Jesusek erakutsi deuskun Jaungoikoa hain ona eta maitagarria dala jakitea, gugaitik hainbeste egin dauana eta egiteko prest dagoana. Nire bizitza osoa azpikoz gora ipini deust.
- Kostako jatzun, ba, hainbeste urtetan bizi izan dozun lege eta ohiturazko gerriko estua askatzea!
- Bai, eta ez gitxi! Denpora luze samarra emon dot iruntzi ezinik, kezka eta bildurrez; ea nundik nora nebi-lenik ere ez. Baina apurka argitzen eta baretzen joan jat barrua. Gaur beste mundu batera aldatu nazala dirudi. Jaungoiko honegaz fiatu leiteke; hain da bihotz haundikoa!
- Zuri entzunda, esango neuke barruko galgak askatu jatzuzala eta orain errezago zoazela bizitzako martxan.
- Neu ere harritu egiten naz zelako bidean sartu nazan pentsatuta.
- Ai, Ines, Ines, zeu baino haundiagoren bat sartu jatzu barrura, eta Berari itzi deutzazuz eskuak libre, eta Haren indarrez egiten dozuz orain zeuk uste dozuzan baino haundiagoak. Horixe da, izan ere, kristaua: Norbera baino haundiagoa dan Norbait beragan bizi jakona.
- Bai, badot norbait, arerio guztien kontrako indarra emoten deustana.
- Ba al dozu apartekotxorik esateko?

- Bai, baina badot jokabide on bat, danen kontrako indarra emoten deustana:

Hara, atzera egiteko arriskuan neure burua ikusten dodanean, behingoan barruko argia biztuten jat eta otoitz labur hauxe egiten dot bihotz guztiagaz: «EZ AL DOT EGINGO JESUSEN IZENEAN?» Eta gaur dan egunean ez dot uste baten ere atzera egin dodanik.

- Ines, zorionekoa zara; Jaunak lagun daizula.

Horra, irakurle, Jainkoak gure nagusien artean zer egi-ten diharduan. Honeek dira Jesusen Espirituak argituta, arnas-barrituta bizi diran kristau jubilatuak. Lege batzuen betekizun dan sinismena, Jainkoaren maitasun esperientzia bihurtzen danean, batera hartzen ditu: burua, bihotza eta sentipenak. Edadeko pertsonak holako fede-esperientzia ederrak autortzean, zelan sentitzen zara zeu? Munduaren aurrean ezjakin batzuk eskuratzen daben esperientzia zuretzat ere hortxe dago; Jaunaren maitasun deia zuretzat ere bada. Bihotz zabalez eta apaltasunez bila dabilenari Jaunak ez deustso ukatzen. Nik ere, Inesegaz batera dinotsut: «Jesusen izenean» hasi zaitez, ez da inoiz ere berandu, konbi-tea ona bada. Gaurko hau zeuretzat da. On daizula!

#### JAUNAREN BERBEA:

«Etorri zaiteze Nigana nekatuta, zamapean makurtuta zagozen guztiok, eta Neuk arinduko zaituet»

(Mt 11, 28-30)

**OTOITZA:**

*Zeure Semearen bidez, Aita zarala agertu deuskuzun Jaungoikoa! Egin ahalak egin dozuz gure bihotzak zure maitasunez berotzen eta bizibarritzen. Jesukristori esker, seme-alaba gaituzun ezker, zeure Espirituaren laguntzaz, erakutsi eiguzu Zuri Aita deitzen eta zure esaneko seme-alaba lez bizitzen. Jesusen izenean eskatzen deutsugu.*

**23**

**KRISTAU LEZ BIZI NAHI DOT  
JUBILAZINO AROA**



*Zer dan kristau lez jubilatzea?  
Azkenengo aldiz espabilatzea*

Lehenago gure artean aititamamak —zaharrak!— bene-ragarriak ziran; hartuemonean ere «berorika» tratatzen ziran. Sukaldean ere aitita jaunak bere zizailua —beretzat bakarrik!— izaten eban. Testamentu Zaharreko espirituz igurtzitako jokabidea bizirik irauten eban, antza. Jakina, euren eritzi, sinismen eta tradizino-erentzia jaso eta altxor baliotsu lez gordeten zan.

Zahar-gaztean ez dago gora behera guztia. Tresnak eta lanabesak, zaharrago eta baliotsuago, erakusteko, behinik behin; ez barriren barri eurakaz lanean jarraitzeko; uger-zikinak kendu, apur bat liraindu, eta mila baztar eta ormetako apaingarri izateko. Pertsona edadetua ere baliogarri eta maitagarri bihurtu behar-ko dogu, ez lanerako eta produzitzeko gauza danean bakarrik; batez ere, erakusgarri izateko, euren bizi-tzako jarrerak, egintzak, eritziak, ohiturak etabar, ondorengoak jaso dagiezan eta karinoz aupatuz eta eskertuz. Hor-hemen badira birziklatzeko makinak; holakoren bat dozu kristau nagusientzat Bizian Gora. Espirituzko tailer horretan zenbat sartu diran asmorik onenagaz, eta urte gitxi baino lehen, inoizkorik baliogarrienak dozuz leku eta ekintza askotarako. Gure altaretan gizaldietan egon diran santu-irudiak esku abiletan jausten badira, ikutu hemen eta ikutu han, dizdiz lehengoak diranik ere ez. Hauxe da kristau lez jubilatzea: Jainko seme-alaben irudia liraindu eta gaurkotzea.

Joxemielek ez eban bere buruaz egundo horrenbeste amets ederrik egin. Jubilatu ondoren, haren ego-nezina! Zetara jo asmatzen egoala, hor nun heldu

jakon Bizian Gorako lagun baten konbitea. Eta berak dinonez, ez dago prest titi gozo hori izteko.

– *Zer, Joxemiel? Bagara, ala?*

– *Bai horixe! Bigarrenez jaio banintz lez sentitzen naz. Esan ere egiten neutson neure buruari: «Ni neu ere, nazan zahar eta guzti, oraindik banok zeozetarako lain».*

– *Zeozetarako baino gehiago, Joxemiel. Nok jakin hirugarren bizitzaldi honetan Jainkoak zer daukatzun gordeta! Orain artekoa ondo joan al jatzu?*

– *Ondo baino hobeto! Banenbilen lagunarteko batzarretan, eta bigarren urtean izango zan, harako Jesusen parabolea entzun neban: «UGAZABAK PLAZAN EGONEAN GIZON ALDRA BAT AURKITU EBALA ETA BERE MAHASTIRA BIALDU EBAZALA LANERA. HIRUGARREN ORDUAN, AZKENALDERA ERE AURKITU EBAZALA BESTE BATZUK, NOK DEITUKO ZAIN. ETA HAREEK ERE BIALDU EBAZALA KONDIZINO BARDINETAN. ORDAINTZERAKOAN, AZKENENGOETATIK HASI ZALA UGAZABA. ORDUAN BIZTU JATAN ARGIA: “NEU NOK KUADRILA HONETAKOA”».*

– *Kondizino onetan sartu zara Jesus Jaunaren mahastian lanera.*

– *Hauxe beharleku zoragarria! Hau jakinda, zelan ez dira gehiago sartzen? Neure antzera, entzun bai sarritan, baina konbitea norberetzat danik konturatu ez. Balekie, jakin! Orduan bai Bizian Gora benetan gora joango litzatekela!*

– *Eta Jesusen mahastiko lanari zer deritxozu?*

- *Zer deritxodan? Ez dago barbarik hau zer dan esatekorik. Nekea barik, poza da; abildadea barik, bihotz zabaltasuna da; indarraren puruz barik, Espirituaren laguntzaz da. Eta soldatea, barriz, neurribakoa: barruko poza, lagunarte baketsua, esperientzi asegarriak.*
- *Bai, Joxemiel, zuzen zagoz erregalu dala esatean; hau ez dau inok merezi, hau ez da indarrez edo bestela lortuten; hau Jaunak Berak nahi dauanari emon egiten deutso.*
- *Banengoan, ba, soldata hau nire lanari zor jakona baino askoz ederragoa dala!*
- *Eta mahastiari zer deritxozu?*
- *Hori beste bat: Bizitza guztian kristau bizitzan jardun eta jardun, eta konturatu ez geugan dogula landu beharreko mahastirik ederrena. Hauxe bai dala «kristau lez jubilatzea». Zer lan ederragorik norbere burua landutea baino?*
- *Baina soldata hori jasota, eskerronez bada ere, zeozetan sartuko zinan honezkero, Joxemiel.*
- *Hori zer esanik ere ez. Neure alkarteko batzarretatik gainera, parrokiako hainbeste zereginetan arduradun naz. Lehenengotan esan neutsan parrokiako arduradunari: «JAUNA, NI JOXEMIEL NAZ; ZEZETARAKO BEHAR BANOZU, HAUXE DA NIRE TELEFONOA».*

Hau irakurrita, zer sentitzen dozu, adiskide? Asmaki-zunak dirala? Neuk dinotsut ezetz, eta oraindik irakurri behar dozuzanak! Joxemielek lez, zeuk ere aproba egizu eta gero esan. Kristau esperientzi ba-

rriak emoten dauan pozaren antzekorik ikusten al dozu domekeroko mezatan? Eta eguneroko zure erreduetan bai? Ez al dozu gaurko Joxemielen deia zeuretzat hartu? Joxemiel, behintzat, pozago bizi zan Jaunaren «mahastira» sartu zanean, hara sartu aurretik baino.

### JAUNAREN BERBEA:

«Zoaze zuek ere nire mahastira»

(Mt 20, 1-16)

### OTOITZA:

Gizakiaren Egile eta Aita zaitugun Jaungoikoa: Zeure antzeko egin gaituzu, eta Zeugaz alkarlanerako dei egiten deuskuzu, geugan eta munduan bizia landu eta ederragotzen jarduteko. Dana egin dozu geure onerako. Ez daigula alperrik jaso zure deia; zirikatu egizu, arren, gure bihotz-hondoa, zure konbitea onartu daigun, eta azkene-ra arte zure «mahastiko» langile zintzo izan gaitezan.

## GURE AMAMA KATEKISTA SARTU DA



*Nahi dauanak abal dau,  
abal dauanak nabi baleu...*

Gure Euskalerriko Gotzainak kezka agertzen jakuz azken aldiko Pastoral Idazkietan. Orain hiru urte honako hau argitaratu euskuen: «*Zelan transmititu sinismena*». Hau ez da «misino santuak» hasten dirala ta, kanpaiak jota eleizak betetzea; gehiago emoten dau, sute kiskalgarriren baten aurrean jotzen dan kanpai dei larria. Gizaldi askotan kristaudiak jasotako gaztelua sutan haustuten dago, antza. Eleiz bizitzak ardu- ra izpirik emoten deuskuenoi dardar eragiten deusku, zer ikusiko bildurrez. Eleizeak bere XXI. gizaldietan zehar krisialdi gogorak izan ditu eta danetatik aurre- ra urten dau. Gaurko hau, ostera, berebizikoa da, oinarrietan ikutu deutson krisia. Antza danez, hola- koren bat beharko zan, gu itzartu eta bide barriak hartzen hasteko. Bestelan, nok atera gure burdia bere betiko lorratzetatik, edo ardatzeraino hondatutako lupetzetatik? Halan eta guztiz ere, begira han-hemen agiri diran bizi barriaren kimu samurrak; hainbesteren artean bat hartuko dogu gaur gogotan: *Laikoen pro- tagonismoa Eleiz bizitzan*. Orain arte gizaldi askotan egonean egon diran laiko kristinauak hasi dira mogi- tzen. Vatikanoko II. Kontzilioak edegi deutsez atea. Azken urteotan gure inguruan nabari da laikoen erronka sendoa: gu ere santutasunera deituak gara, gu ere Eleizgintzan ekintzaile eta arduradun gara. Orandik tirabira askoren artean emoten doaz lehe- nengo pausoak: lehen seminarioetan abadegaiak egi- ten ebezan teologi eta Eskritura Santuko ikasketak gaur laikoak ere egiten dihardue. Are gehiago: maila eta era askotako laikoen eleiz mogimentuak sortu eta indarrean jarri dira. Edadetuak ere ez dagoz begira.

Hor dozu Bizian gora: 1952. urtean Parisen sortua eta gaur egun mundu guztira zabaldua. Gure artean 1997. urtera sartu zan. Hor dabilzan adinekoak dira nik ezagutu eta liburu honetako orrietara ekarri dodazan «txiki haundiak»: Berez gizarteko txikiak izanik, eskola bidean abarketa gitxi gastatutakoak, herri eta eleiz bizitzan ezezagunak edo pilokoak gaur arte; eta gaur hor jabiltzuz, konplexu barik, arpegi emoten, bai eleiz arloetan, bai gizarteko esparru batzuetan, Jainko Erreinuaren alde jokutzen.

Hainbeste testigu txiki baina biziak ezagutzen dodaz, behar bada askorentzat deus balio ez dabenak, leku askotan aintzat hartzen ez dabezanak; baina Ebanjelioko alarguntxoaren antzera, beste haundi usteko askok baino gehiago egiten diharduenak Jaunaren aurrean. Esaterako gaur aurrera dakartsudan hau.

Begoña 70 urtetik gorako baserri amama maitagarri bat da. Beti izan da jainkozale bizia; eta Bizian Gora bidez hurreragotik ezagutu dauan Jesus Jaunagaz maiteminduta bizi jatzu.

- **Bazabiltz orain ere zu, Begoña, zeure arloan. Hori txita aldra polita daukazuna! Nundik norakoak dozuz?**
- **Neu ere, daukadazan urteokaz, katekista bihurtu naz. Gure parroki txiki honetan ez egoan katekistarik. Ama gazte batzuk prest egozan, baina ume txikiakaz kati-gatuta eta ezin askatu. Euren ordeztu eta dotrina denporan nok zaindu balego, orduan bai. Hori jakin nebanean, ezin izan neban lorik hartu gau batzuetan.**

- **Eta noiz eta zelan sosegatu zinan? Korapilo hori askatu zan ala?**
- **Bai, Jaunak argituta, neu prestatu nintzan bost ume txikitxoentzat amama katekista izateko. Eta harrezkero, badira 16 urte ezin gara alkarregaz aspertu, ez umeak eta ez neu eurakaz. Nire poza eurakaz batera olgetan eta errezatzen, Jesusen eta Mariaren izenak kantatzen eta alkarregaz dantzatzen gabiltzanean! Lehenengo jaunartzetan neu behar izaten nabe ondoan.**
- **Honezkero, a zelako lore txorta ederra eukiko dozun argazkitan hartuta, eta batez ere zeure bihotz hondoan! Hori da gogoa sinismena ume eta gazteakana transmititzeko gogoa! Letraz barik, maitasunez ezartzen deutzue zeuk hor barruan dozun Jesusenganako maitasuna. Hori eginda gero, Jesusen aurrean izango dozu zer esanik.**
- **Zer esana baino gehiago, eskerrak emon beharra. Ni atso zahartxo bat izanik, zelan lortu ahal izan dodan gure parroki txikian katekista izatea.**
- **Zure zerbitzu eder hori prestatu behar dozunerako zelan atonduten zara?**
- **Ez dot libururik erabilten; goizeko otoitzean horixe izaten da nire otoitzaldia Jesusen aurrean, txikien alde banan-banan egiten deutzot otoitz, Berak zaindu dagizan; eta beste barik, pozik joaten naz euren artera. Ziur nago, nik euren bihotz samurretan ereiten dodan hazitxoa egunen baten erneko dala eta emongo daua-la frutua.**

**– Eskerrik asko, Begoña, emon deuskuzun testigantza horigaitik.**

Nik neuk erakutsi hauxe atera dot: Jesus asko maite danean, zetan edo hatan zirt edo zart egiten dala. Jakitea eta edadea baino gehiago da maitasuna. Maitasunak laster asmatzen ditu bide barriak eta, batez ere, laster ipinten ditu martxan eskuak eta oinak. Zorionak eta eskerrik asko, barriren barri!

Oraindik asko ez dala, Joan Paulo Aita Santuak adineko bere anai-arreboi inoskun: *«Nagusiak, bizitzatik jaso daben jakituriaren bidez, aparteko grazialdian sartzen dira, Jaungoikoagaz hartuemonean sartzeko inoiz ezlango aukerak daukez. Hortik espirituzko indar barriak ateraten dabez, besteen onerako ipini behar dabezanak, euren azken etapa hau Jainko Aitari oparitzat eskeiniatz»*. Irakurle zintzo, guzti hau irakurritakoan, zer pentsatzen gelditu zara? Huskeriak dirala? Egoera hau konpontzeko langile egokiagoak behar dirala? Zure ustez, ze egokitasun eskatuko zeuskio Jaunaren izenean zerbidu nahi dauanari? Zuk zeuk ere, gitxien uste ez dozun dohairren bat badozu, oraindik estreinatu barik. Begoñak jarri dau berea, zuk zergaitik ez zeurea?

**JAUNAREN BERBEA:**

**«Benetan dinotsuet: Alargun behartsu honek beste guztiak baino gehiago bota dau kutxara»**

(Mk 12, 41-44)

**OTOITZA:**

Gizakia mundua hobeagotzen lankide hartzen dozun Jainko Jauna: Eskerronez hartzen doguz Zugandiko dohaiak, eta euron bidez lanerako egiten deuskuzun deia. Gitxi zein asko, dogun guztia Zugandik hartua dogu geure eta urkoaren laguntzarako. Zeure Espirituz argitu gaizuz eta zabaldu gure bihotzak, gudan ixuri dozuzan dohaiok emonkorrak izan daitezcan frutu on ugariz. Onartu egizu, gure zerbitzu apalei esker, gaixo eta behartsuakandik dokizun esker onezko oparia.



## 25

## NI LEHEN LOTAN NENGOAN



*Begiak argi, baina bihotza lo;  
noiz itzartuko haz, kokolo?*

Tximinoa ei da gure asaba zaharrenaren aurreko mai-lea. Gizaldiak gizaldi, tximino-arrastoren batzuk aldean daroaguz, antza. Horretariko bat baebilen erre-kasto baten gaineko zugatz adarrean bereak egiten. Halakoren baten, nun ikusten dauan errekastoko uretan arrankari bat hara-honaka bixkor. Tximinoak bere artean badino: «Hori itolarrian dabil». Zapart egin uretara, harrapatzen dau arrankaria eta ur-ertzeko bedar gainean izten dau, bere ustez, salbau daualakoa. Salto batzuk emon ondoren, ez jako, ba, arrankaria bertan hil! Ondobeharrez, halako zoritxarra! Izaki bakotxak beragan daroa zor jakon betebeharreko bizi-legea. Handik kanpo urteten badau, bere narrutik ordainduko dau. Gizakia da bakarrik beretik edo inorenetik aukeratu eta erabili leikena; hortik dator giza-ki askok piztikeriak egitea: txakurkeri, astakeri, txarrikeri... bere portaeraz zeinengana gehien hurreratzen dan ikusita. Giza-zentzunez gainera, Espirituaren argiz orniduta badago, haren ikuspegia bestelakoa da: fededun ala fedebako izan, ez da bardin, gauzak baloratzeko eta aukeratzeko orduan. Joan Paulo II.a Aita Santuak adinekoei dinotsenez: «Hirugarren adinean sartzea pribilejio lez hartu behar dozue; ez bakarrik adin horretara heldu zareelako; batez ere, bizitzaldi hauxe dalako: joandako bizitza osoari hobeto begiratzeko, Jesusen Pazku misterioaz sakonago hausnartzeko eta Jainko Herri osoarentzat eredu izateko».

Hemen jatorku gaur Garbiñe. Nik herri txiki bateko edadetuen kristau alkarte baten ezagutu neban. Behin kotxean batzar batera alkarregaz joatea suertatu jakun. Ordukóa da autu-mautu hau:

- **Aspaldion umoretsu zabiltz, Garbiñe. Badirudi loteriren bat jausi jatzula.**
- **Izan ere, horixe jazo jat; sekulako loteria jausi jat eta neuk merezi barik. Oraintxe bai ziur nagoala, Jaungoikoa dabilela nire bizitzako gora beheren artean. Hau ez dot truke egiten, ezta mundu osoagaitik ere!**
- **Ez dakizu zenbat poztuten nazan, zu holan ikusita!**
- **Ni orain arte lotan bizi izan naz. Gauzak entzun eta ikusi bai, baina zer diranik, usainik hartu ere ez. Oraintxe noa itzartuten. Ez dakit zelan, baina barrutik Jaunak aldatu egin nau; neuk indarrrik egin barik noa, beste bide barri baten sartzen. Oraintsu arte nire helburua hauxe izan da: behar eta behar egin, sarritan zapatu-domekaz ere bardin. Dirua, dirua eta dirua, besterik ez egoan nire gogoan. Hori izan da nire Jaungoikoa.**
- **Eta zelan heldu zara gaur bizi zaran maila zoragarri horretara?**
- **Jainkoak Berak bakarrik daki. Bera izan da ni birsortu nauana. Behin banengoan otoitzaldi baten, eta biztu jatan barruko argi bizi bat, eta neure izen eta guzti entzun neban: «Garbiñe, zeuri dinotsut: noiz arte egon behar dozu lotan? Ez al zara konturatzen hemen naukazula itxoiten, zeu noiz itzartuko zain?» Orduan, orduan hasi nintzan entzuten eta Jaunari erantzuten; orduan hasi nintzan dana beste modu baten ikusten. Eskerrak Espiritu Santuari, nigan egin dauan danagaitik!**

Harrezkero, Garbiñe hor jabiltzu gelditu barik, beragan hain goxoro bizi dauan fede esperientzia pozgarria zabaltzen, ahal dauan guztian on egiten, batez ere, zahar eta gaixoen artean. Lotsa barik autortzen dau Jaunak beragan egin dauan maitasun-miraria. Ez al deutsu, lagun, honek barrua biztuten eta antzeko grazia Jaunari eskatzera eragiten? Hau bai dala betetzea, ez sakela edo sabela, bihotz-hondoa baino. Kristau bizitza ederra da, betegarria da, baina behar dan lez bizitzekotan. Zer deritxazu: esperientzi hau danontzako ete da?

#### **JAUNAREN BERBEA:**

«Itzarrrik egon, ba, eguna eta ordua ez-ezagunak dozuez eta»

(Mt 25, 1-13)

#### **OTOITZA:**

Zeure antzeko seme-alaba sortu gaituzu Jaungoiko Aita ona. Ez dogu berbarik gure eskerrona Zuri agertzeko. Zuk eza-gutzera emon deuskuzun Jesusi jarraitu nahi deutsogu, erbesteko mila arrisku artean. Itzartu gaizuz eta argitu gure bihotzeko begiak, beti zure gogoko bideetatik ibili gaitzean.

## 26

## KAPAR OKUPA ETXEKO LAGUN



***Ezinaren kontra ostiko,  
alperrik babil, tontolapiko!***

Gaur danetarako daukaguz moda, lege eta arauak: janzkerak erabilteko, ezkontzeko, jaunartzeko... hiltzeko izan ezik. Hor ere, «Azken sakramentuak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartuta» eta antzeko ipinkiak sartzen ahaleginduten da jentea. Kontua zera da: modaz moduz ibiltea. Eta moda kontu hori ere nok eta zergaitik aldatzen ete dau? Eta zelako gastuak eta estularriak modara moldatu ezinik! Horregaitik gero eta gitxiago dozuz euren buruagaz eta bizimoduagaz konforme dagozanak. Beti beste norbaiti begira, haren antza hartu nahirik. Nazan modukoa izan nahi ez, eta ez nazan modukoa ezin izan! Hau aldrebeskeria! Badira banaka bat azaletik dirana onartzen dabenak, eta izakeraz euren ohitura etabar aldatzen ahaleginduten diranak. Baina lehenengo pausoa zera da: Bizitzak ekarri deutsoenaz ados jartzea. Norbere buruaz eta bizitzeaz adiskidetzeari, norbere barruan bakez eta pozez egonaz. Joan XXIII.ak irribarrez esan ohi eban: «Ez daukat neure burua engainatu beharrik; alperrik dira ametsak; neure zahartzaroaz eta azkenagaz adiskidetzen noa. Eta honek ez nau gixajotuten, konfiantzaz betetzen baino, lan egiteko eta zerbitzeko adoretuz: gogoz betetik zain bizi lanean». Eta hau zan bere oinarrizko jokabide bat: «Dana begiratu, asko disimulatu eta ahal diranak aldatu». Hamaika xeibrekeri esan eban han-hemen, bere buruaren kontura barre eginaz eta eraginaz. Ha zan gizon alaia eta bihotz zabala!

Holan dala; norberak hezi eta baretu behar dau norbere barrua; norbera da osagilerik onena, esan ohi danez. Eta hau ikasteko, ez dago ikasketa luzeak egin

beharrik, norbere narrutik ikasten da, edo ikasi barik joan behar mundutik. Kristau alkarteetan bizibarritzen diharduen nagusien artean, zenbat holako erakutsi eder jaso dodan! Gaur Joxtomingo lagunarena aukeratu dot. Beste edozeinek lez, bizitzan zehar hartzamarkada askoren arrastoak gelditu jakoz, baina danak ondo osatuta. Bere bizitzako gora beherak, mingarrienak ere, zapuztu barik, inori errurik bota barik, kontatu eustazan:

- **Hori da adorea, Joxtomingo! Zenbat ikasi dozun bizitzako eskolan!**
- **Bai, danetatik jausi jat; bizitza bera da maisurik onena, norbera ikasle ona izan ezker. Hemen ez dau balio piper edo sasi egiterik; egiten dauanak narrutik ordainduko dau.**
- **Antza hartzen deusudanez, Joxtomingo, ez jatzu gelditu ondo beratu eta egosi bako ogikozkorrik.**
- **Horixe da gauza bat neure amagandik ondo ikasi nebana: gorputzean sartzen diran arantzak baizen laster eta kontuz atera behar dirala bihotzean sartzen diranak ere. A zelako bakea eta nasaitasuna emoten deusodan neure buruari!**
- **Nun ikasi dozu eskolamodu hori, Joxtomingo?**
- **Esaten deusudan lez, amagandik jaso neban eskola hori, eta gitxi-asko beti beteten ahalegindu izan naz. Baina azken sei urteotan Bizian Gora izan dot bigarren eskola ederra; hor sakondu eta neugandu dot espe-rientzi hori, beste askoren artean. Amaren erakutsien**

**ondoan, Jesus Kurutzekoaren ispilua erabili dot holako arazoan aurrean zer egin jakiteko.**

- **Kotxea gidatzeko baimen txartela eskuratzea ez da erreza izaten; baina norbere burua holan hezi eta kontrolatzeko txartela...**
- **Holan da, bai, adiskide. Neuri ere gehien kostatzen jatana horixe da: Bizitzako bihurtunetan behar dan lez jokatzea. Baina gaur egun arin jabetuten naz edozein egoereaz, eta laster baten kontrolatzen dot neure burua.**
- **Bai, bai, igerri deusut, Joxtomingo. Emongo al deus-tazu kontseju antzeko bat, geure lagunartean mese-degarri izango jaku ta.**
- **Hara, badakizu zer dan KAPARREA, geure narrupean sartu eta haginka egiten deuskun zomorro txiki hori? Geuk ez dakigula –zizt eta zazt– gure buru ta bihotz osoan beraganduten gaitu. Zeozetan jardunaz, beragaz ahaztuten bagara, barrero ere bere ezten zorrotzagaz beraganduten gaitu. «KAPAR OKUPA» deitzen deusat nik, berea ez dan etxean sartu eta, beste barik, beragaz jabetu egiten da; eta gainera gogor egin, bere ESKUBIDEAK zainduz. Gaixotasuna, zahartzarora, gogoko ez jakun beste edozer da «kapar okupa» antzeko bat: beti bera gogoan dogula bizi behar, lagunartean ere beti bera ahotan hartu behar; etxe eta kale geure gaixoa eta zoritxarra gora eta behera.**
- **Hori da jakituria, Joxtomingo! Hori da norbere arerioak menpean hartzea, euren lekuan lotuta lez eukitea!**

**Zure ustez, fede esperientziak badau zerikusirik jokabide honetan?**

- **Bai horixe! Nire kasuan bai behintzat! KAPAR OKUPA horren eztenkadak sentitzean, barrurago dodan Lagunagaz bat egiten dot, eta bion artean menperatuko ez dogun kapar okuparik ez dago.**
- **Ikusten danez, zu ez zara hasarretzen kapar okupa horregaz; etxekotzat hartzen dozu, baina etxeko jabe izaten itzi barik. Beragaz etxean bizitzen ohitu zara, bakea eta bizitzeko gogoia galdu barik.**

Autorpen eder hau entzunda, besarkada bero bat luzatu neutson Joxtomingori, zorionak opatuz. Zeuk esango deustazu, adiskide: Holako gizon batek ez al ditu merezi zorionik eta txalorik beroenak? Egin al dozu holako esperientzirik? Zenbat ikasten dan bizitza barruan, zuhur eta argi ibili ezkerok! Zuk ez al dozu zeugan katigatzen zaituan kapar okuparik? Joxtomingok emon deuskun erakutsiak balio leikela uste al dozu? Jainkogazko esperientziak asko esan gura dau, batez ere, esperientzi hori Kurutzeko Jesusen oinetan indarbarritzen bada.

### **JAUNAREN BERBEA:**

«Gizon indartsu batek, armaturik, bere jauregia zaintzen dauan bitartean, seguru daukaz bere ondasunak»

(Lk 11, 17-23)

### **OTOITZA:**

Guri laguntzeko beti prest zagozan Jaungoiko Aita errukitsua! Ondo dakizu buztinez eginak gaituzula: makal, hauskor eta jauskor. Ez gaituzu arerioen menpe itzi; Jesus zure Semea bialdu deuskuzu eta Berak menperatu ditugure arerio guztiak. Bialdu egizu Espiritu Santua, bere graziaz sendoturik, geure buruaren jabe izan gaitезan, Zeu bihotz osoz maitatu ahal izateko.

## 27

## JESUS BERA BALITZ LEZ



*Egizu on, ez dakizula non*

Liburuko lehenengo orrietan baino ez, eta honezkerro eltxoren batek belarri bien erdian eztena sartu deutsu: «Jesusen esperientzia, Jainkoagaz topo egitea, Jainkoaren aurrez-aurre egotea...» halako berba poto-loak! Ez ete dira gehiago burutik eginda dagozalako, edo ikuturen bat daukelako? Ez ba! Nik liburuan aita-tzen dodazanak, buruan barik, bihotzaren erdian dagoz Jaunak ikututa. Halako harek esaten ebanez: «Hori dakianak daki, eta ez dakianak baleki!» Eleizeak bere otoitz-liburuan, Jesusen Bihotzaren eguneko goratzearrean dinosku: «*Ezin esan inok ahoz, idatziz ere ezin emon; gertatu jakonak daki Jesus maitatzea zer dan*». Jakina, horixe da esperientzia. Holako batek bere berarizko berbakerea dauka: «Hau neuri jazo jat; lehen halan bizi izan nintzan, gaur holan aurkitzen naz». Halan eta holan bien bitartean zeozer jazo da, pertsona goitik behera aldatu dauana. Eta ez bildurak, ez diruak, eta ez beste ezerk eraginda; Jaunaren Espirituaren artelana da. Fedearen esperientzia ez da egia argiaren argiz buruz halantxe dala ulertzea; Jainkoak Berak ezarri egiten dau bere irudia bihotz-maminean. Ez aurretik, ez ostetik ezin da berbaz dan bestekoa adierazo. Esperientzia bizi dabenak dinoskuena entzun eta balia bekigu argibide. Gaurko txanda Edurne amamarena da.

– *Badabil gure Edurne. Zelan doatzu, ba, jubiladutza? Aspertzeko asti barik, ezta?*

– *Hau beste martxa bat da. Nire bizitzan danetarik izan dot: sasijainkoz beterik euki dot bihotza urte askotan. Batez ere, diru-egarriak zikatu deustaz erraiak. Nire*

- etxean eta auzoan mari-matraka deitzen izan deuste. Bake-ordez, nahastea eta esamesa baino ez neban sortzen, neure barruan ere ez neukan besterik eta. Baina Jesusen errukia nigaz haundia izan da.*
- *Ikusten denez, zuk ondo igerri deutzazu zer dan Jesus barik eta Jesus lagun dala bizitzea.*
- *Nik horretan ez dot dudarik. Sarri entzun neban Jaunaren Berbea, baina entzungor egiten neutsan, ez neban izaten Berari entzuteko eta Beragaz egoteko astirik, ez gogorik. Gainerako errezu, meza eta sakramentuak ohiturazko betekizun batzuk baino ez ziran; nire bihotzean ez eusten eraginik egiten. Gaur ni harako ebanjelioko parableak dinoan lekuan aurkitzen naz: auzoko soloan altxorra, ondasundegia aurkitu dauan pertsona zoriontsua moduan.*
- *Nun edo zelan jakin dozu, ba, ezkutuko ondasun horren barri?*
- *Lagun batek deituta, halako otoitz alkarte baten sartu nintzan. Handik laster Bizian Gora ezagutu neban eta hemen bai harrapatu nauala Jesus Jaunak osoan bihotz eta buru! Beragan aurkitu dodanak mila bider gehiago balio dau, aurretiko ondasun eta gozamen guztiak baino. Harrezkero, Jesus da nire bizitzako ardatz nagusi: Bera barik ezer ere ez naz, hutsik nago; Beragaz, besterik ezer gitxi behar dot, zoriontsu bizitzeko.*
- *Edurne, esakera dan lez, bakotxa bere zoroak bizi dau; zure zoroa –hobeto, zoriona– Jesus da. Bizitza aldatu egin jatzula dinozu. Zetan igerten deutzazu?*

- *Hara: lehen ni diruak mobitzen ninduan; gaur diru eta inguruko morroixoei ez deutset jaramonik egiten. Osoan arduratuta nabil gaixo eta behartsuekaz. Euren artean nabilen denporan izaten dodaz Jesus Jaunagaz hartuemonik bizi eta pozgarrienak. Jesus Bera balitz lez joaten naiake laguntzera. Zelango pozik egoten nazan auzoko gaixo eta zahartxoei hazkazalak ebagiten, buru, oin eta gainerakoak garbitzen! Ezelango iguinik sentidu barik. Jesus Bera ikusten eta sentitzen dot eurengan. Bera balitzaz lez zerbitzen dodaz. Inguruko gaixoak eta zaharrak badakie, egunez nahiz gauetz, laguntzarik behar dabenean, nora jo. Neu ibiltzen naz eurak baino pozago. Gaixo eta zaharren egoitzetara ere astean hainbat bider joaten naz: euren kontuak entzun, ingurumarian pasealditxo bat emon eta otoitzalditxoak eurakaz eginaz.*
- *Edurne, hori da kolkokadea hustu deustazuna! Zuk daukazu betekadea! Jauna benetan eskuzabala izan da zugaz! Nun aurkitu leiteken benetako zorion-iturria! Besteak zoriontsu egiten ahaleginduz.*

Adiskide, ez al da hau Jaunari eskerrak emotekoa? Ba al dozu kristau bizitzak barruan daroan poz-iturri honen barririk? Gure Edurnek bere esperientziak kontatzean, ez dau harrokeri izpirik ere agertzen. Esperientziz daki berez zer dan eta Jaunak lagunduta noraino heldu leiteken. Ez al jatzu mundu barri horren egarririk sortzen? Nok ez dau nahi holako bihotz betekada bat? Nun bilatu? Nora jo? Edurnek erakutsi deusku bidea. Harrezkero hor jabiltzu erlea eztigintzan baino pozago. Sasijainko-kontua ere aita-

tu deusku. Holakorik gaur aintzat hartzen al da? Holako testigantzak entzunda, zelan sentitzen zara Jaunaren aurrean?

**JAUNAREN BERBEA:**

«Jaungoikoaren erregetzeaz, landan ezkutatua dagoan altxorraz lez jazoten da. Norbaitek aurkituten daualarik, barriro ezkutatu egiten dau, eta pozaren pozez joan, daukazan guztiak saldu, eta landa ha erosi egiten dau»

(Mt 13, 44-46)

**OTOITZA:**

Ondasun guztien sorburu eta itsaso zaitugun Jaungoikoa! Bedeinkatzen zaitugu Edurne eta antzeko txikiak zeure ondasunez asetzen dozuzalako. Erakutsi eiguzu guri ere gure ondasun-egarri hau aseko deuskun iturriko bidea. Askatu gaizuz sasijainkoetatik, Jainko Bakar horrentzat izan dedin gure bihotz osoa. Egizu egunen batez eta betiko zure zorion-itsasoan murgildu gaitetzala.

28

HORI BERAK DAKI



*Zorioneko andra-gizona,  
Jaunaren eskuetan dagona!*



Gizakia berez eta beti dabil segurantza bila. Alderdi guztietatik sentitzen da arerioz eta arriskuz inguraturta. Barrutik eta kanpotik zenbat ahalegin osagilerik onenak, jaunik indartsuenak inguratzeko, botikarik miragarrienak eskuratzeko! Santu-santak ere gorpuzteko atal edo gatx bakotxa osatzeko izendaturik daukaguz. Eta Ama Birjina eta Jesus Bera ere zetarako behar doguz, gure osasuna eta ondasunak zaintzeko eta gero zeruan sartzeko ez bada? Halan eta guztiz ere, gaur inoiz baino segurantza gitxiago dogu; laguntza baino kalte gehiago ekarri ete deuskuen, askoren ustez. Zer esanik ere ez, jente apal, behartsu eta baztertuen aldetik begiratuta. Zientzi eta teknika gehiago, baina erruki eta solidaritza gitxiago. Gure segurantza gogotan hartuta, Jainkoak Berak zer leku dauka gaur egun? Ikusten danez, eskale asko agertzen jakoz aurrean, bizitzako gora beherak geure erara ez bajatorkuz. Baina kontrako haizeak jotzen gaituanean, bai agudo kontu zorrotzak eskatu eta erru guztiak Berari bota! Ontzi eta tresna zaharrak konpontzen baserririk baseri ebiltzan konponarren pareko ipini ohi dogu. Eta horretarako ez bada, ez da baliogarri. Kontuak atera, mezak eta promesa gehienak ze asmoz egiten diran: eskerrak emoteko ala mesedeak eskatzeko? Eta, jakina, gizakien artean, zaharrak dauke segurantza gitxien, alde askotatik begiratuta. Eta Jaungoikoa behar ez dan moduan hartu eta erabilteko arrisku gehiago. Jesusen ebanjelioaren harira, Jaungoikoa ezagutu eta Beragana zabaldu danarentzat, guztiz bestelakoa da: Jesusen jarraitzaile izateak Jaungoiko Aitaren esanera jarten

gaitu, uste osoz geure burua eta bizitza bere eskuetan ipiniz.

Uste honetakoa dogu Pantxike, emakume txiki-haundia, agirian ikusten danez baino haundiagoa eta ederragoa bere izatez eta egitez. Bizian Gora bidean sartu eta denpora asko baino lehen hasi zan martxa bixkorrean. Arnas hartzeak nahiko zeregin emoten deutso, baina goi Arnasa dan Espirituak ezarri deutson bixkortasunak, a zelako abiadan jarri dauan! Bere bizitzako kaxa zaharretik ustekabeen ateraten deuskuzan pitxiak harrituta izten dabe bat. Ez, ezin da pertsona arpegiko begiz neurtu; ezin da gorpuzkeraz daukan itxuraz baloratu. Sarri agertzen jakuz begi-aurreko telebistan neska gazte lirainak, nok baino nok itxura-planta dotoreagoak erakutsiz. Ahal balitz holako erakusketaren bat antolatu aingeruen aurrean, bakotxaren barruko edertasunak agirian ipiniz... Orduan bai, gure aitita-amama asko, euren zimur eta guzti, jarri leitekezala danen aurretik. Miss mundo eta Miss Zeruko ez da, gero, bardin! Hemen esan leiteke harako Jesusen sententzia: *«Azkenengoak lehenen izango dira eta lehenengoak, azken»*. Goazen Pantxikegana, txiki haundien artean gaurko txandakoa bera da ta:

**– Egunon, Pantxike! Hain gaixo egonda, zelan ausartu zara Lurdesera hiru egunerako etorten?**

**– Ni etxean geldituta gehiago gaixotzen naz, kanpoan ibilita baino.**

- **Lurdesko Amak ez dau, gero, behar ez dan miraririk egiten.**
- **Ni ez nator mirari eske, nigan Jainkoak egin dituan mirariakaitik eskerrak emoten baino. (Eta mila pezetakoa eskeini eustan.)**
- **Eta hau zetarako eskeintzen dozu, ba? Zer eskatzen deutsazu?**
- **Behar dodana emon deistan.**
- **Eta zer da, zure ustez, zuk behar dozuna?**
- **Hori Berak daki nik baino hobeto.**
- **Eta kentzeko gatxik edo gaixorik?**
- **Bai, kendu deistala sobra daukadana.**
- **Eta sobra, zer dozu, ba, sobra zure bizitzan?**
- **Hori ere Berak daki nik baino hobeto.**
- **Pantxike, hori da daukazun bakea eta bizipoza! Zeure burua osorik Jaunaren eskuetan itzita, irabazi egin dozula emoten dozu.**
- **Irabaziko ez dot, ba? Ezinekoak ez dagoz nire eskuan; egonda ere, ez dakit zer komeni jatan une bakotxean. Nik baino hobeto ez ete daki Jaungoikoak? Eta ez ete nau Berak ni maiteago, nik neure burua baino? Lehengoan horixe entzun neban geure batzar baten, eta argi bizi bat biztu jatan barruan.**
- **Ederto, Pantxike! Ez dago, egon ere, hobeto zainduko zaituan esku hoberik. Eskerrak emon deioguzan Jaunari emon deutsun dohai baliotsu horigaitik.**

Ikusten, irakurle? Ez zeunke nahi zeuretzat ere hola-ko barru giro baketsu eta gozorik? Hori bai dala bihotz-hondoan bizi dan segurantzarik seguruen! Horrek ez ditu baztarten osagile, osakai eta osterantzeko giza-segurantzak; baina, horreek guztiok batera ere hurrik emoten ez deuten poza eta bakea darion zorion-iturria dabe borbor bihotz-hondoan, Jainkoaren presentziaren argitan bizi diranak. Zelan lortuten dabe presentzi zoragarri hori? Kontuz! Ez da lortuten, hartu egiten dau Jaunak maitasunez emoten deutsonak. Eta nok hartzen dauan? Kondiziotan jarten danari Jaunak ezarten deutso. Ze kondizino dira horreek? Pantxike txiki haundiak erakutsi deusku. Bere antzera, hutsik egon ezik, ez dago hartzerik, ez dago lekurik. Antz emon deutsozu zer dan txiki izateari? Eta txikienak zelan helduten diran haundienak izatera?

#### **JAUNAREN BERBEA:**

«Ez arduratu, bada, zer jango, zer edango, zer jantziko dozuen pentsatuz. Fedebakoak arduratu ohi dira guzti horreetaz; baina zeruko zuen Aitak badaki guzti horren beharra dozuena. Arduratu zaitzeze, batez ere, Jainkoaren erregetzaz eta Haren nahia betetzeaz, eta beste guzti hori gehigarritzat emongo deusue Jainkoak»

(Mt 6, 25-34)

**OTOITZA:**

Lurreko aita-ama guztien Aita-Ama zaran Jaungoikoa! Zure bihotzeko maitasun-printza bategaz giza-bihotzak maitasunez eta onguraz orniduten dozuz. Nok hurrik emon Zuk deuskuzun maitasunari? Eta zein gatx egiten jakun zure maitasun haundi horri gure bihotzetan leku emotea! Bialdu eiguzu zure Espiritua, guran Zuretzat bizileku egokia pres-tatu ahal deizun. Zeuk ikusten dozunez, emoiguzu behar doguna eta kendu sobra doguna. Zutaz fiatzen gara uste osoz, Aita zaitugu ta.

29

**URREZKO EZTEGUAK**



*Aititamamak ezteguetan,  
eta gainera urrezkuetan*

Eztegua beti da gozoa eta atsegina: bizia eta maitasuna ospatzen dira, giro alai baketsuan. Bizi-iturria bedeinkatzea baino ederragorik! Maitasuna ere helduten doan landarea da, bere sasoiari bizi-frutu ederak emonaz. Ohitura txalogarria da, benetan, maitasun-esperientzia hori zidarrez, urrez eta diamantezko diztiraz ospatzea. Zaharrago eta gozoago eta ederrago dira bizitza eta maitasuna, antza, arduaren antzera. Hainbeste urtetan mila eta bost gora beheren artean maitasun-buztarrian zoriontasunez irautea ez al da nahiko meritu urrezko koroiz omenduteko? Eta zer izango ete da, giza-maitasunez 50 urte horreetan alkarri lotuak bizi izan diran bikoteak fede-esperientziak ere umotuak egotea! Jainkoaren presentziak ez dau trabarik egiten, giza-heldutasun bidean. Lagundu bai, eta ez gitxi! Maitasun hutsa dan Jainkoak, Adan eta Eba sortu ebazanak, gizon-emakumeak alkar osotuz eta maitatuz, ugaritzen joan eitezala agindu eutsen; harrezkero, alkarrentzat izateko berba ederra alkarri emoterakoan, sakramentuz bedeinkatzen ditu. Zelan esan leiteke Jainko horrek traba egin deustela senar-emazteei maitasun bidean? Aita-amak, sortu daben frutua erdian dabela, ez al dira Jainko Hirukoitzaren munduko argazkirik beteena eta ederrera? Eta nundik sartu ete zan Eleizan pentsakera aldrebes hau: Benetan santutasuneko goi mailara joteko, ezkontza-bidea alde batera itzi eta birjindakoa hartzea dala onena? Onena zera izango da: bakotxari Jaunak emondako dohaiaren arabera jokatzea, eta Bera zerbitzeko asmoz bizitzea. Dinoenez, Pio X.a Aita Santuak, kargu haundi hori hartu eba-

nean, bere amari hatzamarreko eraztun diztiratsua erakutsiz, badinotso: «Begira, ama, hau bai ederra! Zer deritxazu?». Amak laster emon eutson erantzun betea, bere hatzamarreko ezkontz-eraztuna erakutsiz: «Hara, seme, zure amak hau bere hatzamarrean eroan ez baleu, zuk ez zenduan hori zeurean eroango». Nik gaur bikote bat dakartsut aurrera: Emilio eta Nekane. Jubilatuen kristau alkartean hainbeste urtetan biak batera ezagutu izan dodaz; eta ezkontzako urrezko ezteguak bete behar ebezala eta, eurakaz batera ospatzeko konbite egin eusten. Bai pozik ere!

Urrezko ospakizun hori prestatzerakoan aukera ederra izan neban, euren maitasunezko alkartean Jainkoak izan eban lekua eta emon eutsen laguntza gogoratzeko. Horra atal batzuk:

- **50 urte ezkondu zinela eta oraindik gaur ere dirudizue, egun batzuk barru, ezkonbarri izan behar dozuela. Agertzen dozuen pozak eta zoriontasunak holan adierazoten deust.**
- **Alperrik ibiliko zara gure poza neurtu gurarik, hau ulertzerik eta neurtzerik ez dago, norberak bizi ezik. Senar-emazteok alkar onartzen eta osotzen ahalegindu gara; baina gure artean beti izan dogu hirugarren bat, gu biokaz bat egin dauana, eta gure alkarbizitza osotu dauana: Jesus Gure Jauna.**
- **Hori da suertea, Emilio eta Nekane! Biok batera alkarren arteko maitasunean eta Jainkoagazko hartuemonetan! Hori da kristau ezkontzari Jaunak emoten deutson bedeinkapena. Ez dakie esperientzi honen**

**barri askorik, buztarria maitasun indarrez hartu eta eroan beharrean, arrastaka daren askok, edota buztartuta handik lasterrera bananduten diranak.**

- **Ez, hau berba hutsez agertu ezinekoa da, jarraitu eban Nekane begiak pozezko malkoz beterik. Asko lagundu deusku esperientzia honetan Bizian Gora alkarteko berotasunak. Beti maite izan dogun Jauna, hemen hobeto ezagutu dogu eta Beragaz hartuemon barriak egin doguz, barriak eta gozoagoak, senar-emazte biok batera. Arratsaldero, betiko ordu eta etxeko txoko gozo baten alkarturik, egiten dogu otoitzaldia, Ebanjelioa irakurriz edo salmoren bat kantatuz; gero bako txak isilean gogoeta hausnarrean jardunaz, Jesus Jaunaren irudia aurrean dogula. Egia esan, nahiago dogu bazkaria edo afaria itzi, otoitz ordu hau baino.**

- **Hori da bizi dozuen fede esperientziaren gozoa! Eskerrak Jaungoikoari!**

**Zorionak bihoz-bihotzez, Emilio eta Nekane, bizi dozuen esperientzia gozo beteagaitik! Jaunak bedeinkatu zaitez!**

Ni neu behintzat bihotz samurturik gelditu nintzan, Nekane eta Emilioren bizi eta fede esperientzia sakona jasotean. Ez bata, ez besteak ez euken nagirik, hain sakon bizi eben bizikizuna agertzeko. Barruan dagoanak berez eta pozik urteten dau azalera. Irakurle, zeu ere ahalegindu zaitez ahal dozun neurrian bikote honen fede esperientziari antz emoten, ia hurrik emoten deutsozun. Hori ikusita, zelan esan leiteke Jainkoak traba egiten dauala maitasun-bidean

gozatzeko? Zuk zer uste dozu? Senitartean holako nagusi bikotea izateak ba al dau eraginik ondorengo artean? Senar-emazteak biak batera, eta urteak joan ahala, holako fede esperientzia egitea, euskarri eta betegarri izan behar, nahitaez. Zuk zetan jarriko zeunke laguntza hori?

### **JAUNAREN BERBEA:**

**«Izan ere, nire izenean bi edo hiru lagun nunbait batzen badira, han nago ni euren erdian»**


(Mt 18, 19-20)

### **OTOITZA:**

Gurasoen guraso zaran Jaungoiko Aita-Ama maitagarria! Zu zara gure bizitzaren iturburu eta itsaso. Eskerrak, emon deuskuzuzan gurasoakaitik, eta euren bitartez emon deuskuzuzan bizitza eta sinismenagaitik! Egizuz zorionsu zeure ondoan. Eta zaindu eta gehitu egizu gugan eta gure ondorengoan hareek gugan ereindako hazia, Zu goratua izan zaitez gure senitarte osoan.

## 30

## KORUPETIK ALTARE ONDORA



***Jaungoikoa urrunago eta bildurgarriago,  
burrerago eta maitagarriago***

*«Begiak zabalik zituanarren, ez eban ezer ikusten.»* Holan dinosku Liburu Santuak, Paulori Jesus agertu jakonean. Gero, Ananiasek otoitz egin eta begietan ikutu eutsonean, ezkatak antzeko zer batzuk jausi ei jakozan eta ikusten hasi zan. Begietatik *ezkatak* baino gehiago, buru-bihotzetako *eskemak* jausi jakozan. Lehen gorrotogarri eta kondenagarri ikusten ebana, agertu jakonean, —Jesukristo Gure Jauna— maitagarri eta gurgarri bihurtu jakon. Paulorena goitik beherakoa izan zan, bat-baterakoa eta era batekoa. Gehienbaten ez da holan jazoten, apurka eta ibilian baino. Kontua zera da: Ikusmena aldatzen dan neurrian, aldatzen dala gizona bera ere. Jakina, hau ez da buruz ikustea, ulertzea; ez da giza-jakituriaren kontua. Ikuspegi barri honen hasiera bihotzean dago; orduan bakarrik aldatzen da gizona buruz eta bihotzez. Hortik sortzen da kristau-zentzuna, sarritan giza-jakituriaren kontrakoa, San Paulok geroago esango ebanez: *«Jaungoikoaren zorakeri dirudiana, gizonak baino jakintsuago da; eta Jaungoikoaren makaltasuna dirudiana, barriz, gizonak baino indartsuago»* (1Ko 1, 25).

Inor ez da bizikeraz erabat betiko aldatzen, bihotzeko jakituriz, hau da esperientziaz, askoz hobea dan zerbait aurkitu ez badau. Halako itsu batek bere esperientzia jakitera emoten eban lez: *«Lehen nik bista ona neukan, dana ondo ikusten neban, baina kanpotik; barrurako itsu nengoan. Orain, barriz, arpegiko begiak ilundu jataz, baina bihotzekoak argitu. Jesusek argitu nau. Egia dinotsut: Hau niretzat Jaunaren grazi haundi bat izan da»*. Itsu honek

lehengo eta oraingo esperientzia bikotxa dauka. Eta bata galdu eta bestea hartzea grazia haunditzat dauka. Zer ikusten ete dau orain, lehen ikusten ez ebanik? Honek ere Ebanjelioko altxorra aurkitu dau, antza, eta prest dago trukean dana jokatzeko.

Nik gaur aurrera dakartsudan fede-esperientzia askoz ere normalagoa da; antzekoren bat zeuk ere izango dozu, beharbada. Bizitza arruntaren barruan, kristau ikusmena aldatzen doan arabera, bizikerea ere aldatzen joaten da. Gure adiskide Bernardori jazo jakona. Hau beti izan da euskaldun langile amorratua, odol berokoa, eleiz arloan moltzokoa: domeketako meza-  
ra noizean behin huts eginaz, eta orduan ere korupeko ezkutu ilunean. Jubilatuen kristau alkartean sartu zan eta bera joan zan aldatzen, aldatzen. Entzun deiogun berari:

- **Bagara, adiskide Bernardo? Zelan gabiltz aspaldion? Atzera-aurrera askotxo darabilzu.**
- **Bai, lehen baino ere atzera-aurrera gehiago darabilt. Baina lehen baino pozago bizi naz, baketsuago. Bizian Gora horrek hautsak daukaz gero! Badaroadaz bertan 6 urte gitxienez, eta gero eta argiago ikusten dodaz gauzak. Behin baino gehiagotan egoten naz neurekautan esaten: Ni aldatu egin nok; ni ez nok lehengo.**
- **Zetan ikusten dozu gehien aldatu zarala?**
- **Hara, eleizan jazo jatana: Lehen ez nintzan domekero joaten; gaur ez dot hutsik egiten ezergaitik ere. Niretzat domekea egunik haundiena izatera bihurtu da. Lehen eleizako korupetik ez neban urtengo, beti**

**hantxe saguzaharrak lez erdilotan. Gero apurka urten neban ilunetatik eta eleiza erdira heldu nintzan; eta bigarren urterako, aurrerengo jesarlekura. Handik laster hasi nintzan eleiztarren dirua batzen eta beste zerbitzu txiki batzuk egiten.**

- **Ez bakarrik eleizan, etzekoen arteko hartuemonetan ere asko aldatu zarala dinoste. Lehen aginpidez goizetik hasita: ZER, OINDINO ERE LOTAN? GAUR HAU ETA HAU DAGOZ EGITEKO. Gaur egun, ostera, goizeko agurretik hasita: EGUNON JAINKOAK! GAUR ZER EGIN BEHAR DA?**
- **Neu ez naz horrenbestegaz konturatu; baina etzekoak badinoe, holan izango da. Baina, bai, etzeko ardurak eta joan-etorriak txandakoen eskuetara aldatu doguz eta gu orain beste karrera baten sartu gara: geure buruak pixka bat landuten; lagunartean egotaldi eta jaialdi batzuk prestatzen eta ospatzen.**
- **Jenteak ekingo deutsu, ba, narrua kenduten; ahal bada, bide horreek itzi daizuzan.**
- **Bai, baina nik narrua latza daukat hain errez kenduteko. Nik hau ez dot izten mundu osoa kontra jarrita ere. Beste asko ere sartuko litzatekez, baina jentearen esamesen bildur dira. Ez dakie asko zer galduten daben!**
- **Bernardo, eskerrak emoiozuz Jaunari, zugaz eskuzabal izan da ta. Zahartzarora arte zain euki dozu, Beragaz lagun egin zaitez.**

Hauxe dozu Bernardoren esperientzia. Etxekoak ere sinistu ezinik dagoz, zelan aldatu daiteken *etxeko jauna*, *etxeko zerbitzari*. Aitita goraldtu nahirik zer esan ere ez dakie. Esan ere egiten deuste: Ez dakizu zelako bakea ekarri dozun gurera! Ikusten, fede esperientzia bizitza barruan egin behar dala. Handik kanpora ez dau balio; ezta Ama Birjina agertu jatzula esaten badozu ere. Zer deritxazu barru eraginaren jokabide honi? Zuri kanpotik ala barrutik jatortzu fede bizitzarako dei eta eraginak? Txoriak ere ez daki zergaitik kantatzen dauan, barrutik sortzen jako kantatu beharra; bardin fededunari ere, barrutik jatorkon argiz eta indarrez bizi da.

**JAUNAREN BERBEA:**

«Begia dozu gorputzari argi egiten deutson kruseilua. Begia onik dozunean, zure gorputz osoa ere argitan dabil»

(Lk 11, 33-36)

**OTOITZA:**

Seme-alaba danok zeure ondoan zoriontsu ikusi nahi gaituzun Aita zintzoa! Mundu hobea egin ahal dozu, baina ez gugaitik egin dozun baino gehiago. Jesus zeure Semea emoterainoko maitasuna agertu deuskuzu. Horregaitik zure erruki haundian oinarritzen da gure salbamen itxaropena, ez gure irabazietan. Arren, guban hasi dozun errukizko egintza eder hori, Zeuk eroan bere betera.

# 31

## AZKEN ESPRINA JOTEN



***Bide guztian txirrindulari fina,  
eta azkenean esprina***



Gizakia jaioten danetik doa hazten; bai gorputzez eta bai zentzunez aldatzen doa. Berez da aldakorra, baina bizitzak eraginda ere, aldatu beharra sortzen jako sarritan. Jausi-jagika doa aldatzen, esperientziaz ikasten. Gehienbaten holan da, gauza baten izan ezik: Kristautasunean. Dotrina-katekesiak umetan hartzen dira, otoitz errezuren batzuk buruz ere ikasten. Gaztetan Sendotza dala ta, ekitaldixoren batzuk egiten dira, aldez edo moldez. Eta handik aurrera argi eta urbako basamortu luzea: ohiturazko eta legezko kristau bizikera, pulamentu gitxiko eta azalezko kristautasuna. Bizitzako beste alderdi guztietarako joango da prestatzen, baina kristau dan aldetik ez dau sentitzen prestatu beharrik, umearokoari jarraitu eta nahiko. Bizi-legez, urteak aurrerago eta beharrian gehiago sentidu beharrian, gero eta gitxiago. Eta, jakina, praka motxetan gelditzen dan kontzientzia da; eta ezin erantzun nagusi heldu baten bizitzako arazo eta erronka latzei. Zein gitxi diran, urteak joan ahala, kristau esperientziaz ere helduten doazenak! Hagaitik fede-bizitzako arazoetan eta Jainkoagazko hartue-monetan ez dauke erantzunik, ez erantzunkizunik, ez euren buruarentzat, ez inorentzat. Ez buruz dotrinarik, ez bihotzez esperientziarik. Bizi beharrak aldatu beharra ekarri deutse gauza askotan. Abadearen aurrean txapela kenduta, «egunon» esaten jakon azken eguna noiz izan ete da? Dantza lotua pekatua eta soinua inpernuko auspoa zaneke denporetako orbelak aspaldiko mendebalak eroan ebazan! Gaztedia Abemarietarako erretiratzen zan aldikoak edo... «Abadeak esan dauala ta» hau edo hori egin

beharrak ez deutso inori estularririk emoten. Gaur ez dago holako konturik. Gaur norberak bilatu behar dau bidea, norberak argitu behar dau norbere barrua; fede-esperientzia pertsonala eginaz.

Fede bizitzako esperientzia gaur eta hemen egin beharra, guztiok gainean dogun konpromisoa da. Eginbehar honek edadetuok ere harrapatzen gaitu, eleizgizonak eta erlijioso-monjak ere bai. Biziaro baktxean gizakia ikuspegi barri bat hartzen doa, eta kristau eraz bizi nahi badau, maila bardineko fede-esperientzia egitera behartua dago. Holan dala, edadeko batek inok baino beharrian haundiagoa dau, fede-esperientzia barri bat egiteko. Lehengotik gaurkora alde ikaragarria ikusten dau, bere burua ere makalago eta bakarrago sentitzen daualako. Etxean eta Eleizan ere inungo laguntza barik sentitzen da. Askoren ustez, zaharrentzat hobe da dagozan lozorroan bakez hiltzen iztea. Ez horixe! Hainbeste urtez bizi izan daben fede-esperientzia baketsu eta gozoa garratzu jakela ta, orain, gehien behar dabenean, bertan behera bihotz-minez hiltzen itzi? Ez al da hau espi-ritualki eutanasia antzeko zerbait erabiltea? Ez al da hobe —norbera euren artean jarrita— barriztatzeko aukera on bat eskeintzea? Beharbada, berau da, zahartzarora, izan leiteken bizitzako etaparik aproposena fede-esperientzia ederra egiteko. Holan autoritzen deusku Kalixto agure bedeinkatuak:

– **Aupa Kalixto! Bizitzako karrera zelan doa, ba?**

– **Hemengo aldazbeherea aldazgora suertatzen da; hemen ez dago gelditzerik. Aldazbehereak sarritan aldazgorak**

- baino neke gehiago emoten dau. Baina sekulako ekipoa aurkitu dot zorioneko Bizian Gora honetan!*
- *Ez da izango! Suertea izan dozu, orduan?*
  - *Bai, eta ez makala! Bizitzako karreran aurkitu leitekunik onena. Gero eta motelago ibiltzen hasita nengoan, ardurak eta joan-etorriak berez-berez izten. Baina mogimentu horretan sartu nintzanetik, sekulako martxa barrian nabil.*
  - *Zu gaztetan izen haundiko txirrindulari izana ei zara. Alderdi askotatik begiratuta. Hau ez al da antzeko zerbait?*
  - *Bai zera! Hemen belaunetako indarrak barik, barruko giro eta ahalmenak behar dira sendo. Gorputza beherrantza hasten bada ere, posible da bihotzez gorantza egitea. Ni neu, egia esan, gaur bizitzako bidean aurrerago eta pozago nabil, lehenago bixikleta karreran lehenengo lekuetan nenbilenean baino pozago.*
  - *Zuk lehengo txirrindulari-esperientzia aberatsa dozun ezkerro, zetan hartzen deutsezu alkarren antza?*
  - *Hara, gero eta gehiago begiratzen deutsot bizitzeari kirol alderditik: azkenera arte jokatu behar dala; bakotzak doguzala dohai pertsonalak, besteen alde jarteko; batzuen karrerako bidea luzeagoa dala, eta mugara heldu arte gogoz jardun beharra dauala, txapela irabazi nahi dauanak.*
  - *Askori arnaseak huts egiten deutse zahartzaroan, holako arazoetan sartzeko orduan, batez ere.*

- *Arnasea baino gehiago, gogo da. Hemen sartu ezkerro, bertan hartzen da arnasarik asko eta garbia; Espiritu Santua da karrera honetako arnas-emoile. Nik lehen bakarrik igon ezin nebazan bizitzako aldapak, errezago igoten dodaz gaur egun, Harek lagunduta.*
- *Lagunak txaloak ala adarra jotzen deutsue?*
- *Gehienak aintzat hartu ere ez; banaka batek adarra jo. Badira bide bardina hartu nahi leukenak ere, baina jentearen esamesen bildur dira. Hasi aurretik ez daki batek hau zer dan, ezta hurrik emotekorik ere.*
- *Holan dala, zu gero eta bixkorrago zoaz azken mugara.*
- *Bai, horixe da egia. Lehengo baten esaten neutson lagun bati: Txanton, ni bizitzako azken esprina jotzen hasi nok. Moteldu barik, bixkortu egin nok. Bizitzako karreran gehiago egin juat azken lau urteotan, enparau urte guztietan baino.*
- *Horixe jausi jat egoki: BIZITZAKO AZKEN ESPRINA. Hori da bizitzari zumua ateratea! Azkena noiz etorriko begira egon beharrean, azkeneraino Jainkoaren aurrean su ta gar jokatzen jarraitu!*

Lagun, hau bai dala zahartzaroa topera bizitzea! On eginaz eta ondo bizi. Zuk zer uste dozu? Jaunaren aurrerako nahiko egin dozula? Kalixtok eta lagunak autortzen dabenez, inoizkorik ondoen bizi dira orain. Ez al deutsezu sinisten? Ala Kurutzean gugaitik bizia emon ebanak, holako erantzun gozorik eta beterik ez al dau merezi?

**JAUNAREN BERBEA:**

«Kontuz, bada! Egon zoli, ordua noiz izango dan ez dakizue ta!»

(Mk 13, 33-37)

**OTOITZA:**

Gure bizitzaren Jaun eta Jabe bakarra zaran Jaungoikoa! Guk uste izan eta merezidu dogun baino gehiago luzatu deuskuzu bizia. Eskerrik haundiak Zuri! Egizu, arren, gure aldetik ere arduratu gaitetzala, Zu gure Jaun eta Jabe bakarra izan zaitezana, zure zerbitzuan bizitzako egun guztiak emonaz. Ez gaizuz zure Espirituaren laguntza barik itzi, Jesus Jaunari azken egunera arte jarraituz, hemengo bizi-errekastoa zure Etxean azkenbako itsasoan osotu eta betikotu dedin.

32

**LEHORREKO ARRANTZALEA**



*Daukanak ez daukanari,  
on eginaz opari*

Jaungoikoak bere antzeko egin dau gizakia, azken batean Beragan eta Beragaz betiko zoriontsu izateko; ez dau inor bizitzara sortu, betiko kondenatzeko. Hori, izatekotan ere, gizakiak berak, bere askatasuna behar ez dan moduan erabiltearren, izango da. Bidekurutzea honetan dago: bide okerretik jo ezker, Jainkoaren ordeztako sasijainkotxoak asmatu eta gurtzen dirala. Beste asko, oster, euren ezjakinean ere, Jainkoaren bila dabilzala: zenbat borondatezko ongile munduan, Jainkoagazko hartuemon jakin bat barik! Ez daigula ahaztu Espiritu Santua zabal dabilela munduan, eta gitxien uste dan lekuan sortzen dituala *«salbagileak»*, gizakiaren alde bizia emoteraino jokutzen dabenak. Hori bai gero: Jainkoa guk uste dogun baino gizakia-gandik hurrago bizi da, eta *«bereak»* egiten dihardu. Guk uste baino maiteago gaitu; hagaitik ez deusku emoten geuk nahi doguna, behar doguna baino. Hamaika liburu mardul idatzi dau gizakiak Jainkoari buruz, hamaika mila kilometro ibili da Haren bila! Gogoan dozu iretargira lehenengo igon eban gizonaren kukurrukua? *«Hemengo baztarretan ere ez da agiri Jainkorik, ez bere antzekorik.»* Ez horixe! Hemen, bere bizilekuan aurkitu ez dauanak, jai dauka iretargira joanda ere. Jainkoagaz norbere barruan topo egin ezik, inun ere ezin da aurkitu. Kristau herrian sarri erabili izan da San Agustinen autorpen eder hau: *«Zu burburrean zengozan nigandik, baina ni nengoan urrun Zugandik. Zu neure barruan zengozan, ni nengoan neure barrutik kanpo»*.

Holan dala, Jaungoikoaren bizileku berezia gizakiaren bihotza da. Ez zera! Aita-Ama dan Jaungoikoa

nun pozago eta hobeto seme-alaben ondoan baino! Eta zer? Hain gatx egiten jaku geure barruan sartu eta bizilagun honegaz topo egitea? Bestelan, aldrebeskeria negargarria litzateke maiteen gaituana geurean bizi eta gu inor bizi ez balitz lez ibiltea! Itxura danez, hori da egia: kristauen artean barruzale gitxi dagoa-la, kanpolore asko... Eta gaurko bizigirotan are gatxago egiten jaku barrua isildu eta etxeko Jaunagaz aurrez-aurre tratuan egotea. Halan eta guztiz ere, ezin dau gizakiak Jainko barik bizi: benetako Jainko bakarra ez bada, beste zerbait asmatuko dau, haren agindura makurtu eta bizitzeko.

Eta gure arteko kristau anai-arreba nagusiak zer? Umetan erakutsi eutsen Jaungoikoaren aginduetara ibiltzen ahalegindu dan jentea da. Baina trumoi arteko Jainkoa sinistu eta tximista zorrotzak Haren hasarreak erakusgarri diralakoan bizi izan diranak, oraindik Jainkoa etxeko Aita-Ama lez hartetik urrun sentitzen dira. A zer suertea, egun baten etxeko giltza Berari emon eta etxeko Jaun eta Jabe bakar lez hartzen daben aitita-amamak! Zakeori lez, Jauna etxean sartzeaz bat, sartu jake zorion betea. Hona hemen gaur Zelestino itxasgizona; badau zeresanik oraintsu hasita bizi dauan fede-esperientziaz:

- **Adiskide Zelestino, zuk agertzen dozu bizipoza! Klean ikusiaz beste barik, egunero arrantzu mardula egiten diharduzula dirudi.**
- **Bai, bai, horren antzekoren bat, kontizu. Zer gitxiago, nik daukadan suertea eukita? 14 urtetik hasita itsasoa izan da nire bizileku eta beharlekua. Hainbeste bider**

*galdu-gordean ibiltakoa naz, eta denporale gogorrei aurre egindakoa.*

- *Baina, dirudienez, Jaungoikoagaz beti zaindu dozuz hartuemon samurrak.*
- *Jaungoikoari Berari eskerrak, bizirik eta osorik urten dot itsasotik; handik lortu dodan irabaziaz familia eder bat hazi dot. Seme-alabak eta emazteak maite-maite nabe, neuk ere ezin gehiagoan maite dodaz. Nik beti izan dodaz batera bihotzean Jaungoikoa eta neure familia.*
- *Eta jubilatuta geroko urteotan, arrantzura joan beharrik ere ezta, zetan emoten dozuz orduak eta egunak?*
- *Zer dinozu, arrantzurik ez? Nik orain egiten dot arrantzurik ederrena lehorrean. Kontuak atera: Zorioneko Bizian Gora mogimentuan sartu nintzan eta itsaso barri bat aurkitu dot eta nahibeste arrain neure zain. Neuk uste baino lehen, argitzen joan da nire barrua Ebanjelioko argiz; nire fedeko janari espirituala balitz lez, Jaunaren Berbea jaten, oso-osoan neuganduten joan naz. Eta beti gogoko izan jatan Jesus Jauna, gaur egun nire Lagunik barrukoena eta maitagarriena da. Beragaz emoten dodaz egotaldirik gozoenak egunero; ibiltaria ere banaz, eta behin andreagaz eta behin bakarrik nabilenean, Jesus erdiko lagun izaten dogu, zelan edo halan Beragazko hartuemon a eginaz.*
- *Lagun, itsasoan hainbeste urte emon ondoren, hori da lehorrean aurkitu dozun aberastasuna!*

- *Eta onena ez deutsut esan: Behin ebanjelioa irakurten nengoala, San Pedro arrantzaleari Jesusek esandakoa neuretzat jaso neban: «GAURTIK AURRERA GIZA-ARRANTZALE IZANGO ZARA».*
- *Kontaiguzu, Zelestino, zure lehorreko arrantzuaren barri.*
- *Zera: Bizian Gora alkartea ugaritzen doa, hari eta honi deika eta konbite eginaz, gaur alkarte sendo bat gara, konfiantzazko eleiz ekipo on bat. Bai etxeetan eta bai gaixo eta zaharren egoitzan egunero nabil, beste lagun batzuekaz, Jesusen izenean laguntzen, euren egoerea gozitzen eta otoitzalditxoak eurakaz batera egiten. Parrokiako antolamentua geure gain hartuta daukagu. Gizon eta andra talde batek txitean-pitean hara edo hona joateko deiak jasoten doguz.*
- *Adiskide, zure moduko banaka bat nahiko dira herrian, eleiz sareak betetzeko.*

Mutilak, kontu honeek aintxinako gizaldietako kontu zaharrak dirudie. Neuk neure begiz ikusi eta neure belarriz entzungo ez banitu... Eta zeuri, lagun, kontu zaharrak iruditzen al jatzuz? Kontuok alde batera itzita, zeu sartuko bazina korronte horretan, urte bi baino lehen beste kontu bat esango zeunke. Ez dozu uste? Laiko ximple arrunt bat lehorreko arrantzale izateak kezkarik edo zer pentsatzekorik emoten al deutsu? Eta zure etxeke, egoitzetako eta jubilatuen arteko esparruetan nok egin behar dau arrantzale? Zelestinoren antzera, Pedroren izenaren lekuan zeure izena jartzeak bildur emoten al deutsu? Aproba egizu.

**JAUNAREN BERBEA:**

«Zatoze Neugaz eta giza arrantzale egingo zaituet»

(Mt 4, 18-22)

**OTOITZA:**

*Seme-alabon arduraz zaitugun Aita Jaungoikoa! Zuk asmo-rik ederrenak dozuz gu bakotxaren gain. Tamalgarria, hau ahaztuta, geure asmo eta bideekaz Zuri aurea hartzea! Izan gutaz erruki, eta irabazi dagiala gudan Zuk betidanik hartuta dozun asmo santuak. Egin bedi zure nahia zeruan bezela lurrean ere.*

# 33

## EGON ETA ITXARON



*Gizona ez bada hil,  
beti ibili dabil*

Bazebilen gizon bat Jainko bila: baztarrik baztar monastegiak bisitatuz, liburuak irakurriz, jakitunakin alkarrizketan, erlijinozko ospakizunetan parte hartuz... Baina dana alperrik. Halako batean, bere etxe ondoko erreka ertzean, gerizpean etzunda egoan: txori bikoteak txutxuputxuka eta kabiak egiten, arrankariak uretan gora eta behera, tximeletak eta erleak lorez-lore, kirkilak atari ertzean jo ta ke. Isiltasun eta bakardade zoragarri horren erdian gure gizon hori erdi ametsetan egoan: «*Hau bai zoragarria! Jainkoak honenbeste gauza eder egin ditu, eta danak hemen dibardue, bere izenean, neu poztu nahiez*». Eta hango soinu-hotsari berak ezarri eutsozan zizkion bihotz erdian sortutako berba ederrez, Jainkoa goraltzen jardun eban. Erromeri alai hau bukatzean, badino berekautan: «*Neu Jainko bila bazterrak arakatzen ibili nazanean, ezin izan dot Jaunagaz topo egin, eta hona, gelditu eta isildu nazanean, Jainkoak Berak topo egin ahal izan dau nigaz*».

Ez al da hauxe kristau jubilatutako askori jazoten jakona? Bizitzako urterik gehienak etenbako joan-etorrian emonda gero, zahartzarako isiltasun eta bakardadean Jaunagaz topo egiten dabe. Lehen eurak ebiltzan Jaunaren atzetik, baina prixaka eta asti barik, irristadako errezuen bidez, bizitzako mila arazoan artean, Jainkoari lekuri emon ezinik. Orain zahartzarako atsedendian, Jainkoari bizitzan eta bihotzean leku gehiago emonaz, beti euren ondoan egon Danak errezago Berak harrapatzen ditu. Moises handiari Jainkoak emondako agindua bete-bete datorkio kristau jubilatu bati: «*Prestatu zaitez, bihar goizean goiz Sinai*

*mendirira igoteko, eta itxaron egidazu han, tontorrean. Jauna hodei batean jatsi zan eta hantxe gelditu zan Moisesekin*» (Ur 34, 2-5). Mendi gainean, bizitzako mendi gailurrean, Jainkoagaz topo noiz egingo zain bizi danaren bizitza osoa jartzen da Hari begira. «*Itxaron egidazu, gelditu zaitez eta egon zaitez zain, zugaz egoteko eta adiskidetzeko egarritz nago*». Biblian jainkozale asko agertzen da mendi gainean Jainkoaren zain. Jesusen Ebanjelioko parabolako erregeak ezteguetara konbidatuak sentiduko gara. Umea argitara noiz ekarriko dagoan emakumearen antzera, Bizi barrira noiz aldatuko zain; Ebanjelioko senargaia noiz etorriko zain dagozanak lez, maitasun orio eta guzti.

Jakina, honetarako itxaropenez bizi behar da; eta zahartzarora da giza-itxaropenak desagertzen diran aldia. Baina kristau itxaropenaren aldi berezia da. Sinismena eta maitasuna asko erabilten dira gure artean, baina itxaropena gitxitan. Eta itxaropenak, txikiena izanik, berak eusten deute beste biei (Peguy); eta pazientziz, bizitzeko eta egiteko beste modu bat erakusten deusku: *Egon eta itxaron*. Baina, ziur egon; zu egon eta itxaron, etorriko da; Berak jarriko ditu topaketako leku eta ordua. Gugaz geldituko da eta here Izenez deituko deusgu, eta Berak guri gure izenez.

Harrigarritzko mundua badirudi ere, hau gure arteko anai-arreba apal eta ezezagunen artean jazoten da. Euren arteko bat dozu nire lagun Prudentzio agura bedeinkatua. Beti bizi izan da Jainkoaren presentziaren ezaugarri dan lainopean. Baina bizitzako mendi gainean zabalik eta zain egoten eta itxaroten jakin

dauan jainko-gizona da. Baserri bizita apalean familia ederra hazia. Agirikoa zan bere fede esperientzia sakona: bere herriko parrokian eta inguruko beste zazpitan abade-lagun egiten eban, ospakizunetarako behar ziran guztiak prestatuz eta ospatzen lagunduaz. Gaixoak bisitatzen eta eurei Gure Jauna eroaten aingeru bat zirudian. Benetako ebanjelizatzaile genduan Prudentzio; ezelako lotsa eta konplexu barik emoten eban testigantza ederra. Bizian Gora ezagutu eban, beragaz izan neban hartuemona ahaztu ezinaren zati bat dozu:

- ***Bagara, Prudentzio? Bizian Gora ongi etorri al jatzu?***
- ***Hauxe behar eban gorako bidean eusteko eta laguntzeko.***
- ***Zer egiten jatzu gogokoen zure fede bizitzan laguntzeko?***
- ***Jaunaren Berbea irakurri, hausnartu eta neuregandutea. Nik bizi izan dodana sendotu, argitu eta gehitu egin deust. Harrezkero Biblia da nire eguneroko bizigarria.***
- ***Otoitz egiteko ere asko lagundu deutsu, ezta?***
- ***Bai, hori batez ere: niretzat Jaunaren Berbea irakurtea otoitz egitea da; Harek jartzen nau Jaunagaz hartuemonean. Eguneror ordu bi emoten dodaz, Liburu santuan sartuta, erlea lore-kukuluan lez, ezti zumoa dastatzen.***
- ***Hori da suertea, Prudentzio! Hori da gozamina! Jaunari eskerrak emon deioguzan.***

Alkarrizketa beragaz izanda laster, gure Prudentzio gaixotu zan. Santa Marinako gaixoen artean ere ebanjelizatzaile jarraitu eban, gaixoekaz errezuak eginaz eta azken orduan lagunduaz, bedenkazino eta guzti. Adiskide, horrelako baten aurrean zelan sentitzen zara? Jainkozale goralgarri honeek gaurkoak eta gure tartekoak dozuz. Prudentzio lez, bizitzako mendi gainean Jaunagaz topo egiteko, *egoten eta itxaroten* jakin behar. Aproba egizu, merezi dau.

#### **JAUNAREN BERBEA:**

«Hauxe da nire Seme maitea, hauxe dot atsegin. Entzun Berari!»

(Mt 17, 1-9)

#### **OTOITZA:**

Seme-alabok zure adiskide izatera konbidatzen gaituzun Aita bihozbera! Sinistu ezinekoa da Zuk agertzen deuskuzun samurtasuna. Aukera guztien bila zabiltz, gugaz topo egin nahiez. Adineko anai-arreben alde eskatzen deutsugu: Bizitzako mendi gainean Zugana zabal gaitetzala, Jesus zure Semeagaz batera, gu ere zure seme-alaba garala entzun eta sentidu daigun.



## 34

«AITEAREN» EGINDA,  
HAZIA EREIN



*Zuk erein bazia,  
Jaunarena da grazia*

Hainbeste urte bizi ondoren, gure bizitzak atzera-karga handia dauka; eta hori ez da laguntza ona bizitzan aurrera errez egiteko. Okerrena zera da: atzera begiratzean, bizitzan dogunetik, zatirik kaltegarrienak, mingarrienak gogora ekartea; eta horrek, aurrera egiteko orduan, gogoa moteldu egiten deusku. Bizitzako mendi gailurretik beherantza begiratzekotan, Jaunari eskerrak emoteko izan behar dau, hainbeste arrisku-etatik onik atera gaitualako; horrez gainera, aurreko bizitzaldiak emondako erakutsiak jaso eta behar dan neurritz bizitzeko, ondorengo aldikadea hobeto egiteko: *aurreak erakusten dau atzea zelan dantzatu*. Holan dala, beti aurrera begira jokatu behar dogu, Jainkoa beti aurrean dago; Jesus aurretik joaku eta konbidatzen gaitu: *«Jarraitu Niri»*. Eta Espiritu Santua ere aurrera bultzaka dogu barrutik.

Aurrera begira, bai, baina bihar-etziko larregizko arduraz barik, gaurkoa bete ezinik itzi barik. Egun barriagaz batera, gaurkorako indarra eta arnasea emoten jaku bakarrik. Gainerako guztian San Paulorena: *«Nabikoa dozu nire grazia; makaltasunean agertzen da bete-betea nire indarra»* (2Ko 11, 9). Gaurko prixaz bizi eta ibili beharrak, mihina kanpoan dogula ibiltzera behartzen gaitu, ardura danak batera lepo gainean doguzala, diranak eta ez diranak. Norbere arazo pertsonalak asko dirala, aitita-amama askoren lepora datoz seme-alaben eta hiloben gora beherak ere. Orduan zer? Aintxinakoarena: *«Lau mando eta bost karga, bartutako lekuan deskarga»*. Gero eta eragin gehiago izan dagiala gudan Salmo honen espirituak: *«Nik, barriz, Jauna, Zugan dot uste*

ona. Zu zara nire Jainko, dinotsut. Zeure eskuetan dago nire zoria; askatu naizu aurrean narabilen are-rioakandik» (Sal 31, 15-16). Jo daigun gero eta gehi-ago dana Aitaren eskuetan iztera; kontrolak iztera; ez dakiguna eta ezin doguna bere eskuetan iztera.

Zorionekoa bere buruaren jabe dana, bere barrua libre zaintzen dauana, bere eskuetan ez dagoanaz arduratzen ez dana! Hori izango da bake gozoaren jabe. Askoren artean ezagutzen dot amama zoragarri bat; Irene dau izena. 10 seme-alaba hazitako emaku-me bihotz zabala; sasoiko zala gelditu zan alargun. Goian zerua eta behean lurra. Bere estualdi eta guzti, seme-alaba danak aurrera atera ditu osasunez eta zentzun onez beterik. Gaur egun Irenek daukan ba-keak eta pozak ez dau parekorik. Bere ondoan Jainkoaren gerizpe gozoa lez sumatzen da. Harritzekoa da bere jakituria, eritziak eta kontsejuak emotean. Gure alkarte bateko arduradun jarrita, zelango era-kustaldi sakonak lagunartean! Jainko esperientzia halako bizi-esperientziagaz aberastuta. Zeuretzat gor-de dot beragaz izandako alkarrizketatxo hau:

- **Zorionak, Irene, zeure urtebetetzeagaitik! Gaur «zorion» ugari jasoko zenduan, ezta?**
- **Egun osoa daroat telefonoa belarrian dodala. Urteak gehiago eta neu zoriontsuago.**
- **Eta zek egiten zaitu hain zoriontsu? Bihotzean makina barriren bat sartu al deusue?**
- **Bai, ondo esan dozu: beti ere bihotzez sanoa izan naz, baina oraintxe urte bi egin neban txekeo on bat, moto-**

**rrerako erregai hobea hartzen hasi nintzan, eta gaur egun, aldatzak errezago igoten dodaz, zarata gitxia-go ateraten dot eta inorentzat ke moltzo zikinik ez dot botaten.**

- **Zuk daukazu umorea, Irene! Benetan zure bihotz-gibelak osasuntsu dagoz oraindik. Ulertzeko moduan aitzera emon deustazu zure barru-bizitzaren barri. Zuk ere, izango dozu, ba, zer kontatu bizitzako liburutik!**
- **Dozenerdi liburu betetzeko lain bai; baina horrek danok Jainkoaren liburuan dagoz jasota, eta nik ez daukat euren ardurarik; etorri leikidazanak ere ez deuste ardurarik emoten, nire eskuan ez dagoz eta. Ni eta nire gora behera danak Jaunaren eskuetan dagoz, nire eskuetan baino seguruago dagoz. Zer uste dozu: nik ez daukadala zoriontsu izateko errazoirik?**
- **Amama asko hor dabiltz seme-alaben, loba-hiloba danen arduraz itolarrian.**
- **Ai ene! Nik alperriko kargarik ez dot hartzen; neurea-gaz ere nahiko dot. Ni neure soloa landu eta zaintzen ahalegindu naz, «AITEAREN» ondo eginda, hazi ona ereiten ahalegindu naz eta kitto. Gainerakoa ez dago nire eskuetan, ez da nire ardurea, Jaungoikoarena baino; eta Harek ez dauko prixarik.**
- **Zorioneko amama! Jauna dago zugaz! Berak bedein-katu eta zaindu dagiala zure frutua!**

Hamar seme-alaben ama baten jarrera hau ez al da harrigarria? Irautea da gauza bat, eta holako freskota-sunez irautea, beste bat. Nahitaez, holako batek argi

erakusten dau, berak barik, Beragan dagoan Handia-go batek egin dituala, bere bitartez. Zer deritxazu, lagun? Ez al da hauxe txiki-handia izatea? Jainkoak gudan ahal dau, guk Beragan uste dogun bestean. Sinisten al dogu? Irenek behintzat holan dala erakutsi deusku, hagaitik gero eta Jaunagaz lagunago da. Eta haren eskerrak emon beharra!

**JAUNAREN BERBEA:**

«Emakume, handia da zure sinismena; gura dozunez jazo dakizula»

(Mt 15, 21-28)

**OTOITZA:**

*Seme-alabon arduraz zagozan Aita Jaungoikoa! Sinisten dogu Zugan, baina gehitu gure sinismena. Bai, Aita, zeure eskuetan izten dogu gure burua eta gure ingurua. Lagun eiguzu ondo egiten gure eskuan dagoana, eta ez dagoana hartu egizu, arren, zure eskuetan. Gure eskuetan baino hobeto dago, Zuk dakizu zer behar dogun. Orain eta beti egin bedi zure nahia zeruan lez lurrean ere.*

35

**LURRA BIGUNAGO,  
HARRA BARRURAGO**



*Goiz edo berandu,  
Jaunak beragandu*

Zahartzaroak, beste edozein bizitzaldik lez, beragaz dakarz bere alderdi onak eta txarrak. Gaur alderdi on bat jorratuko dogu: Edadetua normalki edegiago dagoala espirituaren mundura. Bizitzako bide luzean asko ikasi dau; badaki zer dan ongarrri eta zer kaltegarri; ametsik ederrenak eginda gero, eperdiko latzak hartzea zer dan badaki; begibistan dauka zeintzuk diran ondasun galkorrak, eta zeintzuk iraunkorrak, betikoak. Lurreko ardurak izten hasi da eta betikoaren kezka biziagotu jako. Bere barruan, zahartzarora ezkerro, hutsuna handiak gelditu jakoz: bizilaguna joan jako (kasu askotan), beste lagun maitagarri asko agurtu ditu... Eta berez jotzen dau hutsune horreek betetzera. Gora handiko ordua da hau nagusiarentzat. Bai loteri estimagarria, bere adinekoen kristau alkarte on bat aurkitzen badau! Hor sortzen da bizitzako arratsaldeko maitasunaren ordua: baketsua eta dohantasunezkoa. Zahartzaroko espiritualtasuna aberatsa, isila, barea, sakona, apala da. Okerrera ginen indarra motelduz joako, arriskuak gitxituz. Errukirako, on egiteko, maitatzeko joerak bixkortzen jatorkoz; Jaungoikoagaz bakarrean egoteko egarria biztu jako, bakerako bideak aukeratzen ditu.

Gizakia, bizitzako nekelorrez nekatuta, azken etapa honetan bizitza osoa hartu eta gozatzeko moduan dago. Sarri ikusiko dogu nagusia isilik eta urrunera begira. Nundik ete dabil bere burua? Bizitzara begira, mendi gailurretik mendi barreneko errepide, bidezidor, sastraka, zelai eta guzti. Bai ikuspegi ederra —laprastada eta guzti— kontenplaketa hori Jainkoaren argipean egiten danean! Zahartzaroko

otoizkera ongarrri bat horixe da: bizitzara begiratu, Jaunagaz batera, eta okerrik bada, parkamena eskatu; eta onak gogora ekarriz, eskerrak emon. Sarri entzun dogu Simeon eta Ana profeta zaharrak zelako betekadea izan eben: Urteetan Jesus noiz ezagutuko zain egon ondoren, hona nun euren besoetan Jesus Umea. Orduan bai egoki hau esatea: *«Jauna, orain eroan naizu nahi dozunean. Ezagutu zaitut zeure ontasunean, nire bizitza osoa zuzendu eta eskeintzeko aukerea emon deustazu. Gainerakoa zeure esku dago»*. Hauxe da zahartzaroen Jainkoaren esperientzia egitea. Ea zer eristen deutozun orain kontatuko deutsudanari.

Mikel, nire lagun zaharra, 78 urte lepoan dituan aiti-ta txapeldun beneragarri bat dozu. Gaztetatik hasita, bere bizitza osoa artzaintzan eta labrantzan emon dau. Behargin errimea eta sinismen sendoko kristaua. Erreumeak darabil barregarri, baina ez da errez errenditzekoa. Bizian Gora ezagutu dau eta bai gogotsu bertan sartu eta jarraitu ere. Euskaldun petoa danez, berba gitxikoa da, baina esperientzia handiko gizona. Nigaz puntu batzuk argitu beharra eukala ta, honako kontualditxo bat izan genduan:

– *Ea, ba, Mikel, bagabiltz, ezta?*

– *Ibili bai gero! Oinez ez hain ondo; baina nire barrubihotzak badihardue errotearena egiten.*

– *Eta? Zerk urtetzen dau, urun garbi gozoak?*

- **Bai, sekula bada! Baina abenduko otoitzaldian erabili genduan Jainkoaren esperientzia hori zer dan jakin gura neuke.**
- **Zuk, Mikel, behar bada bizi dozu, eta zu hori ez dala-koan egongo zara.**
- **Ni, egia esan, ez naz errezu luzeetan jarduten dabenen artekoa; baina ni Jaungoiko Aitaren seme maite sentitzen naz. Ardizaintzen mendian, edo beste lanen baten nabilenean, Jaunari agertzen deusodaz nire pozak eta nahigabeak, isiltasunean eta sarri berbaz ere bai. Behin baten –umorez ere banangoan eta– haitz gainean jesarrita Jainkoari dultzainea joten jardun neban. Baina pozez edo negarrari emon neutson eta ezin nahibeste jarraitu.**
- **Mikel, eta zer gehiago nahi dozu ba? Jainkoa bizilagun bihurtu jatzu. Ziur egon, zure dultzaina jotaldi hori izango jakon Jaunari otoitzaldirik gozoena. Zuk dultzainea jo eta Berak letrea jarri, hori bai ederto!**
- **Hori bai gero! Ohean ere, lo egin ezinik banago, Bera-gaz dihardut denpora luzean. Nire aintxinako kezkak, bildurrak etabar ez nabe estututen; danak Jesusen eskuetan izten dodaz eta ni bakez neure bidean aurre-ra. Hilteko bildurrak ere asko gitxitu jataz.**
- **Zorionak, Mikel, Jaunak gorde deizula dohai eder hori! Horixe dozu guk sarri aitatzen dogun Jaungoikoaren esperientzia dalako hori. Emoiozuz etenbarik eskerrak Jaunari.**

Gorputza astundu eta burua arindu, hau da zahar-tzaroan gizakiaren joera. Sarri norbere buruagaz berbetan. Hori baino hobe dozu, Mikelen antzera, zeu baino handiago dan Horregaz jardutea. Ez ala? Jakina, ume-bihotza behar da horretarako. Eta zer gara besterik zeruko Aitaren aurrean? Ez al dau merezi holako esperientzia bat egitea? Ahalegindu al zara? Badozuz aukerak.

#### **JAUNAREN BERBEA:**

«Ez izan bildurrik, artaldetxo horrek, atsegin izan jako zuen Aitari Erreinua zeuei emotea ta»

(Lk 12, 22-32)

#### **OTOITZA:**

Aita-amarik onenak baino ardua handiagoz zaintzen gaituzun Jaungoikoa! Gau ta egun zure eskuetan gaukazuz maitasunez batuta, oiloak txitatxoak hegapean lez. Senti-duazo eiguzu Zuk deskuzun maitasun arduratsu hori. Bai, Aita, zure eskuetan gure izatea eta gure bizitza.

## 36

## JAUNGOIKOAREN ESKUAK



***Jaunak on egiten jarraitzeko,  
nire eskutxoak ditu beharrezko***

Zein penagarria dan kristaurik gehienak Jainkoaz gomutatzea kurutze-orduan! Eta orduan ere, sarritan Berari erruak botateko, zoritxar guztien errudun Bera bihurtuz. Sufrimentua beti da misterioa; baina Jaungoikoa sufrimentuen sortzaile eta banatzaile bihurtzea, zentzunbakokeri handi bat da. Jaungoikoa biziaren Jaungoikoa da, zorionerako sortu eta egin gaituana; zoritxarra eta heriotzea bera ere gizakiaren oker egitearen ondorenak dira. Jainkoaren esperientzia bizi dauanak sufrimentuaren esperientziagaz batera egiten dau, sufrimentua gure bizitzatik kendu ezineko zati bat dalako. Jainkoagana hurreraten dana berehala jarriko da biziaren alde, bizia arriskuan daukenen ondoan egongo da, bizipoza eskeiniz. Sarri izaten dogu bat edo beste aukeratu beharra: *«Zerua ta lurra jarten dodaz gaur testigutzat zure aurka; bizia eta heriotzea, bedeinkapena eta madarikapena jarten deutsudaz aurrean. Aukeratu, ba, zu eta zure ondorengoak bizi zaitez»* (Dt 30, 19).

Zahartzaroa berez dago hurrago sufrimentutik, gaitxotasunetik eta heriotzatik. Inok baino gehiago eda detuok behar dogu jokatu biziaren alde, bai geugan eta bai urkoaren bizitzan. *«Aukeratu egizu bizia gogo beroz.»* Bai kontseju ederra! Horregaitik erabili behar ditu bizigarri diran bide guztiak: paseatzea, atsedaldia, jaialdi baketsuak, lagunarteko giro osasungarria. Eta horregaz batera, espirituzko bizitza ere landu eta gozatu, Jainkoagaz topaketa asegarria txastatuz.

Gogoan gelditzen jat, hamar mila arazotan murgilduta dabilen batek, zelako hustualdia eta asaskaldia iza-

ten dauan, egun batzuetako alkartegunetara datorrenean: «Hemen nator pilak kargatzera». Esaldi hau bai dala gogorra: «Pertsona asko bilten dira 65 urteaz, eta 80 urteaz lurperatzen dabez». Eta 15 edo 20 urte horreek zertarako? Aiene eta oiene?

Gure Margari, ha bai biziaren aldeko emakumea! Jaunaren espiritua pil-pilean egoan haregan. Nik eza-gutu nebanean, herri txiki bateko emagina zan. Hiru belaunalditan herrian jaio ziranak, amaren sabeletik munduko argitara Margariren eskuetan etorri ziran. Haren poza, ama barriagaz batera, gizaki barria eskuetan hartuta! Bere fede-argitan dantzaldi bat baino gehiago egin eban pozarren. Bere lau seme-alabak hazita, bizibidean ipini ebazaneko, bera ere urteetan aurrera. Bizian Gora ezagutuaz batera, sartu zan bertan; orain bere burua osotu eta gozatu behar dau, Jaunari eskerrak emonaz batera. Laster baten konektatu eban fede esperientziak giro honetan; baita zetan edo hatan biziaren alde jardunaz ere. Behin bakarrean hartuta bota neutson:

- **Margari, lehen hainbeste arduraz nekepean, eta orain ez zara hutsik sentitzen? Nahi dozu bion artean aurkitzea zure dohai berezientzat zerbitzu egoki bat?**
- **Nik daukadan dana emoteko daukat. Jaunaren izenean zerbait egin ahal badot...**
- **Hara, lehen bizi barriak mundu honetako argitara ekarten ahalegindu zara; eta orain, inoren laguntza barik azken arnasa emoten dabenei laguntzen jardutea. Zer deritxazu?**

– **Ene! Hori beharleku zoragarria! Lehen mundu honetara ekarten, eta hemendik aurrera, mundu honetatik Jainkoagana bialtzen. Holakorik ametsetan ere! Holan nire eskutxoak Jaungoikoaren esku bihurtuko litzatekez: lehen bizi barriak mundura ekarten, eta orain mundutik Jainkoaren eskuetara bialtzen betiko bizi-tza barrira.**

**Begi biak zabaldu jakozan Margaritari. Loteririk ederre-na jausi balitxakion lez. Pozaren pozez negarmal-koak ixuriz erantzun eustan:**

– **Oi, zein aukera ederra suertatu jatan!**

Zer zelan egin pixka bat prestatu zan eta behingoan hasi zan han-hemen zerbitzu barrian. Alde batetik, beretzat arnas barria hartzen eban kristau alkartean; eta bestetik, azken arnasetan egozanak Aita Jainkoaren besoetan izten... Denpora laburrean harek egin eban Jainko esperientzia aberatsa!

«Egizuz, Jauna, nire eskuak zure eskuen orde-zko.» Bizira ekarri eta bizira bialdu. Hori da bizijokoa! Adiskide, nor litzateken holako eskuen jabe! Hobeto esanda: nor litzateken holako bihotzaren jabe! Bihotzak erabilten ditu eskuak eta hankak. Margari fede argitan zabaldu zan bizitzaren alde; ez egoan egun bat ere alperrik galtzeko. Zenbat aukera dagozan biziaren alde jokatzeko, eta edozeinen eskura. Ez al zagoz prest zure eskuak Jaungoikoari prestatzeko?

**JAUNAREN BERBEA:**

«Osatu egizuez gaixoak, biztu hildakoak, garbitu lege-nardunak, jaurti deabruak. Hutsean hartu zenduen, hutsean emon egizue»

(Mt 10, 7-10)

**OTOITZA:**

Munduan biziaren arduradun eta zure ordezeko ipini gaituzun Aita ona! Zeuk emonak doguz hainbeste dohai eder, zeure izenean, alkar osotu eta laguntzeko. Bai eder Zeugaz batera lankide izatea, mundua zaintzen eta ederragoa egiten! Ixuri, arren, gugan biziaren aldeko grina santua, bizia galtzeko arriskuan dagozanen ondoan maitasunez egoten jakin daigun.

**37**

**AMAMA,  
ZU ERE IKASTOLARA HASI AL ZARA?**



***Lehen bizi az ikasi,  
orain ikasi az bizi***



Gaurko munduko paradoxen artean bada bat, «txiki-handien» mundu hau bere lekuan ipinten dauana: «Gaurko gizartean danetarik daukagu eskaparateetan, baina ezer gitxi buruan». Ardura deuskuna zera da: Inoren aurrean handi-plantak egitea. Zintzoak, osterak, barruan dan bestekoa agertu nahi dau agirian. Baina bada beste konplexu mota bat ere, edadetuen artean guztiz zabal dagoana: «Mundu barroputz honen erdian, hutsaren hurrengo sentitzea». Jakina, eskola txiki eta gitxiko jentea da; sal-erosketak beti buruz egindakoa, berbeta bat bakarra, eta bera idazten ez irakurten osta-osta dakiana. Gaur euren hilobatxoak, urte birako ikastolara hasita, bost urterako amamak baino gehiago daki; gehiago eta hobeto. Amamak *bentania* dino, eta Xabiartxok irribarrez: Amama, hori ez da holan esaten, *leihoa* da. «Asko da, ha!» —dino amamak berekautan— «Bat dakidalakoan, bera ere txarto». Adinekoen batzarretan behin baino gehiagotan bota deusiet lora-txorta hau aurrera: «Zuen artean zenbat abokatu, maisu-maistra eta injenieru ete dagoz?» Eta euren artean alkarri begira harritura gelditzen dira, euren adarra jotzen banenbil lez. Izan ere, gaurko hilotzak dauken beste aukera izan balebe, zer? Eta irribarretxo bategaz, eskuak igurtziaz, baiezkoa agertzen dabe. Behin eurentariko batek plaust bota eustan:

– **Liburutik gehiago dira, baina bizitzatik gitxiago. Gaurko ume eta gazteen sasoi bardinean bizimoduaz askoz gehiago genkian.**

– **Eta, esaidazu, gaur zelan sentitzen zara, Balen?**

– **Egia esateko, poz-pozik. Zorionez ezagutu dot Bizian Gora hori, eta hor noa neure bizitzako amets batzuk beteten. Ez daukat ezergaitik ere izteko.**

– **Zerbait gehiago argitu zeinke, Balen?**

– **Begira, nik beti izan dot zeozer ikasi nahia, baina ez dot erarik izan; eta zuen kuadrilan sartu nazanean, liburutxo batzuk eta Ebanjelioko paper batzuk irakurteko gauza egin naz. Ez zeunke sinistuko nik zelako senperrenak egin dodazan, gelako bakardadean, liburu eta paper irakurten, eta irakurten nebana uler-tuten. Apurka adiskidetu naz liburu-paperokaz, eta bizi nazan arte alkarregaz izango gara. Handiagoo oraindik: lehengo batean, herriko abadea hurreratu jat, mezatan mikrotik euskerazko irakurgaia irakurtera konbidatzen. Eta ezetzik ez deusot emon. Nok esango eustan niri honetaraino helduko nintzala!**

– **Ai, zuk, Balen, gaurko aukera hau izan bazendu...**

– **Handiena lehengoan jazo jatan hilobatxoagaz. Ekain mutikoa, ikastolara joiala-ta, laztan bat emotera hurreratu jatanean, neu ere eskaratzeko mahai gainean liburu, paper eta guzti nenbilen arratsaldeko batzarra prestatzen. Ekainek, samatik oratuta badinost:**

– **AMAMA, ZU ERE IKASTOLARA HASI AL ZARA? ASPALDION SARRI IKUSTEN ZAITUT LIBURUA IRAKURTEN ETA PAPEREA IDAZTEN.**

– **BAI, EKAIN LAZTANA, AMAMA ERE IKASTEN HASI DA; NIK EZ NEBAN IZAN ZUK DOZUN BESTE AUKERA, ETA ORAIN ZAHARTZAROAN NEU ERE IKASTEN.**

- **ETA ZER IKASTEN DOZU, BA, AMAMA? MATEMATIKA ETA HOLAKOAK?**
- **EZ, EZ; HORI BAINO EDERRAGOAK: JESUS ZEIN ONA DAN; JAUNGOIKOAK ZENBAT MAITE GAITUAN; GUZTIOK ANAI-ARREBA GARALA; ZELAN ALKAR MAITATU BEHAR DOGUN; ZELAN ALKARREGAZ HARTUEMONEAN BIZI BEHAR DOGUN ETA HOLAKOAK.**
- **ETA NOIZ AMAITUTEN DOZUE KARREREA, AMAMA?**
- **GURE KARREREA, EKAINTXO, EZ DA INOIZ AMAITUTEN; ZERURA JOAN ARTE IRAUTEN DAU; ETA ZEUREAK ERE BARDIN IZAN BEHAR LEUKE.**
- **ETA NOK ESAMINATZEN ZAITU AZKENEAN?**
- **HORI DA ONENA: GURE KARRERA HONETAN, HASI ORDUKO DAUKAGU APROBATUTA; JESUSEK ERANTZUTEN DAU GURE IZENEAN. HAU MAITASUNEZKO KARREREA DA, EKAINTXO.**
- **AMAMA, ZUK ASKO, ASKO IKASI, GERO NEURI ERE ERAKUSTEKO.**

**Eta samatik oratuta laztan bero bat emonaz, joan zan ikastolara.**

Adiskide, ez al da samurra Balenen pasadizu hau? Ekain zer pentsatzen joan ete zan ikastolara? Zure seme-alabak eta hilobatxoak ikusten al dabe zugan holakorik? Ala kristau izatea karrera bako bizimodua ete da? Ez libururik, ez paperik, ez batzarrik... Holan zer esanik bai inguruan? Ba al dozu kezkarik, ondo-rengoei zer kristautasun eredu izten ete deutsezun? Ez al da horixe testamenturik ederrena Jaunaren aurrerako? Ikasteko, fede bizieta landuteko inoiz ere ez da berandu. Ala bai? Zer uste dozu?

### **JAUNAREN BERBEA:**


«Honexeek dira nire ama eta nire anai-arrebak. Jaun-goikoaren nahia bete dagiana, horixe da nire anaia, nire arreba eta nire ama»

(Mk 3, 31-35)

### **OTOITZA:**

Ontasunezko itsaso barrendu-ezina zaitugun Jaungoiko Handia! Maitatzen eta erruki izaten agertzen dozu zure neurribako indarra. Bialdu eiguzu zure Espiritua gure bihotzetara, Berak gehitu dagiala gugan Zuganako egarria. Barriztu gure artean aintxinako zure harrigarriak. Bixkortu egizuz, lehenago lez, lurreko txikiak, munduko harroak lotsarazoteko.

## NIK JESUS ETXEAN HARTU NEBAN



***Jainkoa bibotzean daukanak,  
etxeko ditu danak***

1984. urtean 8.000 kristau edadetu batu ziran Erroman, Aita Santuaren aurrean, beragandik erakutsi mardul batzuk jaso nahirik, bedeinkapen eta guzti. Hona hemen orduan emondako erakutsi eder bat: *«Kontuz, bakardadeak azpian hartu ez zagiezan! Zuen bizitzako arazo, muga eta guzti, ez zaree sentidu behar Eleizearen martxatik kanpo, beti besteak zer esango edo egingo begira egonaz; zuok ere ekin-tzaile izaten jarraitu behar dozue, zuon indarren arabera. Bizitzako aldikada emonkor honetan, zer eginik eta zer eskeinirik asko dozue, bai gizartearen eta bai Eleizearen alde».*

Eleiz bizitzari dagokionean, adineko jenteari esker bizi dala dirudi gaur eleizea: eleizkizunetan lautik hiru nagusiak dira; eleiz ekintzetan ia beste horrenbeste, maila guztietako zerbitzuetan parte hartuz. Egia esan, leku askotan nagusiak dira, eleiz-martxa barria, lehenari lotuta ikusi nahi leukeenak ere. *«Gure gazte denporetan bai eleizakadak! Orduan bai kristau bizitza oparoa eta indartsua!»* Halan ere, badira, euren adin eta guzti, lekuan lekuko eleiz bizitzaren martxan aurrelari diran adinekoak; batez ere, eleiz mogimentuetan batzen diranak. Parroki askotan Bizian Gorakoak dira bakarrik fede esperientzia alkatetean bizi daben kristau laikoak. Lehenengo *eleiz izatea* da, hau da, alkatetako kide sentitzea, eta ondoren *eleiz egitea*, bertako bizitzaren alde zerbitzu batzuk eskeiniz. Alkartean bizitzeak, beste barik, biziaren dau eleiz esperientzia beroa eta bizia; eta hau dotrina guztiak baino eraginkorragoa da. Orduan bai eleizkide izatea bizikizun pozgarria! Orduan

Eleizea ez da atez barru ala kanpo neurtzen; orduan Eleizea munduan bizi da eta munduan dihardu, Jaungoikoaren Erreinua egiten. Eta horretarako izan behar dabe kristauak lurreko gatz eta munduko argi. Eta Eleiz bizitzaren ederrez kutsatuta dagoan kristauak nunahi dihardu Erreinuaren alde, Eleizearenak eginaz.

Eleiz misterioaren ederrez jabetu diranak, adina adin, ezustekorik pozgarrienak emoten dabez. Nik gaur dakartsudana benetan adierazgarria da. Gure alkarte batean urteak daroaz Jesus ezagutzen eta maitatzen. Holako batzar baten, konfiantzazko giroan, erdizka kontatu euskuna, handik gerora neuri bakarrik zehatzago kontatu eustan:

- *Egunon, Teodora! Zuk daroazu bake eta zorion arpegia!*
- *Ez zera! Bakez eta zorionez bizitzeko behar dodana badaukat eta. Nahiko zeregin daukat Jaunari dan-dana eskertzen.*
- *Hartu, itxuraz, asko egin dozu; baina emoten ere badiharduzu. Hor lehengo batean, Eleiz misterioa zelan ulertzen dogun azaltzerakoan, ederra bota zenduan. Barriro entzun gura neuskizu.*
- *Hara, pozik eta dan moduan kontatuko deusut: nik neuk barik, Jaunak egin dau nire bitartez; dana da bere aintzarako. Orain urte asko, gau ilunean, egundo ikusi eta ezagutu bako andrazko batek jo eban nire etxeke atea. Ni neba ezindu bategaz bizi nintzan etxean. Urten nintxakon atera eta... neska ezezagun bat burumakur eta erdinegarrez. Asturiarra zala, beharlekutik bota*

*egin ebela, ez eukala nora joan eta ia mesedez egun batzuetarako etxean hartuko baneban. Bai, horixe, esan neutson. Besarkada bero bat emon neutson eta behar eban dana eskeini.*

- *Teodora, hori bihotz zabala dozuna! Eta gero zer?*
- *Gero zera: Gau haretan orduak emon nebazan, egin nebana hausnartzen. Lehenengotatik argitu jatan barrua: Hau Jesus Bera da, nik behintzat Bera balitz lez hartu dot, eta halan zainduko dot, berak nahi dauan arte.*
- *Eta gaur egun, 25 urte pasa eta gero, neska ezezagun hori zer eta nun da?*
- *Etxeko egin jat, eta biok biotara bizi gara. Nebea hil jatan eta harrezkero berau dot bizilagun maitagarria. Ez dira beste ahizta bi alkartuago eta pozago biziko, gu biok baino. Batak daukana besteak dauka; bata doan lekura, hara doa bestea ere.*
- *Esperientzia honek zuri zer ekarri deusut?*
- *Berari esker, ni gaur zoriontsu naz. Pozik baino poza-go bizi naz. Harrezkero, Jesus etxean daukadala ta, eleiza bihurtu jat bizilekua. Biok biotara egiten doguz otoitzaldiak; ondo harakatuta daukaguz Bizian Gorako liburu-paperok.*
- *Zorionak eta eskerrik asko, Teodora, emon deuskuzun erakutsi ederragaitik! Jaunak bedeinkatu dagiala zure etxeke eleizatxoa!*

Honen aurrean zer? Gitxienez Jauna goratu, uste gitxien dan lekuan bere Espirituak argi egiten dihar-

## 39

## HAU DA GURE LIBURUA

*Txikiak baundi*

dualako. Ebanjeliora begira, izan ere, horixe da benetakoa eleiza bizia. «*Ni naz zuk etxean hartu ninduzun ezezaguna*», ez zeunke nahi Jesus Jaunak holakoren bat zuri ere azken orduan esatea? Hartu, ba, zeure etxean, bihotzean holakoren bat. Ebanjelioak dinosku nor dan.

**JAUNAREN BERBEA:**

«**Gaur etorri da osasuna etxe honetara, hau ere Abranen semea da ta. Izan ere, Gizasemea galdutakoa bilatzera eta osatzera etorri da**»

(Lk 19, 9)

**OTOITZA:**

*Inor galtzerik nahi ez dozun Aita errukitsua! Danok gaituzu etxeko; guk ere gure etxeko nahi zaitugu. Zatoz eta bedeinkatu gure etxeak, ateak zabalik eukiaz, zure eleiza bihurtu daitez. Zatoz eta bizi zaituz, batez ere, gure bihotzetan, bidegalduentzat eta baztertuentzat beti leku izan daigun.*



**Jaunak esana  
Eskerrak Zuri, Jauna**

Gure Eleizama arduraz dabil kristau herriari Jainkoaren esperientzia barria eskatzen eta eskeintzen. Izan ere, lege barriak eta erakunde egokiagoak ezarri bakarrik, bizia ez da barritzen. Bermoldaketa baino gehiago edo lehenago behintzat, birjaiotza eta bihotz-barritzea da. Eta bizi barritzearen bidean, Jainkoagaz topo egin nahi horrek eraginda, Jainko Herriak iturriko bidea ikasi dau: LIBURU SANTUAK. Kristau herria gizaldietan bizi izan da hamar mila debozinozko liburuxka artean galduta, xeblekeriz desitxuratutako santuen atzetik. Eta Jesukristo Gure Jauna noizko? Eta Jaunaren Berbea zetarako edo noizentzat? Lehenago latinez entzunda, ezer ez; gaur egun ere, Jaunaren Berbea entzun ondoren, *«Jaunak esanda»* entzunda, *«Eskerrak Zuri, Jauna»* erantzutean, itandu egin behar: Eskerrak emoteko, zer esan deutsu, ba? Eta ia inok ez daki ezer? Gaur egun ere, *«Santiagorako bidea»* errezago egiten da, —dan luzea izanda— *«Santiagoren bidea»* baino. Eta Jesusen atzetik garoazen bidea *«Santiagorena»* da: *dana itzi eta jarraitu egin eutsen*. Vatikano II. Kontzilioari zor deutsogu Liburu Santuaganako joera eta egarri hau: *«Biblia ez ezagutzea, Kristo Bera ez ezagutzea da... Otoitz egitean, Jaungoikoari hitz egiten deutsogu; eta Jainkoaren Berbea irakurtean, Berari entzuten deutsogu»* (D.V. 25). Kristauen artean Jainkoaren esperientziarik egiterik ez dago, Liburu Santua bihotzean sartu eta Espirituaren errotan eiho barik. Hor ezagutzen dogu Jainkoa, batez ere, Jesusen Ebanjelioan.

Harritzekoa da, izan ere, zelan kristau apal arruntak, Jaunaren Berbea irakurtera ohitu ondoren, gero eta

hobeto ulertzean, Jesus ezagunago egiten jake, eta uste baino lehen Beragaz hartuemon pertsonalak hasten dabez. Espirituaren gerizpe bizi-sortzaileak zenbat ahal dauan bihotz zintzoetan, Jaunaren Berbeak ernarazoz.

Egia esan, ze alde dagoan mila debozinoz beterik dabilen jentearen eta Jaunaren Berbearen iturritik edaten dauan jentearen artean. Debozinoak onak dira, baina Ebanjeliozko arnasez eta espirituz beterikoak badira. Paulo VI. Aita Santuak, urteak dirala, ardura handiz bideratu nahi izan eban Andra Mariaganako jaiera. Santu-santak, Ama Birjina eta Jainkoa Bera ere, debozinoaren debozinoz, geure zerbitzura ekarri nahi izaten doguz, geuk nahi doguna lortuten lagundu deiskuen. Eta Jaunaren Berbea ez doa bide horretatik: geu ipini nahi gaitu Jesusen jarraipenean, santuen eta Mariaren antzera, Aitaren aurrean zabalik eta prest: *«Hona hemen ni zure mirabea, egin bedi nigan Zuk dinozuna»*. Pozgarria da gero eta laiko gehiago Biblia etxeko leku berezian erakusten dabela ikustea, eta sarri eskuetan hartzen dabela jakitea, bai etxeko otoitzaldian eta bai kristau batzar batera doazenean. Bizian Gora mogimentuko kristau nagusiak urtero eskuratzen dabe liturgi egutegia, handik eguneroko irakurgai atalak aurkitu eta bertatik otoitz eginaz. Ikusiko bazendu, irakurle, kristau jubilatuz dozentzua, mahai baten inguruan hama-bostero alkartuta, erdiko mahaian argia biztuta dabela eta Biblia Liburuia ondoan zabalik, mahaiburuan jesarleku bat hutsik (Maisuarentzat!), otoitzaldi be-

roan! Eta behin iturrirako bidea ikasi ezkerro, bako-  
txak berak egiten ditu joan-etorriak.

Argitzeko, Ernesto adiskideak emongo deusku berari  
jazo jakonaren barri. «Jesusen testigantza zelan emon»  
gaia argitu eta sakonduten genbizan alkartean. Laster  
hustu euskun kolkoa gure lagunak:

– **Nik esango dodana ez da beste mundukorik ezer, baina  
neuretzat pozgarri izan da. Ohitura dodanez, gosaldu  
eta etxeko abere-piztiei jaten emon ondoren, banago  
eskaratzean Liburu Santua irakurten otoitz giroan,  
eta atean eupadea. «AURRERA» esanaz konbidatu neban  
sukaldera. Neure auzoko gizon lagun bat zan. Liburu  
Santua mahai gainean nebala ikusi ninduanean, irri-  
barrez badinost:**

– **Zer, Ernesto? Liburu handiagaz zabiz. Badakar apar-  
tekorik ezer ala?**

– **Bai, bai; hau geure Liburua da, Biblia deritxona.**

– **Hori abade, praile eta holakoentzat dozu; gu korta-  
usaineko jentearentzat hori barik ere, zeozer egin lei-  
teke.**

– **Horixe, zeozer; baina behar dan askorik ez, nik neuk  
behintzat. Neuk ere lehen holan uste neban, baina  
orain ikusi dot bidetik urrun ibili nazala. Bestelan bizi  
naz gaur egun! Niri behintzat argi eta indar asko emo-  
ten deust Liburu honek**

«Hau da gure Liburua» hori da erantzuna, eta ez ara-  
tzean gordeta eukiteko, eskuartean erabili eta bizi-  
iturritzat hartzeko baino. Zer uste dozu zuk, irakurle?

Ikasi al dozu iturri horretarako bidea? Esan ahal dozu:  
«Hau da nire Liburua?» Bardin al da norberak iturrira  
joan eta ura edan, edo besteari eskatu edaten emon  
deizula? Kristau heldua izateak Jaunaren Berbea ira-  
kurten, entzuten, hausnartzen eta beteten dakiana da.

### JAUNAREN BERBEA:

«Lur onekoa, Berbea entzunda gero, bihotz onez eta zuzenez  
gordeten dabenak dira, eta honeek, ekinez-ekinez,  
frutua dakarre»

(Lk 8, 11-15)

### OTOITZA:

Gure bizitzako bideetara urten deuskuzun Aita arduratsua!  
Zeure Espirituz argituriko gizon-emakumeen bidez eza-  
gutzero emon deuskuzu Zu nor zaran eta guk zer egitea  
nahi dozun. Eta Jesus, zure Semea haragi eginda bialduz,  
Beragan agertu deuskuzu zure arpegia. Biztu eiguzu gudan  
zure Berbearen egarri bizia, gure bizitza osoa izan dedin  
zure Berba horrerri erantzutea.

## JOXEPAREN EGITARAU



***Bere egitarau eta programa,  
sekulako ondoen dabil amama***

Gizaldi askotako kulturaren eragin nagusia lana izan da: nok lan gehiago egin, hori bai gizona!

Horren ondoren zera: Nok lanetik diru gehiago atera, horrek bai jakin bizitzen! Eta hainbeste urtetan lanpean hezi eta bizi izan dana, lanaren lan-makina gelditu behar dauanean, zer egin? Lehenago ezinak kenduten eutson hatxurra gizonari eskutik: jubilazinarik ez zan ezagutzen.

Hona hemen gaurko egoera: pentsionistak eta jubilatua osotuten dabe gizaratean gero eta kopuru haundiagoa. Are gehiago, medikuntzari eta bizi-kalitateari esker, gizakiaren bizitzaldia asko luzatu da. Badirudi jubiladutza-etapa hauxe bihurtu dala bizitzako etaparik luzeena.

Hau holan dala, zer egin, zelan jokatu, zetara emon hainbeste ordu bizitzaldi luze honetan? Erdi lolo eta erdi lelo iraun hil arte? Azal huskerietan denporapasa alperrik galdu? Eta hori, gure bizitzako azken etapa izanda... Bada honetarako arriskurik asko. Zenbat joan-etorri eskolara, bizitzan zeozer izaten ikasteko; zenbat ikastaro eta batzar beharlekuren baten sartzeko! Eta gure bizitza koroatuko dauan azken etapa hau zelan bizi jakiteko, tautik ere ez. Okerrena zera: Hori bakotxak dakigula ondoen, uste izatea. Ez horixe! Jubiladutzak dakarren aukerea alperrik ez galtzeko, prestatu egin behar da, honetan ez dauka inok esperientzirik. Itsumutsuan, goizetik gauera sartzen gara egoera barri honetan, kasu askotan behintzat: atzo, urte askotan lez, lanaren kate motxean lotuta, hara-hona korrika; eta gaur eta gaurtik aurrera goizean jagi



eta zer eginik ez. Hau benetan tamalgaria izango da, batez ere, gizonezko askorentzat. Ehunetik hutsera hain arin aldatzea, ez da jastea, jaustea baino. Atzo beharrezko nintzan etxean eta nunahi; gaur inok eze-tarako behar ez; lehen norbait nintzan, gaur inor gitxi. Lehengo martxatik atera nabe, eta orain bizitzako martxatik alboratuta noraezean burumakur? Egoera hau askorentzat buruari tiro bat emotea da.

Zorionez badira jubilatutzarako urtenbide on bat aurkitu dabenak; osasunaren arabera, eguneko orduak eta asteko egunak egoki mailakatuta daukezanak. Honeetarikoa dogu Joxepa, 74 urteko etxe-koandre zintzoa. 68 urte gaz sartu zan Bizian Gora mogimentuan. Handik 6 urtera egin eustan autorpen pozgarri hau.

- Zelan gabiz, adiskide Joxepa? Lehen nekez eta lorrez eskuetatik lana kendu ezinik, eta orain ez etxeko ardurarik, ez auzokorik.
- Egia esan, nire bizitza guztiz aldatu da. Eskerrak jubilatuta laster baten, Bizian Gorari esker, bidea hartu nebala, eta orain hari jarraitzea baino ez.
- Baina goizetik gauera hainbeste ordu zetan emoten dozuz?
- Bizian Gora hori benetan da mogimentua; ni behintzat benetan ipini nau mogimentuan. Neure bizia bete nahia sartu jatan barruan. Eta horrek eroan nau eguneko eta asteko orduak sailean ipini eta zer zelan eta noiz egin erabagitera.

- Zek emon deutsu horretarako argia eta indarra? Holakorik ez zenduan, ba, asko ikusiko inguruan.
- Hara, Bizian Gora horretan argitu jatan barrua, neuk uste neban baino sakonago eta beteago. Harrezkero, nire lanik gozoena eta danen gainetikoa horixe da: Taldeko paperak aztertu, liburutxoak irakurri eta Jaunaren ondoan egon, Beragaz gozo-gozo barriketetan.
- Hori da jausi jatzun loteria, Joxepa! Horrek asko indartuko zaitu, ezta?
- Martxan ipini nau, eta etxean, auzoan eta herrian badodaz eguneroko ardurak, bisitak, jolasaldiak eta-bar. Neu konturatu barik, mundu barri baten sartu nintzan. Ez da dirurik, ez besterik hau ordaindu leikenik. Ez neban uste Jaungoikoak bizitzaren azken aldirako erregalu hau gordeta eukiko eustanik!
- Hainbeste lan eta bape irabazi barik!
- Zer dinostazu irabazi? Irabaziaren bila barik, neu irabazi nauanari eskerronez erantzutearren nabil. Hau da, beste askoren artean, Jaunak azkenaldion emon deustan grazia: eginbeharrekoak maitasunez egitea. Eta, eginak egin, ez naz aspertzen.
- Holan dala, egunaren barruan leku askotara helduko zara zu.
- Hara, nire eguna holan daukat zatikatuta: Goizean etxeko joan-etorriak egin eta hilobatxoa ikastolako autobusera atera eta neure zokondoan ordu erdiko otoitzalditxoa egin. Etxaldea jaso eta eguerdiko bazkaria atondu. 12etan Bizian Gorako lagunakaz Jesu-

*sengan alkartu eta «Angelus» errezatu. Egurdikoak egin ondoren, lo kuluskatxo eta egunero aukera bat: ibiltalditxo bat lagunakaz, neure egoitzako gaixoengana bisitaldia, Bizian Gorako batzarra. Eta gaua gainera. Errosarioa errezatu eta lotara.*

*– Joxepa, ikusten danez, ez dozu baztarretan egonean trabarik egingo! Etxeko beharrak ere ez dozuz albora izten.*

*– Ez horixe! Baina etxekoak argi dauke nire aukerea: ni jubilatua naz eta neure egoera honek eskatzen deustana da lehenengo; eta gero gerokoak. Neuk baino pozago ere hartzen dabe nire jarrera hau, eta ni egon zein egon ez, bardin doa etxeko martxea aurrera.*

Ama batengandik hau entzuteak nor ez poztu? Zorionak, Joxepa! Urte askotan iraun daizula martxa horretan! Eskolarik ongarriena ikasi dozu. Eskerrik asko emon deuskuzun erakutsiagaitik! Orain itzi egidazu, zeure izenean, lagunei itaun banaka bat egiten, zeure esperientzi pozgarri horretan partekide izan gaitezan.

Askoren ustez, hainbeste neke lan eroandako Joxepak ez eban merezi zahartzaroan holako traturik! Holan uste al dozu zuk ere, irakurle? Maitasunez eraturako programa honek Joxepa estutu ala nasaitu egiten ete dau? Aginduz, eginbeharrez ala maitasunez egindakoak nekatzen dau gehiago? Joxeparen antzeko bat ondoan daukenak zer ete dinoe: etxekoak, auzokoak, lagunak? «Datorrena datorrela» bizi dana, ala programa egoki baten laguntzaz bizi dana, zein da gehiago aspertu eta gitxiago egiten dauana?

### **JAUNAREN BERBEA:**

**«Jaunak nire alde harrigarriak egin ditu»**

(Lk 1, 46-56)

### **OTOITZA:**

On guztien iturburu zaran Jaungoiko errukitsua! Maite dozuzanak santutuz maitagarri bihurtzen dozuz, eta maitagarriak zeure maitale. Miragarri agertzen zara munduko txikien alde, eurai bide garbi eta zuzenak erakutsiz. Eskertzen deusuguz aldi guztietako txikien alde egiten dozuzanak; eta uste osoz eskatzen deusugu: Joxeparen antzeko asko sortu daizuzala gure artean, zure maitasunaren testigu izan daitezana mundu harroaren erdian.

## 41

## JESUKRISTOGAZ KURUTZEAN



*Sasian gozo masusta,  
kurutzean pozik Justa*

Oraindik urte asko ez dala, nok ekian zer zan zaharren egoitza bat? Bazan banaka bat ospitale han-hemen. Eta danetan Karidadeko edo bestelako monjen komunitate bat egoan, eurak zaintzeko. Eta gotzainak izendaturiko kaperau bat ere bai, eguneroko meza eta guzti. Gaur egun udabarriko zuzak lez ugaritu jakuz egoitzok, haundi eta txiki, herri barruan nahiz baserri inguruetan. Eta, halan eta guztiz ere, lekurik ez, ezindu danak hartzeko. Egoitzetako egoera hau ez da erronka makala eleiztarrantzat! Jesusen ebanjeliozko begiz ikusita, eurok izan behar leukee pastoraltzako lehentasuna, eurontzat ardurarik eta laguntzarik onenak. Baina, tamalez, ez da holan leku askotan. Eleiz bizitzan ere praktikotasuna eta efikazia dira eraginik indartsuenak. Nazaretoko Jesusen ahaleginak beste era batekoak dira.

Bizian Gora mogimentuan bizibarritutako bat eza-gutzeko suertea izan dot: Justa zintzoa. Hiru urtean egoitzetako zahar-gaixoei lagunduten jardun da gero, berak ere egoitza batera joan beharra izan eban. Orain Jesusen laguntza hartu eta emon egiteko aukera dauka. Egunero egiten dau berarentzat programa txiki bat, zelan lagundu beragaz barruan egozanei. Zenbat berba gozo, zelako hartuemon maitekorrak, zenbat otoitzaldi gaixo lagunakaz! Ahal dauan guztian, gelatik gelara ibiltzen da, irribarrez eta maitekiro adore emonez. Berak emon eustan bere egoitzako bizitzaren barri:

*– Justa, orain zeu hemen, hainbeste bider maitasunez  
bisitatu dozuzan anai-arreben artean.*

– **Bai, hementxe nago. Hona etorri aurretik izan neban fede esperientziari esker, zoriontsu izaten jarraitzen dot. Eta hemen ere nik lehengo ekintzari jarraitzen deutsot.**

– **Zer, pozik bizi al zara?**

– **Benetan dinotsut: pozik bizi naz. Hau da aukera ederra, norbera gaixorik egon eta gaixo lagunei laguntzeko! Neure gaixotasunak baino gehiago egiten dau nigan, txarrago dagozanei lagundu nahiak.**

– **Justa, Jesus Jaunagaz izan dozun hartuemonan hemen sendotuaz joango da, ezta?**

– **Hemen sufrimentua ez dago asmau beharrik; hemen sufridu egiten da; hau Jesussegaz Kalbarioan kurutzean josita egotea da. Nik hemen sartu aurretik izan neban Bizian Gorako esperientzia; hona etorrita, nire fede bizitza sakondu egin da. Fede esperientzia egiteko biderik onena sufrimentua da, Kurutzeko Jesussegaz kurutzean bertan topo egitea, Beragaz batera munduaren alde oinazeminak otoitzean Aitari eskeintzea.**

– **Hori da benetako eskolea, Justa. Gainera, sufritzea baino beste lanik egin barik, hainbeste irabaztea, munduaren alde hainbeste egiteko bidea. Ikusten zaitudanez, bakez eta pozez bizi zara.**

– **Sinistu egidazu: hemen ikasi dot neure minak eta egozinezinak zelan menperatu. Kurutzea eskuan hartuz, sufrimentua neuregandu maitasunez bihotzean, eta, ahal dodan arinen, aienaka dagoan bati laguntzera joatea. Beste batzuk poztu beharrak, neu poztuten nau.**

Eskerrik asko, Justa, emon deustazun erakutsia eta pozagaitik! Jesus Jaunaren Espirituak gidatzen dauan kristauak beti begiratzen dau nor dagoan bere laguntzaren preminan, eta beti aurkitzen dau han edo hemen bera behar dauanaren bat. Justari, bere buruaz ahaztuta, urkoari lagundutera gehien eragiten deutsona, Jesus Kurutzekoa da; Jesus besteentzako gizona bada, baita Justa ere. Gaur egun Jesus Kurutzekoaren irudia ezkutatu egin da. Zergaitik dala deritxazu? Zure etxean nun dago? Zuk zeuk azkenengo noiz hartu dozu eskuartean? Justa bizi dan egoitzako batek agertu eustan bertako osagileak behin esandakoa: Kristau izatea Justaren modukoa izatea bada, ni ere kristau naz.

#### **JAUNAREN BERBEA:**

«Aita, nahi badozu, aldendu egizu Nigandik edari garratz hau. Halan ere, egin bedi zure nahia, ez nirea»

(Ik 22, 39-46)

#### **OTOITZA:**

Zure Semearen Kurutzeko heriotzeaz salbau gaituzun Aita Jaungoikoa! Zenbat kosta jatzun guri deuskuzun maitasuna agertzea! Zure Seme Jesusi jarraitzera deitu gaituzu, gure kurutze eta guzti. Hemen gaituzu, Aita, zeure esanera; onartu gure bizitzako eskeintza, izan bedi zure aintzarik haundienerako eta gure eta beste askoren onerako.

42

## HOBE TXIKI ASKO, HAUNDI BAT BAINO



*Maitasunari  
maitasuna zor*

Gizakiaren gizaldietako bizikizunaren oinarrietan dago ezarrita esaera zahar hau: «*Nun zure gogoa, ban zure zankoa*». Bakotxaren gogoak darabil nor bakotxa. Beraz zein garrantzitsuak diran gizakiaren barruko eragingarriak; batez ere, Jainkoaren aurrerako diran arazoetan. Hau da bakotxak sarri aztertu behar dogun puntua: Zein da nire bizitzako motibazino nagusia, nire bizitzako zentzuna, nire joan-etorri eta hartuemenen sustraiaren dagoana? Bizitza ez da lan, jan eta lo egiteko; hori egin beharrekoa da bizitzeko, baina bizitza bera hori baino gehiago da. Kristau baten bizitzako motibazino nagusia eta bizitzako ardatza maitatzea da. Bakotxak bere bizibidean, bere ahalmenen neurrian, baina maitatzea da helburu. Jesus Maisuak horretan lotu deuskuz gainerako lege, agindu eta eginbehar guztiak. Zereginik ederrena bada ere, maitasunik ez badau, alperrik. San Paulo Apostoluak esan ahalako haundienak dinoskuz: ondasunak banandu, gorputza sutan erre, aingeruen hizkuntzak eta jakin... baina maitasunik ez bada, kanpai tintinlari hutsa naz. Kontua hauxe da: haundi izan, txiki izan, bakotxak dana eta daukana maitasunez inoren onerako jartzea. Orduan inor ez dago gauz-ez-danik; inor ez da beste inor baino haundiago, hemen ez dalako kontuan hartzen zenbat emoten dauan, zenbateko maitasunez emoten dauan baino. Hau Jesus maisuaren eskolako erakutsia da: Pariseuak dirua parrastadaka botaten eben bitartean, andra alarguntxoak bera bizitzeko behar eban guztia emon eban. Eta Jesusek dinonez, honek beste danak baino gehiago bota dau. Urtean behin gauza harrigarri bat edozeinek egiten dau; baina eguneroko

kontua, ezin esan ahala atzera-aurrera, milaka egitada txiki, irribarre eta guzti, hau gitxiren jarrera da. Urtean behingo santu asko dago, egunerokoak dira urri. Ez ete da hauxe gure Eleizearen urtenbidea krisialdi honetatik? Badira abade jakintsu dizdiratsuak, laiko haundiki jakintsuak ere bai. Baina ez dira nahiko; ekintza ikusgarrietarako dira. Familiako bizitza, gaixo eta behartsuen arteko egoera, bizitzako kurutzbidean jausita dagozanak etabar... noren kontura dagoz? Gure Eleizan ere ez ete da heldu txiki-haundien ordua? Espirituak argiturikoen ordua? Edadetuen eta makalen aldeko pastoral ekintzarik, mogimenturik oraindik leku askotan ez da onartzen. Kandelak biztu eta dirua batzeaz nahiko.

Ordua da Eleizan ere txikien iraultza egiteko: Ebanjelioa euren eskuetan hartu, eta alkarte txikietan batu-ta, kristau bizitzari azpi-azpitik oratu eta eragiten hasi dira leku askotan. Jesusen lekuko eta jarraitzaile sentitzen dira; batez ere, Jesusen aukeratuenen alde jokatzuz: egoitzetan dagozan anai-arreba errukarrien alde. Hirunaka alkartuta, Eleiz-barrutiko lurralde zabaletan eurak dira egoitzetako aingeru kontsola-tzaileak, Jetsemaniko Ortuan Jesus Bera lez. Zenbat egotaldi eurai entzuten, euren bihotzak jasoten, eura-kaz batera otoitz egiten. Eurak eroaten deutse Gure Jauna, eurak deitzen deutse abadeei sakramentuak eta emoteko. Eleiz zerbitzu pozgarri hau egiten dihar-duan baten testigantza dozu hau:

**– Juanita, noiz hasi zinan eginkizun eder honetan parte hartzen?**

- Badira bost urte; astero eta txandaka eskeintzen dogu zerbitzio hau Jesusen izenean.**
- Egoitza askotara joaten zara?**
- Alderdi honetan 7 egoitza dira; danon artean daroa-guzanak 16 dira.**
- Neketsu egingo jatzue, ba, zerbitzu hau etenbarik egitea.**
- Bai, zereko neketsua! Asteko ekintzarik pozgarriena bihurtzen jaku hau. Sinistu egidazu: emon baino hartu egiten dogu gehiago. Jesus Bera dabil gugaz, guk Berari eskeintzen deutsogu hau. Guretariko batzuk gau osoak ere emoten dabez gaixoen ondoan.**
- Izenez ere ezagutuko dozuez honezkero.**
- Izenez bakarrik? Ez dakizu zer zelan kontatzen deus-kuen dana. Zer konfiantza dogun alkarregaz!**

Adiskide, holakoen ondoan geldi egoterik ez dago. Holakoak Jesusegaz topo egin dabe; Berak argitzen eta bixkortzen ditu; eurak hamaikagarren orduan deituak sentitzen dira, baietza emon dabe eta hor jabiltzuz pozaren pozez. Badator kristau barrien sasoia, hasita dago; ez al zara euren artean sentitzen? Txiki askok gehiago egin daikee, haundi batek baino.

### **JAUNAREN BERBEA:**

**«Zoaze zuek ere nire mahastira, eta emongo deusuet bidezko dana»**

(Mt 20, 1-16)

**OTOITZA:**

Mundua hobeagotzen zeure ondoan lankide nahi gaituzun  
Aita ona! Zer poza guretzat, zure mahastirako zure deia  
entzutean! Zeuk emonak doguz gure dohaiak eta ahalme-  
nak; zeure zerbitzuan erabili nahi doguz, behartsuen alde  
arduraz. Onartu egizuz gure lan eta ahaleginak gure mai-  
tasunaren erakusgarri.

43

**PRAKA MOTXETAN BIHOTZA**



*Irribarrea eta umorea,  
bihotzaren agiriko lorea*

Gaur egun inoiz baino urte gehiago bizitzeko auke-  
rea etorri jaku. Eta —hau paradoxa aldrebesa!—  
inoiz baino beherago dago zahartzaroa eta inoiz bai-  
no gorago gaztaroa munduko azokan. Lortu doguna  
zera da: Bizitzeari urte pila bat gehitzea; baina ez  
gehiarri hori probetxugarri bihurtzea. Behin baino  
gehiagotan, bizitza guztiko giza-baloreak bertan  
behera galtzeko izan ohi da. Lehenago gaztaroa zan  
buruarinen eta ganorabakoen aldia; orain zahar-  
tzaroa ete? Lehen gazteak zaharren ohituretara mol-  
datu ezinik ibiltzen ziran maisu eta hezitzaileak; orain  
zaharrak gazteburu egin ezinik. Zahartzaroa behe-  
rantza doan balorea da, gaur egun balio ez daben  
aintxinako dirupaper tximurrak lez. Txarrena zera:  
etorkizunera begira, ez daukela ez egitasmorik, ez  
ametsik ezetarako. Ez da harritzekoa pentsaera ho-  
rren aurrean hartzen dan jarrerea: garraztasuna, tris-  
tura, lehenmina.

Giro honetan, zelan sartu martxa barrian jente naga-  
sia? Zelan sortu beragan bizi barri baten egarrria?  
Bidea amaitzen joakola ikusten dauanari, bide barri  
bat hartzera dei egin? Ibili, ahalegin horretan dabiltz  
kontsumoko kate eta etxe guztiak; adinekoak ere  
euren asketara eroan nahirik; eta egia esan, hor bai  
sartzen dirala martxa barrian eta azken arnasea emon  
arte, sartu ere. Baina badira edadetuen artean bene-  
tako bizi barriaren egarrira ere itzartuten diranak.  
Simeon eta Ana profeten antzera: 80 urtetik gorakoak  
izanik, eurok izan ziran, herriko sinismenari eta itxa-  
ropenari eutsi eutsenak. Bibliak errepikatzen deus-  
kunez, eurengan Espiritu Santua egoan. Orduan bai,

85 urteko agureak, 24 urteko gazte askok baino buru-  
bihotzak gazteago, alaiago, itxaropentsuago daukoz;  
bere asmoetan eta etorkizunera begira, bixkorrago  
eta edegiago bizi dira. Askotxo dira Nikodemus  
jakintsuaren antzekoak: Nazareteko maisuak iragar-  
ten dauan bizi barria ulertu ezinik, barrero jaio behar  
ebala esan eutsola eta, amaren sabelera begira jarri  
zan. Baina Jesusek dakarren birjaiotza Espiritu  
Santuaren eraginez da. Ebanjelioko iturritik edateko  
aukera egokia: dohantasuna, barru bizitzaren zaleta-  
suna, isiltasuna, maitasun garbiaren gozoa... Zer ira-  
baziko eta zer harrapatuko arnas estuka ibili beha-  
rrean, bizitzak dakarreneira eta Jaunak nahi dauanera  
fedez eta bakez makurtzen dira. Gorputzez zimel-  
duak, bihotzez sendo zindoak.

Ezagun jakun nagusien eleiz mogimentuan zaharba-  
rritu asko ezagutu dodaz. Gaur Joxemari jatorku,  
beragan bizi izan dauan aldaketa kontatu nahirik;  
jaiotza barri baten antzeko aldaketa izan dauala  
autortuz. Oraindik oraintsu, 75 laguneko otoitzaldi  
bat izan dogu: «Adineko bati zer mesede egiten deu-  
tson bizitzako azken etapa hau Espiritu Santuaren  
argipean eta kristau alkarte baten bizitzeak». Aurrez-  
aurre neukan Joxemarik zerbait esan gura eustan:

– **Esan, Joxe Mari: zer esan gura deuskuzu?**

– «**HORI DA BIHOTZA PRAKA MOTXETAN EUKITEA.**»

Inoiz entzun barik neukan esaera hori, eta berari itan-  
du neutson:

– **Zer adierazo nahi dozu horregaz, Joxemari?**



**Ume bihotza daukan aitita, erantzun eustan, irribarre eta guzti.**

erba gitxitan hobeto esaterik ez dago. Guzur-maliak alde batera itzita, urteen esperientzia luze zabala spirituaren argiz igurtzita, Jaunaren aurrean zabalabalik dagoan aitita. Jesus Jaunak holakoren bat entzun edo ikusiko eban, harako plaza erdian zeruko aitita bedeinkatu ebanean: *«Beideinkatua Zu, Aita, eru-lurren Jaun hori, gaiok jakintsu eta zuburrei zkutatu, eta txikitxoei agertu deutsezuzalako»*. Bazaltzerakoan alkarren ondoan jarri ginan eta batzarteko gaiari oratu geuntsan barriro:

**- Eskerrik asko, Joxemari, eta zorionak, eskeini deusku-zun argiagaitik!**

**- Hau neugan bizi dodan esperientzia da, baina Jaunak emona da; Berari eskerrak. Hiru urte daroadaz alkar-tean eta lehendik neukana Jaunak osotu deust. Orain errez ulertzen dot zer dan «JAIOTZA BARRIA», neugan sumatu dot eta. Nok esango eustan bihotz-hondoko giro zoragarri hau zahartzaroan jasoko nebanik?**

Joxemari lagunari entzuten nengoala, hauxe gogoratu jatan: Adinekoen alkarte honeek dirala benetako zahartzaroko eskolak». Bizitzako esperientziak go-goan dirala, Jaunagana edegi eta bere Espirituaren pozez bete eta bizitzako koroi ederra jantzi. Ez al ote lozu hau ontzat emoten? Ez al da hauxe jubiladuzarako egitekorik merkeena eta onuragarriena? Zeure esku dago erantzuna.

### **JAUNAREN BERBEA:**

**«Itzi bakean umeak eta ez egiezue galerazo Nigana etorten; holakoxena da zeruetako erreinua ta»**

(Mt 19, 13-15)

### **OTOITZA:**

*Bihotz apal eta garbietan bizi zaran Aita samurra! Apaltasunak erakarri egiten zaitu eta harrokeriak aldendu. Egin gaizuz zure Seme Jesusen antzeko: beti zure esanera ibili gaitazan eta zure eskuetan bakez eta pozez bizi.*

## TXIKITU AHALA, HAZI



*Haundia izateko puztu,  
txikia izateko bustu*

Guk geure joeraz urruneko Jaungoikoa errezago sinisten dogu, hurrekoa baino, antza; haundiaren haundiz eta indarraren indarrez danen gainetik dago ta: Jaun Goikoa. Baina Jesusengan agertu jakun Jaungoikoa hain txiki eta makala agertzen jaku: beti txikien, behartsuen eta beherengo mailakoen lagun; pekatuan izan ezik, danetan geure antzeko. Nok benetan hartu eta sinistu gure Jaungoikoa hain txiki eta zerbitzari egin danik? Gogorrena hemen dator: Jaungoikoaren aurrean lehenengo lekuan munduko txikienak dagozala, eta munduko lehenengoak, azken. Jaungoikoa nor dan inok ez daki, Berak jakinazoten deuten txikiak izan ezik. Gizarteko txikien artean ezkutatu jakun. Jaungoikoaren bila hasteko, ez dogu asko ikasi beharrik, ez urrunera joan beharrik. Mailaz jatsi egin behar da, asko makurtu eta txiki eta behartsuen zerbitzari egin. Jaungoikoaren haunditasuna eta indarra errukizkoa eta maitasuneko da; galduta gengoanok salbatzen agertzen dau bere indarra.

Jesusen esanez, ume errubakoak ezagutzen dabe ondoen Jaungoikoa eta euren antzeko egiten diran adineko fededun zintzoak. Zahartzaroan agertzen jakuz han-hemen itoginak, sasoi bateko indar eta ahalmenak urritu dira, bizitzak zer emon daiken esperientzia osoa egin dogu. Eta harrigarria benetan! Zenbat eta norbera txikiago, Jainkoaren aurrean haundiago. Txikitu ahala, hazi. Horretarako, Espirituak argituta, txikitzea, biloztutea onartzen joan behar; eta zartatzen doan gure etxola zaharraren zirrikituen artetik, Jainko-printzak bris-bris egiten sumatu.

Orduan zahartzaroak dakarren txikitasuna pozgarri bihurtzen da, lurrezko eta itxurazko edertasunak gal-tzen doazen neurrian, Jainkoak leku hartzen dau, bere edertasunez eta bakez orniduz. San Paulok dinonez: «*Makal nazanean, orduantxe sentitzen naz sendo*». Holakorik asko ezagutu dot kristau alkarteetan dabil-tzan atitita-amamen artean. Honeek bai txiki-haun-diak! Munduko haundiak txikitzen doazen artean, munduko txikiak haunditzen doaz Jaungoikoaren aurrean. Zeuk esango deustazu Txomin gure laguna-ri entzun ondoren:

- **Kaixo, Txomin! Ondo gabiltz ala?**
- **Ondotik gora! Nahi ere ez gehiago. Egundoko zorion-tsu bizi naz.**
- **Gaur ere xeibrekeriren bat esateko ekarriko zenduan.**
- **Bai, gaur zeu izango zara entzungo deustazun zazpi-garrena eta neuk ere, zeugaz batera, zazpigarrenez barre egingo dot.**
- **Hori dok suertea! Bota ba.**
- **Hara, mutiko bik apustu egin dabe: nok guzur haun-diagoa bota. Entzun dau aititak handik pasakeran eta badinotse: Mutilak, guzurrik ez da esan behar, olgetan ere ez. Nik zuen sasoiari guzurra zer zanik ere ez ne-kian. Eta mutikoen poza: «AUPA, AITITA! ZEUREA DA TXAPELA. ZEUK BOTA DOZU GUZURRIK HAUNDIENA».**
- **Eta egunero holako bat botatea da zure konpromisoa?**

- **Bai, hori da hartuta daukadan asmoa. Ondora dato-rrren edozeini botaten deustot; batzuk apropos etor-ten jataz, barre aigara batzuk egitearren.**
- **Holan dala, zu zoriontsu bizi zara, besteak pozik eukiaz.**
- **Biziko ez naz, ba, zoriontsu? Badaukat zer jan eta zer jantzi, etxe eta auzo danak lagun dodaz, eguneroko programa, ikusi dozunez, txiste, bertso eta kantu boteaz, jenteari barre eragitea.**
- **Ja-jai! Hagaitik dinoe hor batzuk burua arinduten hasi jatzula.**
- **Burua ez dakit, baina bihotza bai arin eta pozik! Beste danak hor konpon!**

Denganinoa! Egia da, bai: txikiak aurea hartu deustela munduko haundi-maundiei zeruetako erreinuan. Jesus maisuak errazoia dau. Zer dan ume bihotza eukitea! Ardura nagusiak Aitaren eskuetan itzi, bizitzako joan-etorrietan neurritz ibili eta barru-bizitza landu, lagu-nartean bizipoza eta umorea zabalduz. Adiskide, zeuk ez zeunke nahi zeuretzat holako bizimodua? Txomi-nek ondo ikasi eban: hazi behetik gora egiten da, ez goitik behera. Zer dala uste dozu haztea?

#### JAUNAREN BERBEA:

«Ume hau baizen txiki egin daitena, haxe da haundiena zeruetako erreinuan»

(Mt 18, 1-4)

**OTOITZA:**

Bihotz xume eta garbietan bizi zaran Aita! Zuk zeure antzeko egin gaituzu, baina guk harrokeriz zure irudia apurtu dogu, geure haundikeriz zure asmoak hondatuz. Zeure Espirituaren eraginez, bihurtu gaizuz zeure gogoko izatera. Zagoz Zeu gugan eta orduan izango gara eder eta haundi.

**45**

**ESPIRITU SANTUAREN AGINDUZ**



*Espirituaren aginduz  
eta norbera abaleginduz*

Gaurko jente edadetuak aldaketa sakona egin behar izan dau, lehenagoko bizitzako girotik gaurkora. Gaur eta hemen Jaungoikoaren aldeko testigantza emon ahal izateko, testigu biziak behar dira. Alde batetik, ez diruz, ez bakardadez, ez lotsaz bere lekutik aldenduten ez dan kristau jentea. Holakoak sortu daikez gaur eta hemen kezka eta galderak. Zergaitik jokutzen dabe holan? Zeren bila dabiltz? Nok aginduta? Bestetik, inguruko haizearen aurka jokutzen bizi dira: Zergaitik dira gugandik ezbardinak? Zer ikusten dabe guk ikusten ez dogunik? Dirudienez, betiko legeak betetzeak, beste barik, ez dau sortzen kezkarik. Jesus Berak esan eban: «Ni munduak gorroto izan banau, zuok ere gorroto izango zaitue». Izan ere, kristauaren egitekoa munduaren gatzeta eta argia izatea bada, kristau zintzoak bere inguruan gatzarena eta argiarena egiten badau, zer esanak eta kontra jarrerak berez sortuko ditu. Zoritzarrez asko dira argirik nahi ez dabenak, euren jokabideak ilunpetakoak diralako. Ez da zetan esanik: edu honetako kristauak alkarteko kristauak dira; alkarte baten berotasunean hazten eta sendotzen dira; eguneko errezuak eta domeketako mezak, beste barik, ez dira nahiko testigu honeek janaritzeko. Alkarte giroko otoitzaldiak eta lagungarriak beharrezkoak dabez Kristoren aldeko gudariak. Euren eguneroko joan-etorrian agertzen dabe aparteko Laguntzailereren batek darabiltzala.

Horreotarikoa da Joxepa alarguna, jainkozale apala, baina ekintzale bixkorra. Kristau alkartean sartu zan eta han jarraitu dau hainbeste urte; hain bete da goi argiz eta indarrez. Eta batu ahala, banatu beharra sen-

tidu dau barruan. Inguruko parroki eta auzoetan otoitz taldetxo bi eta Bizian Gorako alkarte bat sortu eta gidatzen ditu. Ezetariko eskolarik ez dauka Joxepak, baina bai Jainko esperientzia sakona. Etxean eta auzoan harriturik dauka jentea. Nik aste beteko jardunaldi baten izan neban beragaz ondorengo barriketaldi hau:

- **Joxepa, sakonetik zabiltzala begitanduten jat. Bete-betean zabiltzala. Ez da halan?**
- **Bai, gero eta beteago, eta gero eta pozago. Nekatu arren, gogoak beti gehiago eskatzen deust.**
- **Nun egiten dozuz batzarrak? Eleizan?**
- **Otoitz taldetxo bat baserri bateko txokoan egiten dogu, eta bestea auzoko ermitan. Abadeak badakie zetan gabiltzan; inoiz bisitatxoren bat ere egiten deuskue; baina ibili, gu geutara gabiltz, bialtzen deuskuezan lagungarriak erabiliz.**
- **Eta zelan konponduten zara joan-etorriak egiteko? Ez dozu beti ordurako trenik edo beste modurik izango.**
- **Neure semeari eskatzen deusat gehienetan; eta isilik egiten deust zerbitzu hau. Behin hasarre samar eraso eustan: «AMA, NOK AGINDUTEN DEUTSU HORRENBESTE ARAZO ETA ARDURAZ HARTZEA?»**
- **Eta zer erantzun zeuntsan, Joxepa?**
- **Zera: Espiritu Santuak eraginda nabilela, ez beste inok. Bazenki zelako eragina izan eban beragan nire erantzunak!**

– Ez, semeari ez jako ahaztuko amaren erantzun sako-  
na. Horrek eleizako sermoirik onenak baino eragin  
gehiago dau seme baten bihotzean. Azkenengo urteo-  
tan zure bizitza bete-betea doala dirudi, Joxepa;  
Jainkoa zugaz eskuzabal izan da. Nok esango eutsun  
hau orain zazpi urte? Baina Jaunari eskuak libre izten  
jakozanean, hau eta gehiago.

– Ni ere beste batek esanda sartu nintzan grazizko erre-  
ka honetan, eskerrak lagun hari etorri jat bizitza barri  
hau. Orain neure txanda da: nik ere beste batzuei  
lagundu behar Jesus ezagutzen, Harenganako bidea  
egiten.

– Bai, Joxepa, horixe da Eleiza bizia: danok gara eleiza  
eta danok arduradun, bakoitza bere sailean. Zuk ere  
hartu dozu Jesusen deia eta horra zelako erantzuna  
emoten diharduzun. Kontuak atera aitita-amama guz-  
tiak zertxobait egingo balebe! Etxe eta auzo bako-  
txean Jesusen testigu bizi maitekor bat izango litza-  
teke. Euskalerriko Gotzainak kezkaz agertzen ziran:  
«ZELAN TRASMITIDU SINISMENA». Guk nagusiok ere badogu  
zeregina eta erantzunkizuna, ezta Joxepa?

– Nik argi daukat: geu gara aurrenengo goazenak, geuk  
eroan eta erakutsi behar dogu fede zuzia agirian, eta  
ondorengoei sinismen argia eskeintzen ahalegindu. Ni  
behintzat asmo horregaz nabil. Ez da behingo baten  
testigantza horren eragina ikusten, baina Jainkoak ez  
dauka prixarik, hemen gelditzen da Bera, gu joanda  
gero ere. Berari dagokio frutua jasotea.

– Eskerrik asko, Joxepa, emon deuskuzun eskola ederra-  
gaitik! Eta jarrai aurrera, Jauna lagun dozula!

Irakurle, sinisten al dozu gaur ere badirala holako  
kristau ekintzaileak? Badirala aitita-amamak ere, ha-  
mar mila atxaki albo batera itzita, jo ta ke dihardue-  
nak Jesusen Ebanjelioko bizitzaren alde? Eta zuk eta  
nik zer? Euren testigantza ederrak ez al deuskue era-  
gingo? Zure etxean eta lagunartean ere izango da, ba,  
holako testigu zintzo baten preminea. Zeu zergaitik  
ez? Ezina ez da; zure moduko batzuk badabiltz eta.  
Ez ahaztu esaera sakon hau: Ezina, ekinaz, egina.

#### JAUNAREN BERBEA:

«Zeruetako Erreinua, gizon batek eskuan hartu eta bere  
soloan erein eban ziape-haziaren antzekoa da. Hazi guz-  
tietatik zehena da, benetan; baina, hazten danean, ortua-  
ri guztietatik haundiena da»

(Mt 13, 31-33)

#### OTOITZA:

On guztien iturburu eta banatzaile zaitugun Aita ona! Zu zara  
munduko soloaren jabe bakarra; eta gu danok behar gaituzu  
sola landu eta zure Erreinuako hazia ereiteko. Gu ere aurre-  
ko beste zure laguntzaile batzuen frutu gara. Guk ere ez gen-  
duke nahi huts egin ekintza eder honetan. Hartu gaizuz, Aita,  
garan guztia zeure zerbitzurako zure Erreinuaren alde.

*Gizakiaren atalak dira  
gorputz, bibotz eta buru,  
lehenbizikoa izatea da,  
gero diru ta inguru.  
Eukitez eta jakitez haundi  
ta izatez artaburu...  
Zer santu eta zer guru?  
Jesus da gure egi ta bide  
Harekin gagoz seguru,  
haundiak hemen ospatzen dabe,  
txikiak Domusanturu.*

A. Martzel



## AURKIBIDEA

Atarikoa .....	9
Zelan erabili .....	13
1. Marirribarre .....	15
2. Ni ez nago bakarrik .....	21
3. Kristau bokazinodunak .....	27
4. Bizitzako montxorra ospatzen .....	33
5. Hau komeria! .....	38
6. Ohe gaineko misiolaria .....	43
7. Jesusen gatxa ezarri deust .....	48
8. Zahartzen ikasi nahi dot .....	53
9. Arranoa izan beharrekoa oilo gelditu .....	58
10. Santu izatera deitua .....	62
11. Miren Lorea .....	67
12. Zorrak ordaindu ezinik! .....	72
13. Amamak klausurako bokazinoa ei dauko .....	78
14. Jesusek salbatuta nago .....	83
15. Lotsea galdu dot .....	88
16. Jesusegaz eguneroko zita .....	93
17. Dirubako aberatsa .....	98
18. Zu zaitut, Jauna, nire zahartzaroko makila .....	104
19. Juanitoren egunkaria .....	108
20. Jaungoikoak ni maite nauala? .....	113
21. Gure auzoko patriarka Martin .....	119
22. Jesusen izenean .....	125
23. Kristau lez bizi nahi dot jubilazino aroa .....	131
24. Gure amama katekista sartu da .....	136
25. Ni lehen lotan nengoan .....	142
26. Kapar okupa etxeko lagun .....	146
27. Jesus Bera balitz lez .....	152
28. Hori Berak daki .....	157
29. Urrezko ezteguak .....	163
30. Korupetik altare ondora .....	168



31. Azken esprina joten .....	173
32. Lehorreko arrantzalea .....	179
33. Egon eta itxaron .....	185
34. «Aitearen» eginda, hazia erein .....	190
35. Lurra bigunago, harra barrurago .....	195
36. Jaungoikoaren eskuak .....	200
37. Amama, zu ere ikastolara hasi al zara? .....	205
38. Nik Jesus etxean hartu neban .....	210
39. Hau da gure Liburua .....	215
40. Joxeparen egitaraua .....	220
41. Jesukristogaz kurutzean .....	226
42. Hobe txiki asko, haundi bat baino .....	230
43. Praka motxetan bihotza .....	235
44. Txikitu ahala, hazi .....	240
45. Espiritu Santuaren aginduz .....	245

LABAYRU-IKASTEGIA BIBLIOTEKA - DERIO
Sarr. 44820 / 2009
Gaia.
Tokia.

**Bizian Gora** Mogimenduaren lagungarritzat 9 euskal liburu argitaratu ditu, Mogimenduko lanabesa lez: *Kezkaz* (1974), *Zu ta ni, Biok* (1994), *Aitita-amamen jakituria* (bertsotan) (1996), *Zer deritxazu?* (1997), *Berbearen Ogia* (1998), *Jaungoikoak bedeinkatu gaizala!* (1998), *Jesusegaz topo* (1999), *Aita Patxi* (2000), *Txikiak haundi* (2004). Liburu guztiak bizkaieraz eta batueraz argitaratuta dagoz. "Aita Patxi" erderaz ere bai.

- "Txikiak haundi" eskuetan daukazun liburu hau dozu erakusbide, txiki izatetik haundi izaterako bidea zelan egiten diharduen jakiteko.
- Hain egokia izanda ere, ez da HABERik Bizian Gora baino hoberik, Hirugarren Adineko gehiago euskeraz irakurten eta idazten ipini dituanik.